



TXOSTENA

2011

EMAKUNDE

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



www.emakunde.euskadi.net



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



TXOSTENA

2011

EMAKUNDE

TXOSTENA
2011
EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
2011KO JARDUEREN MEMORIA



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jauriritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



Izenburua: Txostena. Emakunde, 2010

Egilea: Emakunde / Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier, 36 - 01005 VITORIA-GASTEIZ
Tfnoa.: 945 01 67 00
Faxa: 945 01 67 01
e-mail: emakunde@ej-gv.es
www.emakunde.es

Diseinua: xb

aurkibidea

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea	11
Aurkezpena	21
1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-organoen jardunbidea	23
1.1 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza-kontseilua	24
1.2 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak egindako lana euskal botere publikoekiko harremanean	26
1.2.1. Eusko Legebiltzarra	26
1.2.2. Eusko Jaurlaritzako sailak	27
1.2.3. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza	28
1.2.4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea	29
1.2.5. Foru-aldundiak eta udalak	30
1.3 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaritza-taldeak estatuko eta nazioarteko berdintasunerako erakundeekiko lankidetzarako izandako jardunbidea	31
1.4 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak egindako lana euskal gizarteko elkarte eta eragileekiko harremanean.	34
1.4.1. Emakumeen elkarte-sarea	34
1.4.2. Enpresak eta beste gizarte-eragile batzuk.	34
1.5 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak komunikabideekiko izandako jardunbidea	36
1.6 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaritza-taldeak ekitaldi, jardunaldi eta kongresuetan izandako jardunbidea	43

2. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako batzordeek izandako jardunbidea	55
2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea	56
2.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea	57
2.3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Kontsulta Batzordea	58
2.4. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea.	59
3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko esparru funtzionalen jarduerak	61
3.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa	62
3.1.1. EAeko Administrazio Orokorra	62
3.1.2. Foru-administrazioa eta toki-administrazioa	64
3.1.3. Beste instituzio eta erakunde batzuekiko lankidetzeta	73
3.1.4. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeko harrera-baliabideen gaineko Erakunde arteko Talde Teknikoa eta lantaldea.	77
3.2. Generoaren eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioa.	80
3.3. Berdintasun-planak: txostenak, aholkularitza	82
3.4. Sektore-planei buruzko txostenak	83
3.5. Prestakuntza	84
3.5.1. Aholkularitza espezializatua	84
3.5.2. Barne-prestakuntza	85
3.5.3. Kanpoko prestakuntza	87
3.6. Jarraipena eta ebaluazioa.	90
3.7. Emakumeen elkarteak eta berdintasunaren aldeko mugimenduak bultzatu eta indartzeko jarduerak	94
3.7.1. Aholku Batzordea	94
3.7.2. Emakume-taldeei emandako aholkularitza eta laguntza	95
3.7.3. Laguntza ekonomikoa	97
3.7.4. Emakunderen dirulaguntza-programaren bilakaera-azterketa	107

3.8.	Enpresei zuzendutako aholkularitza eta laguntza	110
3.8.1.	Berdintasun-planak: Aholkularitza.	110
3.8.2.	Enpresei eta erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzak	110
3.8.3.	Erakunde laguntzaileen jarraipena	112
3.8.4.	Aholkularitza-erakundeen homologazioa eta jarraipena	112
3.8.5.	Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk	113
3.9.	Programak gauzatzea.	114
3.9.1.	Nahiko.	114
3.9.2.	Gizonduz	116
3.10.	Aholkularitza juridikoa.	120
3.11.	Azterketak, ikerketak, argitalpenak	122
3.11.1.	Azterlanak	122
3.11.2.	Dirulaguntzen eta beken deialdiak	125
3.11.3.	Argitalpenak	127
3.11.4.	Dokumentazio-zentroa	129
3.12.	Gizartearen sentsibilizazioa	136
3.12.1.	Emakunde aldizkariaren argitalpena	136
3.12.2.	Sare sozialak	137
3.12.3.	Berdintasunerako Emakunde Saria	138
3.12.4.	Kanpainak	140
3.12.5.	VIII. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foroa 2011	144
4.	Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen komunikazio-plana IX. Legegintzaldirako	147



EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL
ERAKUNDEA. EZAUGARRIAK,
ERREGIMEN JURIDIKOA ETA FUNTZIOAK

Otsailaren 5eko 2/1988 Legeak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen, erakunde autonomo administratibo gisa, berezko izaera juridikoarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzara atxikita.


Erakundearen helburu nagusia emakumeen eta gizonen artean berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea da, EAEko bizitza politikoaren, ekonomikoaren, kulturalaren eta sozialaren esparru guztietan. Bere lan-helburuak garatzeko, Emakunde EAEko berdintasun politikak sustatzeko, aholkatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko erakunde gisa eratu zen.

Haren funtzioak erakundea sortu zuen aurretik aipatutako legean zehaztu ziren. Dena den, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak honako hauek adierazten ditu Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen funtzioak:

- Lehen proposatutako helburuak lortzera zuzendutako arauak taxutzea eta EAEko botere publikoek aplikatu ditzaten sustatzea.
- Berdintasun politiken eta erkidegoko legediaren segimendua egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa egokitzeari dagokionez, bereizkeriaren aurkako arautegia salbu.
- Bi sexuen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra zailtzen edo eragozten duten oztopoak desagerrarazteko lege-erreformen proposamenak egitea, orobat 4/2005 Legea garatzeko arautegia proposatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak sustatzen dituen xedapen orokorrak lantzeko prozeduran emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko txostenak eta irizpenak egitea.
- Esparru politiko guztietan genero-ikuspegia integratzeko metodoak diseinatzea.
- Euskal administrazio publikoetako organo eskudunei baldintza minimo oinarrizko eta komunak proposatzea, entitate, organo eta unitate eskudunetako langileria emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean gaitzeari eta beren funtzioei dagokienez.
- Euskal administrazio publikoek aholkularitza eta laguntza ematea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza-planak diseinatzeke eta proposatutako helburuak lortzeko.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordearen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen funtzioak sustatzea eta koordinatzea, orobat autonomia erkidegoko botere publikoen arteko beharrezko koordinazio neurriak sustatzea, emakumeen egoeran eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragiten duten programei dagokienez.
- Emakumeen eta gizonen egoera, behar eta interesak aztertzea, baita bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean horregatik sortzen diren desberdintasunak ere, eta, baita ere, jarduera-esparru desberdinetan gauzatu beharreko politika zehaztera zuzendutako azterketak bultzatzea.
- Aholku ematea eta sustapen-neurriak ezartzea, enpresa eta erakundeei emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera zuzendutako planak, programak eta jarduerak garatzeko baliabide material, ekonomiko eta pertsonalak emateko.
- Organo eskudunari entitateek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lotutako zerbitzuak emateko homologazioa lor dezaten aplikatu daitezkeen betebeharrak eta baldintza minimo oinarritzko eta komunak proposatzea.
- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumei oinarritzko eskubide sozialak bermatzera zuzendutako zerbitzuak sustatzea eta proposatzea.
- Emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala, familiarra eta lana bateratzea errazten duten zerbitzu soziokomunitarioak eman eta egokitu daitezzen sustatzea eta proposatzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea, horretarako egokitzat jotzen diren sentsibilizazio, sustapen eta hedapen jarduerak eta kanpainak eginez; bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esanahiaz eta garrantziaz, bai hura lortzearen eta emakumeen jabeakuntzaren alde lan egiteko beharraz.
- Erlazioak eta partaidetza-bideak ezartzea Emakunderen helburuak lortzen laguntzen duten helburu edo funtzioak dituzten elkarteekin, fundazioekin eta bestelako erakunde eta organismoekin.
- Erlazioak eta partaidetza-bideak ezartzea beste autonomia erkidego batzuetako, Estatuko eta nazioarteko antzeko erakundeekin.
- Eta, azkenik, bere helburuei loturik, eslehi dakiokkeen beste edozein funtzio.

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren osaketa



- Lehendakaria
- Emakundeko zuzendaria
- Emakundeko idazkari nagusia
- Eusko Jaurlaritzako sailak (6 kide)
- Foru Aldundiak (3 kide)
- Udalak (3 kide)
- Eusko Legebiltzarrak zuzenean izendatuta (6 kide)
- Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasunaren Batzordea
- Aholku-batzordeko ordezkaria

EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA

1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen gobernu organoak

Erakundea sortu zuen 2/1988 Legeak ezartzen du gobernu organoak hauek direla:

- Zuzendaritza Kontseilua.
- Erakundearen zuzendaria.

1.1. Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendaritza Kontseilua Emakunderen egitura organikoa eta funtzionala zehazten dituen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak arautzen du. Dekretu horrek adierazten duenez, organo horrek ondoko funtzioak dauzka, besteak beste: erakundearen jardueraren urteko memoria onartzea, orobat Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Plana, Emakumeek EAEn duten egoerari buruzko txostena, euskal botere publikoen berdintasunari buruzko jardueraren urteko memoria eta berdintasunaren inguruko arau-proiektuak onartzea, ondoren Gobernuari aurkezteko.

Zuzendaritza Kontseilua, erakundearen zuzendaritza organoa denez, honela osatuta dago:

- Kontseiluburua: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
- Kontseiluburuordea: Emakundeko zuzendaria.
- Kontseilukideak:
 - Sei pertsona, autonomia erkidegoko administrazioaren ordezkari gisa, sailburuorde direnak eta honako gai haueetan eskumenak dituztenak: hezkuntza, lan, osasungintza, industria, kultura eta gizarte-gaietan.
 - Diputatu kargua daukaten hiru pertsona, foru aldundietako ordezkari gisa.
 - Hiru pertsona, EAEko udalen ordezkari gisa.
 - Pertsona bat, Eusko Legebiltzarreko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eskuduna den batzordearen ordezkari gisa.
 - Eusko Legebiltzarrak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ibilbide personal edo profesional ziurtatua izateagatik izendatutako sei pertsona.
 - Pertsona bat, Emakundeko Kontsulta Batzordearen ordezkari gisa.
- Idazkaria: Emakundeko idazkari nagusia.



Maria Silvestre,
Zuzendaria eta Arantxa
Elizondo, Idazkari
Nagusia

1.2. Emakundeko zuzendaria

Erakundeko zuzendaritzaren funtzioak lehen aipatu dugun 214/2006 Dekretuak arautzen ditu. Emakundeko zuzendariari ondoko funtzioak dagozkie, besteak beste: erakundearen lege-ordezkaria izatea, autonomia erkidegoko berdintasun-politikak zuzentzea, erakundearen zuzendaritza administratiboa eramatea eta erakundearen kudeaketa eta barne-ikuskaritza zuzentzea, langileria-politika zuzentzea, orobat Emakunderi esleitzen zaion beste edozein funtzio gauzatzea, horiek ez badaude berariaz Zuzendaritza Kontseiluari edo idazkaritza nagusiari esleitura.

2. Kudeaketarako administrazio organoa: idazkaritza nagusia

Emakunderen idazkaritza nagusiaren funtzioak ere 214/2006 Dekretuak arautzen ditu eta, besteak beste, honako hauek dira: kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa sustatzea, koordinatzea eta ikuskatzea; ondarea eta aurrekontuak kudeatzea; planifikatzea; azterketak eta dokumentazioa; aholkularitza juridikoa eta informazioa; programazioa; beste instituzio batzuekiko lankidetzak; kudeaketa eta laguntza informatikoko prozedurak; azpiegitura egokitzea eta institutuarentzat baliabide materialak eskuratzea; barne-prozedurak taxutzea; erakundearen gastuak, administrazioa eta langileria-kudeaketa; eta, langileentzako prestakuntza eta hobekuntza programak prestatzea.

3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako batzordeak

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak adierazten du erakundeari atxikita eta/edo lotuta daudela honako organo hauek, haien sorrera eta funtzionamendu arauak ezartzen duten moduan:

- 3.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea.
- 3.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.
- 3.3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Kontsulta Batzordea.
- 3.4. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeen arreta hobetzeko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea.

3.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea

Batzorde hori, Emakundera atxikita dagoena, 4/2005 Legeak sortu zuen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan erkidego-, foru- eta udal-administrazioek gauzatzen dituzten politika eta programak koordinatzeko organo arduradun gisa.

Urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuak batzorde hori erregulatzen du eta honako osaketa hau ezartzen du:

- Batzordeburua: Emakundeko zuzendaria.
- Batzordekideak:
 - Eusko Jaurlaritzako ordezkari gisa, batetik, hiru pertsona, sailburuordeak direnak, eta honako gaien ardura daukatenak: herri administrazioa, enplegua eta gizarte gaiak. Eta, bestetik, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria.
 - Foru aldundien ordezkari gisa, bi pertsona foru aldundi bakoitzeko, diputatu direnak.
 - Udal administrazioaren ordezkari gisa, sei pertsona, zinegotziak direnak.
- Idazkaritza: Emakundeko idazkari nagusia.

3.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.

Sail arteko Batzordea 1993an sortu zen formalki, Dekretu bidez. Dena den, Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-politiken garapena, eta Batzordearen lanaren garapena bera direla eta, egokitu egin behar izan da.

Batzorde hori 4/2005 Legeak jasotzen du eta, gaur egun, abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuak arautzen du. Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan gauzatzen dituen jardueren koordinazio-organoa da.

Batzordea Emakunderi atxikita dago eta honako kide hauek ditu:

- Batzordeburua: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
- Batzordeburuordea: Emakundeko zuzendaria.
- Batzordekideak:
 - Lehendakaritzako idazkari nagusia.
 - Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko pertsona bat, dagokion saileko sailburuordea dena.
- Idazkaria: Emakundeko idazkari nagusia.

3.3. Emakunde–Emakumearen Euskal Institutuaren Aholku Batzordea.

Aholku Batzordea 1998an sortu zen, ekainaren 9ko 103/1998 Dekretuaren bidez. Batzorde hori, erakundeari atxikita dagoena, informazioa eta aholkuak emateko eta emakumeen eta gizonen berdintasun arloan inplikaturako elkarte-sareak proposamenak aurkezteko organoa da.

Batzordea, Emakundeko zuzendaritzaz eta langile teknikoez gainera, estatutuetan berdintasun-printzipioa sustatzea barne hartzen duten Emakume elkarteak eta EAEko fundazioez osatuta dago. Aholku Batzordearen esparruan, elkarte eta fundazioak lau jarduera-arlotan banatzen dira, helburuen arabera: esparru soziokulturala, prestakuntza, osasun-laguntza eta hausnarketa feminista.

Osaketa honakoa da:

- Lehendakaria: Emakundeko zuzendaria.
- Lehendakariordea: Emakundeko idazkari nagusia.
- Bokalak:
 - Hamabi kide, elkarte eta fundazio partaideen ordezkari gisa, bat lurralde historiko bakoitzeko jarduera-esparru bakoitzeko.
 - Emakundeko ikerketa, planifikazio eta agirien arduraduna.
 - Emakundeko hezkuntza arduraduna.
- Idazkaria: Emakundeko informazioaren eta elkarteen arduraduna.

3.4. Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea.

2009ko otsailaren 3an, etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko Erakunde arteko II. Akordioa sinatu zen eta, akordio horretan, Jarraipen Batzorde bat sortzea adostu zen. Batzorde horren funtzioen artean, akordioak honako hauek ezartzen ditu: akordioan jasotzen diren neurri eta irizpideen aplikazio eraginkorra bermatzea; baterako jarduerak eta erakunde arteko koordinazioa hobetzeko jarduerak proposatzea; eta jarduera-protokoloko edukiak sortzen diren egoera berrietara egokitzea.

Gaur egun, Jarraipen Batzordearen osaketa hau da:

- Lehendakaria: Emakundeko zuzendaria.
- Honako instituzioetako kideak (sailburuorde edo antzeko kargua dutenak):
 - Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia.
 - Honako gaietan eskudunak diren Eusko Jaurlaritzako sailak:
 - Osasuna
 - Herritarren segurtasuna
 - Justizia
 - Gizarte zerbitzuak
 - Gizarte bazterkeria
 - Enplegua
 - Etxebizitza
 - Hezkuntza
 - Arabako Foru Aldundia.
 - Bizkaiko Foru Aldundia.
 - Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - Eudel-Euskadiko Udalen Elkarte.
 - Legelarien Euskal Kontseilua.
 - Euskadiko Sendagileen Kontseilua.
- Idazkaria: Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako zuzendaria.

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren XI. legealdirako egitura organiko eta funtzionala arautzen duen abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritza sortzen eta arautzen du eta, Jarraipen Batzordearen 2010eko azaroaren 18ko saioan, zuzendaritza horren partaidetza onartu zen Batzordeko kide gisa eta, gainera, idazkaritza lanak bere gain hartu zituen. Horren ondorioz, Emakundeko idazkari nagusiak Batzordeko kide eta idazkari izateari utzi dio.

4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea

Emakumeen eta Gizonen Defentsa Erakundea 4/2005 Legeak sortu zuen, herritarrak sexubereizkeriako egoeren aurrean defenditzeko eta autonomia erkidegoan emakumeen eta gizonen artean tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadin sustatzeko.

Defentsa Erakundea, ekainaren 13ko 119/2006 Dekretuak arautzen duena, Emakunderi atxikita dago, horren egitura hierarkikoan integratuta egon gabe, eta funtzioak administrazioarekiko erabateko autonomiaz gauzatzen ditu.

5. Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundearen kudeaketako arlo funtzionalak

Emakundek kudeaketako bost arlo funtzionaletan antolatzen den egitura bat du eta Erakundeko langileria horien inguruan taldekatzen da.

- Administrazio arloa.
- Aholkularitza juridiko eta informazio arloa.
- Lankidetzaren arloa.
- Azterketa, dokumentazio eta plangintza arloa.
- Programa eta heziketa arloa.

Aipatutako arloetako batean ardurak eta lanak gauzatzen dituzten langileez gainera, erakundeak laguntza-talde orokor bat du administrazio-lan orokorrak gauzatzeko, ordenantza gidari batekin.

Azkenik, aipatzekoa da erakundeko zuzendariak laguntzaile bat eta idazkari bat dituela. Halaber, Emakundeko idazkari nagusiak ere idazkari bat du.

Aurkezpena

Emakunderen 2011ko jarduera planaren kontu ematen du memoria edo txosten honek. Plan horren xedea da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak Emakunderi esleitzen dizkion funtzioak betetzea. Halaber, EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planifikaziotik eratorritako konpromisoei erantzuten die, euskal botere publikoek legealdi bakoitzean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloan dituzten jarraibide eta ildo nagusiak ezartzen dituen aldetik.

Aintzat hartu behar da, batetik, EAEko berdintasun-politikak sustatzeko, aholkua emateko, planifikatzeko eta ebaluatzeko erakundea dela Emakunde, eta, bestetik, bere egitekoa dela, 4/2005 Legeak arautzen dituen edukiak berdintasunari buruzko planifikazio orokor baten bidez lehenestea eta zehaztea; horrenbestez, oso normala da bi jarduera horiek gainjartzea Emakunderen eguneroko lanaren egikaritzan eta kudeaketa-lanetan.

Erakundearen jarduera-memoriari dagokionez, Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak onartu behar du, 214/2006 Dekretuan jasotzen den moduan. Hori dela eta, jarraian aurkezten den jarduera-memoria, Emakundek 2011 ekitaldian gauzatu duen lanari dagokiona, Zuzendaritza Kontseiluak 2012ko ekainaren 14ko bilkuran onartu zuen.

Emakundek egiten dituen jardueri buruzko ikuspegi orokorra ematen du memoria honek, haien testuinguruan aintzat hartuta. Horrez gainera, Emakunde zuzentzen duten organoek (Zuzendaritza Kontseilua eta Emakundeko zuzendaria), idazkaritza nagusiak, erakundera atxikitako batzordeek eta Emakunderen antolaketa osatzen duten arlo funtzionaletako langile tekniko eta administratiboek egindako lana deskribatzen du.



1. EMAKUNDE-EMAKUMEAREN
EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARITZA-
ORGANOEN JARDUNBIDEA

1.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza-Kontseilua

Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak bi ohiko bilera egin zituen 2011n. Egun hauetan egin diren bilera horiek, adieraziko diren gaiak lantzeko:

1. 2011ko ekainaren 10ean:

- Emakunde-Emakundearen Euskal Erakundeak 2010ean egindako jardueren memoria aurkeztea, eta, egoki bada, onartzea.
- Publizitate eta komunikazio ez-sexistaren alorreko aholkularitza-batzordearen araupen eta funtzionamenduko dekretuaren proposamena aurkeztea eta, bi-dezkoa bada, hura onartzea.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Plana – IX. legegintzaldiko jarraibideak ebaluatzeko sistema berriaren aurkezpena.

2. 2011ko abenduaren 13an:

- «Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko Zifrak – 2011. urtea» txostena aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.

Zuzendaritza
Kontseilua



- «Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lankidetzaren Erakundea» aitortzen arautzeko Dekretuaren proposamena aurkeztea, eta, egoki bada, onartzea.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. plana – IX. legegintzaldirako jarraibideak izeneko plana 2010. urtean ebaluatzeko prozesuari buruzko informazioa.
- Berdintasunaren aldeko Emakunde sariaren epaimahaiaren eta hura irabazteko hautagaitzen aurkezpena 2011ko edizioan.
- Diru-laguntzak arautzeko 2012. urtean emango diren ebazpenei buruzko informazioa. Hauek izango dira diru-laguntza horien xede:
 - Emakumeen elkarte-jarduerak eta haien parte-hartzea sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri, udalen elkarte eta mankomunitateei emango zaizkie diru-laguntzak emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egin aurreko diagnostikoak egiteko eta/edo haiek egin, ebaluatu eta egokitzeko.
 - Enpresa eta entitate pribatuei emango zaizkie diru-laguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasunari eta berdintasun-planei buruzko diagnostikoak egiteko.
 - Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean ikerlanak egiteko hiru beka emango dira.
 - Ikerlanak argitaratzeko proiektuak egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren gai-alorrean.

1.2. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak egindako lana Euskal Botere Publikoekiko harremanean

1.2.1. Eusko Legebiltzarra

Eusko Legebiltzarreko taldeek egindako zenbait galdera idatziz erantzuteaz gainera, Emakundeko zuzendariak honako agerraldi hauek egin ditu 2011. urtean, Eusko Legebiltzarreko batzorde hauetan:

1. «Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasun» batzordean:

- **Martxoak 21ean:** norberak eskatutako agerraldia egin zuen, «Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko Zifrak – 2010» txostena aurkezteko.
- **Martxoak 21ean:** norberak eskatutako agerraldia egin zuen, «Botere publikoek EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana -2006-2009- betetzeko egindako lanaren memoria» aurkezteko.
- **Martxoak 21ean:** norberak eskatutako agerraldia egin zuen, «Etxean tratatu txarrak pairatu dituzten emakumeek EAEn dituzten harrera-premiei erakundeek eman duten erantzuna. Emakumeei etxean ematen zaizkien tratatu txarren kasuetan harrera emateko baliabideen nolakotasunaren eta eraginkortasunaren ebaluazioa» izeneko txostena aurkezteko.
- **Irailaren 19an:** Talde mistoa-Eusko Alkartasunak egindako eskaerari erantzunez, agerraldia egin zuen, batzordeak eskatuta, azaltzeko zertan datzan otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, aldatzeko proiektua (IV. titulua: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea).
- **Azaroaren 30ean:** norberak eskatutako agerraldia egin zuen, 2010eko amaierako Txostenaren berri emateko. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bete-tze-mailaren, garapenaren eta aplikazioaren jarraipena egin, eta, beharrezkoa bada, hura berrikusteko aukera aztertzen du txosten horrek.
- **Abenduaren 20an:** norberak eskatutako agerraldia egin zuen Emakunderen 2010eko jardura-memoria aurkezteko.

Emakunde Eusko
Legebiltzarrean



- **Abenduaren 20an:** norberak eskatutako agerraldia egin zuen, Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen 2010eko txostena aurkezteko.
- **Abenduaren 20an:** norberak eskatutako agerraldia egin zuen, txosten hau aurkezteko: «Etxean tratatu txarrak pairatu dituzten emakumeek EAEko gizarte-zerbitzuen aldetik izan duten erantzuna. 2006ko ebaluazioaren eguneratzea, arretako programa eta zerbitzuen norainokoa eta efikaziaren ikuspegitik».

2. «Erakunde, Herrizaingo eta Justizia» batzordean:

- **Urriaren 4an:** agerraldia egin zuen, batzordeak eskatuta eta Aralar taldeak egindako eskaerari erantzunez, Herrizaingo Saila Hondarribiko Alarde Mistoaren ibilbidea aldatzeko hartu zuen erabakia azaltzeko.

3.«Ekonomia, Ogasuna eta Aurrekontuak» batzordean:

- **Azaroaren 7an:** Jaurlaritzako beste kide batzuekin batera, 2012ko aurrekontu-proiektuari buruzko agerraldian parte hartu zuen.

1.2.2. Eusko Jaurlaritzako sailak

Emakunderen zuzendaritzak Lehendakaritzarekin aldi behin egiten dituen bilerez gainera (Lehendakaritzaren kudeaketa arruntari loturiko jarduerak partekatuzko

eta koordinatzeko), Emakunderen zuzendaritzak lankidetzak eta koordinazio-lanak egin ditu Eusko Jaurlaritzako sailekin, Gobernuaren politika publikoetan genero-ikuspegia barne hartzeari loturiko neurriak sustatzeko.

Bestalde, Emakunderen zuzendaritza sail arteko edo erakunde arteko batzordeetako kide da, orobat Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak sustatutako beste organo batzuetakoa (Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua; Familiaren Erakunde arteko Batzordea; Garapena eta Lankidetzak Sustatzeko Funtzaren Batzorde Kudeatzailea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua; Droga-mendetasunen Euskal Kontseilua; Ijito Herriaren Kontseilua; Herritar Etorkinen Integrazioarako eta Partaidetza Sozialerako Foroa; Adineko Pertsonen Batzorde Iraunkor Sektoriala), Kultura Sailak sustatutako beste organo batzuetakoa (EAEko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea; EAEko Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra) eta Herrizaingo Sailak sustatutako beste batzuetakoa (Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Sail arteko Batzordea).

Eusko Jaurlaritzako sailekiko lankidetzaren baitan, adierazi behar da Justizia eta Herri Administrazioa, Enplegu eta Gizarte Gaietarako eta Kultura sailekin lan egin duela Emakundek, genero-ikuspegidun aurrekontu publikoak osatzeko proiektu batean. Proiektu hori lantzeko, Emakundek bilera bat egin zuen urtarrilaren 19an Enplegu eta Gizarte Gaietarako eta Kulturako sailburuekin, eta Justizia eta Herri Administrazioa sailburuaren kabinete-arduradunarekin.

Emakundeko zuzendaritzak Justizia eta Herri Administrazioa sailarekin lan egin du Informazioaren Sozietatearen Euskadi Plana egiten eta Giza Eskubideen René Cassin Sariaren 2011ko edizioako entrega-ekitaldia prestatzen eta haren zabalkundea egiten. Horrez gainera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera parte hartu du Ignacio Ellacuria Sariaren 2011ko edizioan, sariaren epaimahaiko kide izanda.-

Emakume Zientzialariaren Nazioarteko Urtea izan da 2011. urtea, eta, nazioarteko urte horren harian, Emakundeko zuzendaritzak lehiaketa bat prestatu du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten duen ikasleei zuzendua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin eta Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin lankidetzan. Lehiaketa horren xedea da emakumeek zientziari, ingurumenari, soziologiari, pedagogiari eta beste hainbat alorri egin dizkieten ekarpenak nabarmentzea.

1.2.3. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

Emakunderen Zuzendaritzak eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailari atxikita dagoenak, bi aldeko zenbait bilera egin dituzte, bi organismoen koordinazio beharrezkoa indartzeko, biek

ere emakumeen aurkako indarkeriaren gaian garatu behar duten lana koherentea, osagarria eta kontsonantea izango bada.

Emakunderen zuzendaritzak hainbat bilera egin ditu Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzarekin, emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta biktimen oneratzeko osorako lege-aurreproiektuaren esparru orokorrak eta artikulua aztertu eta adosteko. Herrizaingo Sailak eginiko araua da hori.

Emakunderen zuzendaritzak, Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzako beste ordezkari batzuekin eta beste instituzio eta entitate batzuekin bat, honako emakume hauen hilketengatik antolatu ziren salaketa-ekitaldietan parte hartu zuen: Rosario Román (Hernani, uztailaren 3an) eta Deisy Mendoza (Bilbao, abuztuaren 22an), emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak biak.

1.2.4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea

Emakundeko zuzendariak betetzen ditu, 2010eko martxoaren 15az geroztik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeari dagozkion egin-kizunak, martxoaren 2ko 2/2010 Dekretuak araututakoari jarraituz.

Jaurlaritzako Kontseiluak, 2011ko ekainaren 4an egin zuen bileran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen IV. titulua (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea) aldatzeko lege-aurreproiektua onartu zuen, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitzeko, osorik, Berdintasunerako Defentsa Erakundea. Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortu zuen 4/2005 Legeak, herritarrak babesteko organoa izan dadin eremu pribatuan ematen diren sexuagatiko diskriminazio-egoeren aurrean, eta lan-eremuan berdintasun-printzipioa urratzen duten egoeren aurrean. Lege horrek arautu zuen Administrazioaren gainerako atalekiko autonomia osoz beteko zituela bere eginkizunak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita, baina Administrazioaren egitura hierarkikoan txertatu gabe.

Jaurlaritzako Kontseiluak onartu zuen lege-aurreproiektua Legebiltzarrean dago orain aztertze-fasean, eta haren egungo xedapenek Emakundera atxiki nahi dute osorik Berdintasunerako Defentsa Erakundea, eskumen-gatazkarik eta funtzio gain-jarpenik izan ez dadin Emakunderen eta Berdintasunerako Defentsa Erakundearen artean; hala, zuzendaritza bakar bat ezarri nahi da, Emakundeko zuzendariarengan bilduko litzatekeena.

1.2.5. Foru-aldundiak eta udalak

Emakundeko zuzendaritzak lan-bilerak egin ditu foru-aldundiekin eta EAEko udalekin, Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluaren saioen bidez (ekainaren 10ean eta abenduaren 13an), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearekin (maiatzaren 2an) eta Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearekin (maiatzaren 2an, uztailaren 15ean eta azaroaren 8an), memoria honetan deskribatzen den moduan.

Bestalde, Genero Indarkeriaren Bizkaiko Behategiko partaide da Emakundeko zuzendaritza.

Azkenik, Berdinsareari dagokionez (Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal udalerrien sarea), Emakundek, 2005ean Emakundek eta Eudelek Berdinsarea martxan jartzeko sinatu zuten Lankidetzak Hitzarmenaren jarraipena egiteko, beharrezko lan-bilerak egin zituen. Ondoren, 2009an Eusko Jurlaritzak Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritza sortu zuenean, hitzarmenean aipatutako zuzendaritza barne hartu zen, bai eta Berdinsarearen lan-esparruan ere. Emakundeko zuzendaritza, Berdinsarea sarearen lanaren baitan, lan egin du foru- eta toki-administrazioekin Emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguneko kanpainan (azaroaren 25 da egun hori), eta haiekin elkarlanean aritu da, halaber, biztanle gutxiko udalerrietan berdintasun-politikak ezartzeko neurriak martxan nola jarri aztertzeke.

Azkenik, adierazi behar da Emakundeko zuzendaritza foru-aldundiekin eta udalekin bildu zela Bilbon (urtarrilaren 17an) eta Donostian (urtarrilaren 21ean), haiei informatika-aplikazio berri bat aurkezteko. Aplikazio horren bidez, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana – IX. legegintzaldirako jarraibideak izeneko agiriaren ebaluaziori dagozkion datuak bilduko dira, eta erraztu egingo da berdintasunerako planen jarraipena egitea administrazioetan.

1.3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaritza-taldeak estatuko eta nazioarteko berdintasunerako erakundeekiko lankidetzarako izandako jardunbidea

Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak adierazten du beharrezkoa dela Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia erkidegoetako administrazioak lankidetzan aritzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea integrazteko dagozkien eskumenetan jardutean eta, bereziki, planifikazio-jardueretan. Hori dela eta, lankidetzaz-esparru horretan, Emakunderen zuzendaritzak Berdintasunari buruzko Konferentzia Sektorialaren Batzorde Teknikoan eta Berdintasunari buruzko Konferentzia Sektorialean parte hartu zuen, garai hartako Berdintasun Ministerioak deitu zituenak eta Madrilen egin zirenak, martxoaren 4an eta 16an, hurrenez hurren.

Beste alde batetik, Emakunderen zuzendaritza Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaren Behatokiko kidea ere bada. Behatoki hori urriaren 6ko 1686/2000 Errege Dekretuak sortu zuen, emakumeen egoerari buruzko informazioa biltzeko, analizatzeko eta ezagutarazteko, orobat zenbait esparrutan emakumeen egoera hobetzeko helburua duten politikak proposatzeko.

Horrez gain, autonomia-erkidegoetako, estatuko eta nazioarteko berdintasunerako erakundeekin lan egin du:

- **Otsailaren 17 eta 18an.** Emakumearen Institutuarekin lan egin zen Bilbon antolatzeke Egiturazko Fondoaren eta Kohesio Fondoaren bidez egindako emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako Politiken Sarearen hirugarren bilera. Bilera hori Emakumearen Institutuak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak eta Lan eta Immigrazio Ministerioak deitu zuten. Emakundez gain, bileran izan ziren, laguntzaile, Eskualde Garapeneko Funts Europarrak eta Europako Gizarte Funtsak EAEn dituzten erakunde arduradunak (Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila eta Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila).

Gerora, Emakundeko zuzendaritzak «Eskualde Garapeneko Funts Europarrear eta Europako Gizarte Funtsean aukera-berdintasuna txertatzeko» jardunaldian parte hartu zuen, Bilbon, azaroaren 23an. Bi funts horiek kudeatzen dituzten erakunde bitartekariak antolatuta zuten jardunaldia, eta haren xedea izan zen ikusaraztea beharrezkoa dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako estrategiak indartzea Eskualde Garapeneko Funts Europarrear eta Europako Gizarte Funtsaren programa operatiboetan, bai egungo 2007-2013 programazio-aldian, bai hurrengo 2014-2020 programazio-aldian.



Berdintasunerako Politiken Sarearen bilera.



FEDER jardunaldia.

- **Otsailaren 22tik martxoaren 4ra.** Nazio Batuen baitako Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordearen (CSW) 55. saioan parte hartu zen, New Yorkeko egoitza zentratean. Hori izan zen CSW Batzordearen lehen saioa NEB-Emakumeak Erakundea sortu ondoren –Nazio Batuen erakundea, genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea bultzatzeko–. Estatu kideen, Nazio Batuetako erakundeen eta gizarte zibilaren ordezkariak parte hartu zuten batzorde horretan, eta saioko gai nagusia izan zen emakume eta neskatok sarbidea eta parte-hartzea izatea hezkuntzan, lanbide-heziketan, zientzian eta teknologian, eta, horrez gainera, emakumeek aukera izatea, berdintasunez, enplegu osoa eta kalitatezko lanak erdies- teko.
- **Martxoaren 3an.** Emakundeko zuzendaritzak, New Yorken egin zuen egonaldian, bilera bat izan zuen NBE-Emakumeak erakundeko zuzendari eragile Michelle Bacheletekin. Administrazioaren politiketan genero-ikus- pegia txertatzeko proiektuetan elkarlanean jarduteko bideak aztertu ziren bilera horretan. NBE-Emakumeak erakundearekin izandako harremanen ondorioz, NBE-Emakumeak Mexiko, Erdialdeko Ame- rika, Kuba eta Errepublika Dominikarrerako duen eskualde-zuden- dari Ana Güzmes eta NBE-Emakumeak Espainian duen loturarako bulegoko zuzendari Rocío Rodríguez Emakunderen egoitzara etorri ziren bisitan urriaren 11n.



NBEko bisitaldia eta memorandumaren sinadura-ekitaldian.



Michelle Bacheletekin.

- **Apirilaren 15ean.** Bilera bat egin zen Kordoban Emakumearen Andaluziako Institutuaren zuzendari Soledad Pérez andrearekin eta haren taldearekin. Bilera horretan, informazioa trukatu zen eta aztertu egin zen zer metodologia darabilen Andaluziako Gobernuak genero-ikuspegidun aurrekontu publikoak osatu eta haien ebaluazioa egiteko; horrez gainera, Andaluziako emakume enpresarien elkarteekin lankidetzaz jorratu zen eta Eusko Jaurlaritzaren berdintasunerako administrazio-unitateei buruzko informazioa trukatu zen.
- **Maiatzaren 17an.** Lan-saio bat egin zen Burdeoson, Pirinioez gaindiko isurialde atlantikoko Konferentziak emakumeen eskubide eta berdintasuna lantzeko duen eskualde-ordezkaritzak antolatua.
- **Urriaren 20an.** Azkenik, NBE-Emakumeak Erakundearekin egindako lanaren baitan, NBE-Emakumeak erakundeak eta Eusko Jaurlaritzak izenpetu zuten elkar ulermenerako memorandumaren sinadura-ekitaldian izan zen Emakundeko zuzendaritza. Memorandumaren xedea da estrategia integral bat lantzea berdintasunaren, emakumeen partaidetza soziopolitikoaren eta ahalduentzaren alde, Latinoamerikan eta Kariben. Memoranduma NBE-Emakumeak erakundeko zuzendari eragile Michelle Bachelet andreak eta Patxi López lehendakariak izenpetu zuten, nahiz eta Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintzako idazkari orokor Guillermo Etxenike jauna izan zen azken horren ordezkaria izenpetze-ekitaldian.

1.4. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak egindako lana euskal gizarteko elkarte eta eragileekiko harremanean

1.4.1. Emakumeen elkarte-sarea

Emakunderen zuzendaritzak, berarekin topaketa- eta kontraste-bilera bat egitea eskatu zuten erkidegoko emakume-elkarte guztiekin egindako bi aldeko bilerez gainera, Emakunderen Kontsulta Batzordearen bilerak deitu ditu martxoaren 22rako eta azaroaren 16rako, eta bilera horietan parte hartu du.

Horrez gainera, urtarrilaren 4an, bilera bat egin zen Bilbon prostituzioan jarduten diren emakumeekin lan egiten duten EAEko hiru lurraldeetako elkarteekin, haien egoera aztertu eta ekintzarako eta lankidetzarako ildoak adosten saiatzeko.

1.4.2. Enpresak eta beste gizarte-eragile batzuk

Nabarmendu behar da, 2011. urtean, Emakundeko zuzendariak emandako ebazpen bidez, 13 entitate emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko entitate laguntzaile gisa onartu direla. Azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuak sortu zuen figura juridiko hori, gizartean eta lan-munduan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak bultzatzeko eta entitate horiek guztiek berdintasunaren alorrean egiten duten lana aitortzeko.

Bestalde, adierazi behar da Emakundek dekretu-proposamen bat prestatu duela 2011. urtean, «Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko Erakundeen» aintzatespena arautzeko. Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak 2011ko abenduaren 13an egin zuen ohiko bileran aurkeztu eta aho batez onartu zuen dekretu-proposamen hori. Proposamen horrek sakontasunez lantzen du 424/1994 Dekretuak araututako Erakunde Laguntzailearen figura juridikoa, eta zenbait hobekuntza egin dizkio figura juridiko horren araupenari, hura sortu zenetik egin den kudeaketa-lanean hauteman diren hutsuneak betetzeko. Horiek horrela, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 41. artikulua arau-garapena egin da; izan ere, artikulua horrek arautzen du Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko Erakundeak izenda ditzakeela Eusko Jaurlaritzak, gizartean eta lan-munduan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak sustatzeko, baldin eta erakunde horiek berdintasun-politikak lantzen badituzte, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.



Erakunde laguntzaileei ezaugarri plaka ematea.



“Berdintasuna eta enpresa” jardunaldia.

Gaur egun, 64 erakunde dute Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko Erakundearen izendapena. Izendapen hori lortzean, Emakundeko Zuzendaritzak ziurtagiri bat eta plaka bat ematen dizkie erakundeei izaera hori egiaztatzeko. Erakunde hauek lortu dute izendapena 2011n:

- Bilur 2000, S.L.
- Limpiezas Bilur, S.L.
- 97 S&F, S.L.
- Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarte
- Inviza, S.A.
- CEI Formación y Asesoramiento Empresarial, S.L.
- Itelazpi, S.A.
- Kirol Management, S.L.U.
- Usoa Lantegia, S.A.U.
- Gipuzkoako Hogar Nuevo Futuro
- Gizarte-bazterketaren aurka egiteko «Margotu» elkarte
- Autobuses Cuadra, S.A.
- Izenpe, S.A.

1.5. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak komunikabideekiko izandako jardunbidea

Herritarrak Emakunderen helburuen inguruan sentsibilizatzeko eta egindako jarduerak ezagutarazteko, Emakunderen zuzendaritzak hedabideei zuzendutako sentsibilizazio- eta informazio-lan garrantzitsua egiten du. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidaltzen ditu, eta prentsaurrekoak eta bestelako ekintza batzuk antolatzen ditu.

Emakunderen zuzendaritzak hedabideei zuzenduta egindako informazio-jarduera zabala azaltzea ezinezkoa denez (prentsa-oharrak, irrati eta prentsa elkarrizketak eta abar), jarraian, iritzi-artikuluak, prentsaurrekoak eta hedabideei egindako deialdiak bakarrik adieraziko dira:

- **Urtarrilak 4.** Berdintasunaren Emakunde Sariaren irabazle izan den hautagaitza aurkezteko prentsaurrekoa: «Teresa del Valle katedraduna, Berdintasunaren Emakunde Sariaren irabazlea – 2010. urtea».
- **Urtarrilak 10.** Prentsa-oharra: «Emakundek 96.000 euro jarri ditu berdintasunerako planak eta diagnostikoak egiten laguntzeko enpresei».
- **Urtarrilak 18.** Prentsa-oharra: «Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txostena eta berdintasunaren alorreko jarduera publikoen ebaluazioa onartu ditu Jaurlaritzaren Kontseiluak».
- **Urtarrilak 26.** Deialdia komunikabideei: «Neskato eta mutikoen sentimen eta emozioak aztergai Emakunderen NAHIKO programako II. mintegian».



Emakunde sariaren ematea.



NAHIKO mintegia. Amparó Tomé.



Martxoaren 8ko kanpainaren aurkezpena.

- **Otsailak 3.** Prentsaurrekoa: «Lan-esparruan sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko protokolo bat prestatu du Emakundek».
- **Otsailak 21.** Prentsa-oharra: «Generoen arteko aldeak eragiten dituen faktoreak gogorarazi ditu Emakundek Emakumeen eta Gizonen Soldataberdintasunaren aldeko Egunean».
- **Otsailak 25.** Prentsaurrekoa: «Erabakiguneetan emakumeen presentzia bultzatu behar dela gogorarazten du Emakundek martxoaren 8ko egun honetan».
- **Otsailak 28.** Prentsa-oharra: «Michelle Bachelet andrearekin bildu da Emakunde, NBE-Emakumeak erakundearekiko lankidetzabideak aztertzeko».
- **Martxoak 8.** Emakundeko zuzendariaren iritzi-artikulu: «Emakumeak aurrera».
- **Martxoak 10.** Prentsa-oharra: «Maribel Arriortua Marcaida katedraduna zoriondu du Emakundek, Ikerketaren Euskadi Saria irabazi duelako».
- **Martxoak 15.** Prentsa-oharra: «Formatu digitaleko liburuak jarri ditu Emakundek eskuragai bere web-orrian, Cedro erakundearen laguntzarekin».
- **Martxoak 16.** Prentsa-oharra eta deialdia: «Emakundeko zuzendariak Deustuko Unibertsitatean emandako hitzaldia, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko ikasgelatan».



Emakunde Real Sociedad taldeko futbolariekin.



Emakunde Real Sociedad taldeko hockeyko jokalariekin.

- **Martxoak 18.** Prentsa-oharra eta deialdia: «Kanpaina bat abiatu du Emakundek omenaldi bat egiteko EAEko emakumeen kirol-taldeei».
- **Martxoak 31.** Prentsa-oharra: «Beste zazpi erakundek lortu dute Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko Erakundearen izendapena, Emakunderen eskutik».
- **Apirilak 1.** Prentsa-oharra eta deialdia: «Emakunde Real Sociedad taldean belar-hockeyan jokatzan duten emakumeekin».
- **Apirilak 11.** Prentsa-oharra eta deialdia: «Berdintasunaren alorrean egin-dako lana eta alor horretako erronkak ikusaraziko ditu Emakunde Gauak».
- **Apirilak 12.** Pentsaurrekoa: «Neskatoen eta emakumeen eskubideak landuko ditu munduan hezkuntzaren alde egiteko asteak».
- **Maiatzak 2.** Prentsa-oharra eta deialdia: «Neskatoen eta mutikoen autonomia pertsonala izango da Emakunderen NAHIKO programako III. mintegiko gai nagusia».
- **Maiatzak 5.** Prentsa-oharra: «Emakundek adierazi du «leihatila bakarrak» ez dituela bereizten emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko politikak eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak».
- **Maiatzak 10.** Prentsa-oharra: «Parekotasun-printzipioa betetzen dute maiatzaren 22ko hauteskunde-hautagaitzek, baina gizonak dira oraindik ere nagusi zerrendetako lehen postuetan».



«Emakumea Euskadiko arte eszenikoetan» liburuaren aurkezpena.



Berdintasunerako VIII. Gunearen aurkezpena.

- **Maiatzak 18.** Prentsaurrekoa: «Emakumea Euskadiko arte eszenikoetan liburuak bistarazi egin nahi du 500 zuzendari, egile eta aktore emakumezko bako bako gehiagok egindako lana».
- **Maiatzak 31.** Berdintasunerako VIII. Foroa aurkezteko prentsaurrekoa: «Emakumeen partaidetza erabakiguneetan» Emakundek antolatua.
- **Ekainak 1.** Prentsa-oharra eta deialdia: «Clara Campoamor ekarri du gogora Emakundek, Dora Salazarrek egindako eskultura bat jarri».
- **Ekainak 6.** Prentsa-oharra eta deialdia: «Sarean lan egiteko erronka aztertuko du Euskadiko emakume ijitoen elkartearen topaketa batek».
- **Ekainak 13.** Prentsa-oharra: «Berdintasunerako Legea aldatu du Jaurlaritzak, Emakunderi atxikitze osorik Berdintasunerako Defentsa Erakundea».
- **Ekainak 15.** Prentsa-oharra: «Emakumezko saskibaloi-jokalariei arropa estuak jantzarazteko FIBAk hartu duen erabakia salatu du Emakundek».
- **Ekainak 29.** Prentsa-oharra eta deialdia: «Krisia eta hari genero-ikuspegitik aurre egiteko aukerak aztertuko dira EHUko udako ikastaroetan, Emakunderen eskutik».
- **Ekainak 29.** Prentsa-oharra: «Irungo Alarde Mistoan parte hartuko du Emakundek».



«Krisia eta hari genero-ikuspegitik aurre egiteko aukerak» EHUko udako ikastaroak

- **Uztailak 3.** Prentsa-oharra eta deialdia: «Donostia-CUP lehiaketan parte hartzen duen emakume guaranien talde bati harrera egin dio Emakundek Lehendakaritzan».
- **Uztailak 14.** Prentsa-oharra: «EAEn izan diren emakumeen aurkako indarkeriazko azken kasuak aztertuko dituzte botere publikoek ezohiko bilera batean».
- **Uztailak 20.** Prentsaurrekoa: «Emakume profesionalek direktorio bat egin du Emakundek, gizarteak haiek ikus ditzan eta haien lana aitortzea».
- **Uztailak 26.** Prentsa-oharra: «Artikulu espezializatuen sorta bat argitaratu du Emakundek, izenburu honekin: Gizonak eta maskulinitateak: jakintza-alor anitzeko azterketa».
- **Abuztuak 22.** Prentsa-oharra: «Emakundek deialdi bat egiten dio herritargoari Bilbon hil duten emakumearen hilketarekiko arbuioa adieraz dezan».
- **Abuztuak 22.** Prentsa-oharra: «Berdintasunaren Emakunde Sariko 2011. urteko deialdia ireki da».
- **Abuztuak 29.** Prentsa-oharra: «Donostian adingabeko neskato bati egindako sexu-erasoa kondenatzen du Emakundek».
- **Irailak 6.** Prentsa-oharra: «Jaizkibel konpainiak datorren urtean bere ibilbidea berreskuratuko duela bermatzen saiatzeko konpromisoa hartu du Emakundek».



Goi-mailako emakumezko kirolariei omenaldia

- **Irailak 12.** Pentsaurrekoa: «Euskal erakundeen lehiaketa bat jarri dute mar-txan gazteriak urrats bat eman dezan nesken aurkako indarkeria-ren aurka egiteko».
- **Irailak 15.** Pentsa-oharra eta deialdia: «Neskatoen eta mutikoen ikaskun-tzaren mugak, Emakunderen NAHIKO programako V. mintegiko gai nagusia».
- **Irailak 19.** Pentsa-oharra: «Berdintasunerako Defentsa Erakundea Emakun-deri atxikita eraginkor eta efizienteagoa izango dela ziurtatu du María Silvestrek».
- **Irailak 26.** Pentsa-oharra: «Emakumeek egindako kirolak presentzia han-diagoa izatea eskatu du Emakundek Zubietako euskal derby-an».
- **Irailak 28.** Pentsa-oharra: «Goi-mailako emakumezko kirolaria omenduko ditu Emakundek berariazko egun bat ospatuz».
- **Urriak 4.** Pentsa-oharra: «Jaizkibel Konpainiaren babesari berretsiko du Emakundek Legebiltzarrean».
- **Urriak 6.** Pentsa-oharra: «Indarkeria sexistarekiko sentsibilizazioko eta debateko saioak EHU unibertsitateko hiru campusetan».
- **Urriak 7.** Pentsa-oharra: «Emakundek poztasunez hartu du Bakearen Nobel saria emakumeen eskubideen aldeko borrokari eman zaio-lako».

- **Urriak 10.** Prentsa-oharra eta deialdia: «NBE-Emakumeak Mexiko, Erdialdeko Amerika, Kuba eta Errepublika Dominikarrerako zuen zuzendaria hartuko du bihar Emakundek».
- **Urriak 17.** Prentsa-oharra: «Hitzarmen bat izenpetu dute Eusko Jaurlaritzak eta NBE-Emakumeak erakundeak, emakumeen partaidetza sustatzeko erabakiguneetan».
- **Urriak 21.** Prentsa-oharra: «Nesken garaia izeneko proiektua babestu du Emakundek, Araban emakumeen saskibaloia sustatzeko xedea duena».
- **Urriak 26.** Prentsa-oharra: «Azken bi urteetan, 1.655 gizoni eman die Emakundek berdintasun-alorreko prestakuntza».
- **Azaroak 16:** Prentsa-oharra eta deialdia: «Gizonei, botereari eta indarkeriari buruzko mintegia» Emakunden, Gizonduz ekimenaren baitan».
- **Azaroak 21:** Prentsa-oharra eta deialdia: «Berdintasuna barneratzea egiturazko funtsetan, egun bateko eztabaidagai».
- **Azaroak 22:** Prentsaurrekoa: «Azaroaren 25eko kanpaina aurkezten dute bihar euskal erakundeek».
- **Azaroak 24:** Prentsa-oharra: «Emakundek gogorarazten du berdintasun-politikatik abiatu behar dutela emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean egiten diren interbentzio guztiak».
- **Azaroak 25:** Emakundeko zuzendariaren iritzi-artikulua: «Indarkeriak, biktimak eta erreferenteak».
- **Azaroak 30:** Prentsa-oharra: «2005. urtean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea onartu zenez geroztik egin diren aurrerapenak aztertuko ditu Emakundek».
- **Abenduak 11:** Emakundeko zuzendariaren iritzi-artikulua: «Ezin da emakume bat genero-indarkeriaz akusatu».
- **Abenduak 20:** Prentsa-oharra: «Emakundek hauteman du genero-ikuspegiari garrantzi handiagoa eman behar zaiola emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei emandako arretan».

1.6. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaritza-taldeak ekitaldi, jardunaldi eta kongresuetan izandako jardunbidea

Emakunderen zuzendaritzak ekitaldi publiko ugarian parte hartu du 2011. urtean.

- **Urtarrilak 13-15.** «Politics and Gender» Nazioarteko Kongresuan parte hartu du, Central European University, Budapest.
- **Urtarrilak 26.** Emakunderen NAHIKO programako II. mintegia, «Neskato eta mutikoen sentimendu eta emozioak» izenekoa, aurkeztu da Emakundek Gasteizen duen egoitzan.
- **Urtarrilak 28.** Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko Durangaldeko Erakunde arteko Protokoloa izenpetzeko ekitaldian parte hartu du Emakundeko zuzendaritzak.
- **Otsailak 15.** Emakunderen zuzendaritzak lagundu egin du Save The Children erakundeak Madrilen otsailaren 15ean egin zen jardunaldian eman zuen informazioa prestatzen. Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako biktima izan diren pertsonen seme-alaben berariazko premiei instituzioek ematen dieten arreta eta erantzuna jorratzen du informazio horrek, eta gai-alor horretan egindako azterlan baten emaitzak jakinarazi zituen, zehazki, agerraldi horrek.
- **Otsailak 17.** Bahiyih Nakhjavani idazlearen «La mujer que leía demasiado» liburuaren aurkezpena Bilbon.
- **Otsailaren 22tik martxoaren 4ra.** Nazio Batuen baitako Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordearen (CSW) 55. saioan parte hartu zen, New Yorkeko egoitzan.
- **Martxoak 8.** Bisita Martuteneko espetxera, emakume presoekin lan egin duen Hegaldi elkarteak gonbidatuta.
- **Martxoak 9.** Emakunderen NAHIKO programa aurkeztu zen Bilboko irakasle-eskolan.
- **Martxoak 13.** Emakumeen 22. lilatoian parte hartu zen, Donostian.
- **Martxoak 17.** Emakunderen NAHIKO programa aurkeztu zen Deustuko Unibertsitatean.
- **Martxoak 17.** Bizitza osoko ikaskuntzaren lege-aurreproiektuari egindako ekarpenei buruzko lan-saio batean parte hartu zen, Zamudion.

- **Martxoak 25.** «Genero-berdintasuna eta enpresen kudeaketa. Prozesuen berrikuntza» mintegiko «Erakundeen bizipenak enpresetan genero-berdintasuna bultzatzeko alorrean» izeneko mahai-inguruan parte hartu zen Iruñean, Berdintasunerako Nafarroako Institutuak antolatuta.
- **Martxoak 29.** «Familia-bizitza eta lana bateratzea: egungo egoera eta etorkizuneko erronkak» izeneko mahai-inguruan parte hartu zen. Deustuko VII. Enplegu Foroak antolatu zuen eta Bilbon egin zen.
- **Martxoak 30.** «Berdintasun-politikak. Berdintasunaren bidean al goaz Unibertsitatean?» hitzaldian parte hartu zen.
- **Martxoak 31.** Bizkaiko Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak ematen dituen enpresa-sarien V. edizioan parte hartu zen, Bilbon. 2011. urtean, sariak Izaskun Astondoari (Astondoa su-etxea), María Victoria Cañasi (Díez-Caballero upategiak) eta Iberdrola enpresari eman zitzaizkien.
- **Apirilak 7.** Eragin elkarteak Donostian antolatu zuen «Emakumeen eta gizonen egoera Euskadin: konpondu gabeko auzia» hitzaldian parte hartu zen.
- **Apirilak 8.** Basauriko Udalak antolatutako «Emakumeen aztarnen mapa» jardunaldien irekiera-ekitaldian parte hartu zen, herri horretan bertan.
- **Apirilak 12.** Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarekin batera, Hezkuntzaren aldeko Mundu Ekintzaren Astea aurkeztu zen. EAEko zenbait GKEk bultzatutako ekimena da, eta Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren baitan kokatzen da. Emakundek Gasteizen duen egoitzan egin zen aurkezpena.
- **Apirilak 12.** Etxeko Andre elkartearen 40. urteurreneko kongresuan parte hartu zen, Bilbon.
- **Apirilak 27.** «Forum Europa Tribuna Libre» tribunaren informazio-gosarian parte hartu zen, Bilbon. Nueva Economía Fórum izan zen antolatzailea.
- **Maiatzak 3.** Genero-indarkeriari buruzko mintegi batean parte hartu zen, euskal herri-administrazioei zuzendutako mintegia izanik. Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzak antolatu zuen mintegia, eta zuzendaritza horrek Bilbon duen egoitzan egin zen.
- **Maiatzak 5-6.** Emakumeei eta lidergoari buruz Istanbulen egin zen kongresuan parte hartu zen.

- **Maiatzak 11.** «Ikasgelako mahaietatik erredakzioetara: kazetarien belau-naldi berri bat prestatzen» jardunaldian parte hartu zen. EHU Unibertsitateak Bilbon duen Kazetaritza Fakultatean egin zen jardunaldi hori.
- **Maiatzak 12.** Madrilen ekonomia feministari buruz egin zen mintegi-taile-rrean parte hartu zen.
- **Maiatzak 14.** Arabako Landa Inguruneko Emakumeen Sarearen XIII. to-paketan parte hartu zen. Hau izan zen jardunaldietako leloa: «Emakumeen egitekoa landa-garapenean». Arabako Landa Inguruneko Emakumeen Sareak antolatu zuen topaketa hori eta Eskuernagan egin zen.
- **Maiatzak 17.** Lan-saio batean parte hartu zen Burdeos-en, Pirinioez gain-diko isurialde atlantikoko Konferentziak emakumeen eskubi-de eta berdintasuna lantzeko duen eskualde-ordezkaritzak antolatua.
- **Maiatzak 18.** Arantxa Iurrek idatzitako «Emakumea Euskadiko arte es-zenikoetan» liburua aurkeztu zen, Emakunderen laguntzaz egindakoa. Emakundek Gasteizen duen egoitzan egin zen aurkezpena.
- **Maiatzak 20-21.** EHU Unibertsitatearen emakumeen eta gizonen berdint-
tasunerako Masterraren baitako «Mugimendu feminista,
emakume-taldeak eta berdintasunerako organismoak: elka-
rriketarako bide berriak?» II. jardunaldietan parte hartu zen,
hitzaldi hauekin: «Euskal administrazio publikoen egitekoa
elkarrizketa-jardunean», «Berdintasun-agenteen egitekoa
elkarrizketa jardunean» eta «Ikuspegiak bateratzea elkarriz-
ketak hobetzeko».
- **Ekainak 1.** «Emakumezko erizainen partaidetza orekatua erabaki eta
eragineko eremuetan» izeneko mintegian parte hartu zen,
Gasteizko Erizaintza Sindikatuak antolatutako Berdintasune-
rako VIII. Foroan.
- **Ekainak 1.** Clara Campoamor omendu zen Dora Salazarrek egindako es-
kultura bat inauguratuz. Emakunderen ekimenez egin zen
eskultura hori eta Donostiako Clara Campoamor enparantzan
jarri da. Emakundeko zuzendariak eta Donostiako Udaleko
Hizkuntza Normalkuntzarako, Lankidetzarako eta Berdinta-
sunerako zinegotziak inauguratu zuten, Berdintasunerako
VIII. Foroaren baitan.
- **Ekainak 1.** Laura Mañák zuzendutako «Clara Campoamor. La mujer olvi-
dada» izeneko filma ikusi zen Donostian, Berdintasunerako
VIII. Foroaren baitan. Han izan zen, halaber, filmaren zuzen-
dari eragile Miriam Porté.



Emakumearen IV. lasterketaren aurkezpen ofiziala.

- **Ekainak 1.** Gasteizko Emakumearen IV. lasterketaren aurkezpen ofizialean parte hartu zen.
- **Ekainak 2.** Immigrazio eta Dibertsitatearen Kudeaketako Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila) Bilbon antolatutako «Emakume immigrante eta ekintzaileak: aberastasun sozial eta ekonomikoaren sortzaileak» izeneko mintegian parte hartu zen, Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan.
- **Ekainak 2.** EHUko irakasle-eskolak Gasteizen antolatutako «Emakumearen presentzia desorekatua Hezkuntza Sistematan» izeneko mintegian parte hartu zen, Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan.
- **Ekainak 2.** Bilbao Metr poli-30 erakundeak Bilbon antolatutako «Emakumearen parte hartzea eremu soziopolitikoan, unibertsitatean eta enpresa-munduan» izeneko mintegian parte hartu zen, Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan.
- **Ekainak 2.** Bagabiltza fundazioak Bilbon antolatutako «Emakumeen partaidetza soziopolitikorako bide gaitza» izeneko mintegian parte hartu zen, Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan.

- **Ekainak 3.** Muskizko Udalaren Andrakintza-2011 XII. sarien emate-ekitaldian izan zen Emakunde.
- **Ekainak 4.** «Partaidetza politikoa eta emakumeak» Uribe Kostako Emakumeen III. topaketen inaugurazio-ekitaldian parte hartu zen. Uribe Kostako Emakumeen Kontseiluak antolatu zuen Urdulizen, Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan.
- **Ekainak 6.** Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostian antolatutako «Emakumeak enpresak sortzeko prozesuetan» izeneko mintegian parte hartu zen, Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan.
- **Ekainak 7.** Miguel Lorenteren aurkezpena eta hark zuzendutako hitzaldia eta elkarrizketak, hizlari izan zen aldetik Deustu-San Ignazio Moduluko Emakume Zerbitzuak Bilbon antolatutako «Gizonak berdintasun-garaietan» mintegian, Berdintasunerako VIII Foroaren baitan.
- **Ekainak 7.** Deustuko Unibertsitateko Gizarte Zientzia eta Humanitateetako fakultateak Bilbon antolatutako «Emakumeen autonomia eta partaidetza sozialaren inguruko hausnarketa Deustuko Unibertsitateetik» mintegian parte hartu zen, Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan.
- **Ekainak 7.** Gasteizko Aizan elkarteak antolatutako «parte hartzen al dute emakumeek erabaki eta eragin alorretan?» World Kafean parte hartu zen, Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan.
- **Ekainak 9.** Emakume ijitoen elkarteek (Amuge, Chanelamos Adikerar, Romí Bidean, Sim Romí) Emakunderen laguntzarekin Bilbon antolatutako «Emakume ijitoen elkarte mugimenduetan parte hartzeko erronkak. Sareko lana» mintegiaren inaugurazioa, Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan.
- **Ekainak 14.** Amelia Valcárcel andreak (UNED Unibertsitateko Filosofia Moral eta Politikoko katedraduna) eman zuen hitzaldian hau aurkeztu zuen Emakunde: «Emakumeen partaidetza erabaki eta eragin alorretan». Gerora Legebiltzarreko talde politikoen arteko debate bat izan zen. Eusko Legebiltzarrak antolatu zuen ekitaldi hori, Bilbon, Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan.
- **Ekainak 15.** Félix Baltistan fundazioak Bilbon antolatutako «Emakumeen partaidetza Hushe-ko haranean (Pakistan)» izeneko mintegian parte hartu zen, Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan.
- **Ekainak 16.** Plazandreok plataformak Donostian antolatu zuen «2011ko Hauteskundeak. Emakumeak kargu publikoetan eta berdintasunerako politiken garapenean duen eragina» mahai-inguruan parte hartu zen.



Emakume Indigenen Mugimenduari harrera.

- **Ekainak 16.** Ramon Saizarbitoria idazlearen «Hamaika pauso» testuaren irakurketan parte hartu zen. Bilbo Zaharra euskaltegiak antolatu zuen ekitaldia, Bilbon.
- **Ekainak 17.** Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioak Bilbon antolatu zuen berdintasunerako eta diskriminazioaren aurkako 2011 Foroaren Euskadiko erkidego-mintegian izan zen Emakunde.
- **Ekainak 20.** EDE fundazioak Bilbon antolatutako «Bizkaiko hirugarren sektoreko zuzendaritza-emakumeen topaketa» mintegian parte hartu zen, Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan.
- **Ekainak 27.** Emakunderen NAHIKO programaren IV. mintegiaren inaugurazioa, Bilbon.
- **Ekainak 29-30.** Emakundek antolatutako «Krisi ekonomikoa: analisia eta aurrerak genero-ikuspegitik» ikastaroan parte hartu zen. Ikastarohori Donostian egin zen, EHUK antolatzen dituen udako unibertsitate-ikastaroen baitan.
- **Ekainak 30.** Irungo Alarde Mistoan parte hartu zen.
- **Uztailak 6.** Emakundeko zuzendaritzak Lehendakaritzan hartu zuen MOMIN (Munduko Emakume Indigenen Mugimendua) mugimenduko emakume guzuen talde bat, Donosti Cup 2011 nazioarteko futbol-torneoan parte hartu zuena.
- **Uztailak 7.** Berdintasunerako VIII. Foroaren amaierako mintegian parte hartu zuen Emakundeko zuzendaritzak. Emakunde berak antolatu zuen ekitaldia, Bilbon.

- **Irailak 7-9.** Politika eta Administrazioaren Zientziako Espainiako Elkarteak (AECPA) Murtzian antolatu zuen «Politika sarean» X. kongresuan parte hartu zen eta hitzaldi hau aurkeztu zen: «Nork jasotzen du diru publikoa? Genero-ikuspegidun aurrekontuak».
- **Irailak 8.** Hondarribiko Alarde Mistoan parte hartu zen.
- **Irailak 15.** Emakunderen NAHIKO programaren V. mintegiaren inaugurazioa, Bilbon.
- **Irailak 27.** «Emakumea eta lidergoa. Erakunde efiziente eta lehiakorragoak egiteko bidean» izeneko jardunaldia ireki zen, Bilbon. Zuzendaritzaren hobekuntzarako ADB elkarteak eta EHUK antolatu zuten jarduera.
- **Irailak 30.** Emakundek antolatutako «Emakumeak goi-mailako kirolean» mintegia inauguratu zuen zuzendaritzak, Donostian.
- **Urriak 4.** Zine Ikusezineko Nazioarteko III. Festibalaren amaiera-ekitaldian parte hartu zen. Kultura Communication Desarrollo izeneko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak antolatu zuen ekitaldia, Bilbon. Emakume errealizadore batek egindako obra onenaren saria entregatu zuen zuzendaritzak.
- **Urriak 5.** «Berdintasuna Euskadiko organizazioetan» izenburuko debatean parte hartu zen. Dato Económico erakundeak antolatu zuen debatea, Bilbon.
- **Urriak 6.** Modulu bat eman zuen zuzendaritzak Deustuko Unibertsitateak emakumeen indarkeriaren aurkako interbentzioa izeneko masterrean.
- **Urriak 15.** Landa Inguruneko Emakumeen Nazioarteko Eguneko jardunaldiaren itxiera-ekitaldian parte hartu zen, Ordizian. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak antolatu zuen jardunaldia, EAEko hainbat erakunderen laguntzarekin.
- **Urriak 17.** Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioak eta Europako Batzordeak estatu espainiarrean duen ordezkariak antolatutako «Emakumeek Espainiako zientzian duten egoerari buruzko Liburu Zuria» eta «Zientzia-erakundeen egiturazko aldaketa. Bikaintasuna, berdintasuna eta efizientzia ikerketan eta berrikuntzan» txostenen aurkezpenean izan zen zuzendaritza, Madrilan.
- **Urriak 20.** NBE-Emakumeak Erakundeak eta Eusko Jaurlaritzak izenpetu zuten elkar ulermenerako memorandumaren sinadura-ekitaldian izan zen Emakundeko zuzendaritza. Memorandumaren xedea da estrategia integral bat lantzea berdintasunaren, emakumeen partaidetza soziopolitikoaren eta ahalduntzearen alde, Latinoamerikan eta Kariben.



“Berdintasuna eta enpresa” jardunaldia.

- **Urriak 27.** El Salvadorko Cuscatlan eskualdean egiten diren berdintasunerako udal-politikei buruzko lankidetzaproiektuaren ebaluazioa aurkezteko jardunaldietan parte hartu zen. Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzarako Zerbitzuak antolatu zuen jardunaldia.
- **Urriak 28.** «Prostituzioa eztabaidagai» jardunaldietan egin zen «Politika publikoak Euskadin» izeneko mahai-inguruan parte hartu zen, Gasteizen. Hiesaren aurkako Arabako Herri Batzordeak eta ESK sindikatuak antolatu zituzten jardunaldiak.
- **Azaroak 3.** Genero-indarkeriari eta komunikabideei buruzko jardunaldien aurkezpenean parte hartu zen. Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritzak Bilbon antolatuta zituen jardunaldiak.
- **Azaroak 7-9.** «Genero-indarkeria ezintasun funtzionalak dituzten pertsonengan. Begirada bat ikusezinari» izeneko jardueren itxieran parte hartu zen. Zuzenak fundazioak antolatu zituen jarduerak, Gasteizen.
- **Azaroak 10-11.** «Garai berriak, aukera berriak» Berdintasunerako XI. jardunaldien irekietan parte hartu zen. Portugaleteko Udalak antolatu zituen jarduerak.



FEDER jardunaldia

- **Azaroak 11.** «Berdintasuna eta enpresa. Aldaketarako bitartekoak» izeneko jardunaldian parte hartu zen. Emakundek antolatu zuen jardunaldia, Bilbon, Kalitatearen eta Bikaintasunaren XVI. Aste Europarraren baitan.
- **Azaroak 11.** «Etorrizuneko joerak» hitzaldia eman zen «Hirigintza inklusiboa. Kaleek generoa dute» mintegian (azaroak 9-11). Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak antolatu zuen mintegia, Gasteizen.
- **Azaroak 15-16.** Espainiako ordutegiak arrazionalizatzeko xedez Donostian egin zen «Enpresen ordua» VI. Kongresu Nazionalen parte hartu zen, eta lekukotza bat irakurri zen.
- **Azaroak 18.** Aurrez aurreko prestakuntza-saio bat inauguratu zen Gizonduz programaren baitan. AHIGEko Antonio Garcia izan zen hizlari inaugurazio-ekitaldian.
- **Azaroak 23.** «Aukera-berdintasuna barneratzea Eskualde Garapeneko Funts Europarrean eta Europako Gizarte Funtsean» izeneko jardunaldian parte hartu zen, Bilbon. Eskualde Garapeneko Funts Europarraren eta Europako Gizarte Funtsean programa operatiboek EAEn dituzten organismo bitartekariak antolatu zuten jardunaldia, Emakunderen laguntzarekin.



René Cassin saria.

- **Azaroak 24.** Aspasia emakumeen elkarteak Bilbon antolatu zuen emakume-ari eta kirolari buruzko I. jardunaldiaren inaugurazioan parte hartu zuen zuzendaritzak.
- **Azaroak 26.** Donostiako Beldur Barik elkarteak Donostiako Emakumeen Etxean antolatutako «Topaketa 2011» topaketan parte hartu zen eta «Beldur Barik 2011» sariak ematen parte hartu zuen zuzendaritzak.
- **Azaroak 28.** Galdakaoko Udalak antolatu zituen Berdintasun Jardunaldiaren parte hartu zen.
- **Azaroak 29-30.** Bilbon parte hartu zen «Botere publikoek EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak betetzeko egindako lanaren jarraipena-ebaluazioa» hitzaldiaren aurkezpenean. Zerbitzu Publikoen Kalitateari buruzko III. Estatu Konferentzian «Kalitatearen balio erantsia. Lankidetzeta eta partaidetzeta eraginkorragoak izateko» eman zen hitzaldi hori, Politika Publikoak eta Zerbitzuen Kalitatea Ebaluatzeko Estatu Agentziak (AEVAL) eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin antolatutakoa.
- **Azaroak 30.** Giza Eskubideen René Cassin 2011 Saria entregatzeko ekitaldian izan zen Emakundeko zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak ematen du sari hori. Mendebaldeko Saharan giza eskubideen defendatzaile den Aminetu Haidar izan zen 2011ko sariaren irabazlea.

- **Abenduak 13:** «Berdintasunerako Emakunde Saria» emateko epaimahaikide izan zen Emakundeko zuzendaritza sari horren 2011ko edizioan. Irungo San Martzial Alarde Berdintasunezkoari eta Hondarribiko Jaizkibel Konpainiari eman zaie saria 2011n. Alarde Publikoaren Alde eta Alardezaleak elkarteak izan ziren haien ordezkari saria emateko ekitaldian.
- **Abenduak 14:** Euskadin Immigrazioaren arloko Gizarte Hitzarmen bat eratzeko prozesua aurkezteko jardunaldian parte hartu zen, Bilbon. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak antolatu zuen jardunaldia.



2. EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEARI ATXIKITAKO BATZORDEEK IZANDAKO JARDUNBIDEA

2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak ohiko bilera bat egin zuen 2011ko maiatzaren 2an. Gai hauek aztertu ziren bilera horretan:

- 2010. urteko amaierako txostena, «Gizonen eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bete, garatu eta aplikatzen den zaintzekoa» aurkeztea, eta, egoki bada, onartzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean toki-erakundeei ematen zaizkien diru-laguntzak hobetzeko Erakunde arteko Teknikarien Taldeak egindako proposamena aurkeztea, eta, egoki bada, onartzea.
- Hiru lantalderen eraketa aurkeztea eta, egoki bada, onartzea. Lantaldeen jardun-alorrak dira «Hitzarmen, diru-laguntza eta kontratuetan berdintasunerako neurriak betetzeko irizpideak eta bitartekoak», «Generoaren arabera eraginaren ebaluazioak egin eta aplikatzeko irizpideak» eta «Hezkuntzan berdintasunaren alde lan bateratua egiteko neurriak».
- Gizarte-zerbitzuen alorreko bi txosten aurkeztea; bat «Emakumeek etxean pairatzen duten tratatu txarren kasuetan haiek hartzeko bitartekoan nolakoaren eta eraginkortasunaren ebaluazioa», eta, bestea, «Arretako programa eta zerbitzuen nolakoaz eta eraginkortasunak 2006an egin zen ebaluazioaren eguneratzea».

2.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordeak ohiko bilera bat egin zuen 2011ko uztailaren 6an. Gai hauek aztertu ziren bilera horretan:

- Emakundeko zuzendariaren txostena:
 - Sailek emakumeen eta gizonen berdintasunerako dituzten dokumentu-programen egoera 2011. urtean.
 - Sailen arteko Talde Teknikoaren lanari buruzko informazioa.
 - Genero-eraginaren txostenak.
- 2010. urteko amaierako txostena, Gizonen eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bete, garatu eta aplikatzen den zaintzekoa, aurkeztea.



Sailarteko Batzordea.

2.3. Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundearen Kontsulta Batzordea

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Kontsulta Batzordeak bi bilera egin zituen. Jarraian adierazten dira bilera horien datak eta gai-zerrendak:

1. 2011ko martxoaren 22an:

- Kontsulta Batzordeko ordezkoko batzordekide bat hautatzea Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluan parte har dezan.
- «Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko Zifrak – 2010. urtea» txostenari buruzko informazioa ematea.
- «EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena – 2006/2009» agiriari buruzko informazioa ematea.
- Emakunderen IX. legegintzaldirako eta 2011. urterako planari buruzko informazioa ematea.
- Irailaren 12ko 166/2006 Dekretua, Berdintasunerako Emakunde Saria sortu eta arautzekoa, aldatzeko ekimenari buruzko informazioa ematea. Sarirako hautagaitzen berri ematea eta 2010. urtean saritua izan den hautagaitzari buruzko informazioa ematea.
- otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, aldatzeko (IV. titulua: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea) lege-aurreproiektuari buruzko informazioa ematea.
- Emakume-elkarteei 2011n ematekoak zaizkien diru-laguntzen deialdia aurkezte, eta Emakundek ematen dituen gainerako diru-laguntza eta beken deialdiei buruzko informazioa ematea.

2. 2011ko azaroaren 16an:

- Kontsulta Batzordeak Berdintasunerako 2011ko sariaren epaimahaian izango duen ordezkaria eta haren ordezkoa izendatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitu eta haren biktimak osotasunean artatu eta oneratzeko legearen aurreproiektuari buruzko informazioa ematea.
- Elkarteen diru-laguntzen deialdia 2012. urtean bitarteko telematikoz izapidetzeko aukerari buruzko informazioa ematea.

2.4. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak ohiko bi bilera eta ezohiko bilera bat egin zituen 2011. urtean. Hauek izan ziren bilera-datak eta gai-zerrendak:

1. 2011ko maiatzaren 2an egindako ohiko bilera:

- Erakunde arteko II. Hitzarmenaren irizpideak 2010ean nola bete diren zaindu eta ebaluatuko duten txostena egiteko erabakia.
- Erakunde arteko Talde Teknikoaren eraketari buruzko informazioa ematea eta, egoki bata, ETT taldeak 2011. urtean izango duen lan-egutegia aurkeztea.
- Informazioa ematea Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak 2010eko azaroaren 18an 190/2010 legez besteko proposamenaren onarpenari buruz (Erakundeen arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeari buruz diharduena) eta emakumeen aurkako indarkeriaren politikei hauteman zaizkien gabeziei eta egin beharreko hobekuntzei buruz.
- Genero-indarkeriaren alorreko lege bat egiteko lan-prozesuaren abiatzeari buruzko informazioa ematea, Eusko Jaurlaritzak 2009ko azaroaren 17an onartu zuen IX. legegintzaldiko legegintza-egutegiari jarraituz.
- Gizarte-zerbitzuen alorreko bi txosten aurkeztea; bat «Emakumeek etxean pairatzen duten tratu txarren kasuetan haiek hartzeko bitartekoan nolakoaren eta eraginkortasunaren ebaluazioa», eta, bestea, «Arretako programa eta zerbitzuen nolakoaz eta eraginkortasunak 2006an egin zen ebaluazioaren eguneratzea».
- «EAEn genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak» alorrari buruzko 2010eko balantzearen aurkezpena.
- Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren eskaera, Jarraipen Batzordean parte hartzeko.

2. 2011ko uztailaren 15ean egindako ezohiko bilera:

- Euskal Autonomia Erkidegoan genero-indarkeriaren ondorioz 2011. urtean hil diren emakumeen kasuak aztertzea.

- Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeak hiltzea eragin dezaketen genero-indarkeria egoerei begira lan-prozedura bat ezartzea Jarraipen Batzordearen baitan.

3. 2011ko azaroaren 8an egindako ohiko bilera:

- Deisy Mendoza andrearen heriotza ekarri zuen indarkeria-kasuaren azterketa (Bilbon, 2011ko abuztuaren 22an).
- Jarraipen Batzordeak bete beharreko lan-prozeduraren proposamena heriotzaren bat gertatzen den kasurako, azterketa sakon bati ekin eta beste lan-proposamen batzuk egiteko.
- Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren eskaera, Jarraipen Batzordean parte hartzeko.
- Egindako jardueren jarraipenerako eta ebaluaziorako txostena (2010) eta jarduera-protokoloaren betetze-mailaren balorazioa aurkeztu, aztertu eta, egokia bada, onartzea.
- 2011n jarraipen eta ebaluazioko txostena egiteko jarraibideak adostea.
- Erakunde arteko Talde Teknikoak eta lantaldeak harrera-baliabideei buruz egiten ari diren lanari buruzko informazioa ematea.
- Sententzia judizialetara egokitzea Administrazioak ematen dituen ziurtagiriak.
- Aldarte elkarteak egindako eskaera bati buruzko informazioa ematea.



**3. EMAKUNDE-EMAKUMEAREN
EUSKAL ERAKUNDEKO ESPARRU
FUNZIONALEN JARDUERAK**

3.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa

3.1.1. EAEko Administrazio Orokorra

Eusko Jaurlaritzaren barnean berdintasun-politika sustatzeko eta aholku emateko funtzioa, batez ere, Sail arteko Talde Teknikoaren bidez betetzen du Emakundek. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea arautzen duen Dekretuak¹ zehazten duenaren ildotik, talde horren helburua batzorde horretako kideei laguntza eta aholkularitza tekniko ematea da, eta esleitzen zaizkion gaietan, azterlanak, txostenak eta proposamenak egingo ditu horretarako. Emakundek sustatzen eta koordinatzen du taldea eta, bai sail arteko bileren bidez eta bai alde biko bileren bidez, sail bakoitzari dagozkion sektoreko politiken azterketan laguntza ematen die, berdintasuna bultzatzen duten helburuak identifikatuz, jarduketarako estrategiak definituz eta sail bakoitzaren eta Gobernu osoaren berdintasun-politiken plangintzarako, garapenerako eta jarraipenerako tresnak planteatuz. Ildo horretatik, lankidetzeta eta aholkularitza eskaini zaie 2011. urtean Jaurlaritzako sailei beren 2011ko programa-dokumentua egiteko; betiere, otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 15.2. artikulua arautzen duena betetze aldera.

Aholkularitza eta informazioko lanean, 257 kontsultari erantzun zaie, Jaurlaritzako sailek, erakunde autonomiadunek eta ente publikoek egindakoak. Halaber, proiektu zehatzak gauzatzeko lankidetzeta eman da, batez ere materialak berrikusteko eta prestatzeko edota genero-ikuspegia barne hartzen duten sektore-ekintza berritzaileak abian jartzeko. Halaber, berdintasunerako politiken plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko proposamenak landu dira.

Hauek dira Emakundeko Sail arteko Talde Teknikoaren esparruan 2011. urtean garatutako ekintza zehatzak.

- Bilerak antolatu, prestatu eta koordinatu ditu, baita horien jarraipena egin ere.
- Sail arteko Talde Teknikoko kideei aholkularitza eskaini die, urteko programa-dokumentuak taxutzeko.
- Sailen arteko Talde Teknikoarekin adostutako dokumentu bat egin du, eta bertan jasotzen dira Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitu eta haren biktimak osotasunean artatu eta oneratzeko legearen aurreproiektuari egin zaizkion ekarpenak.
- Aplikazio informatiko bat lantzen jarraitu du berdintasunaren alorreko jardunbide onak kontsultatzeko aukera emango diona hala nahi duenari, eta jardunbide on horiek bereganatzeko aukera emango diona Eusko Jaurlaritzako sailei eta haren

1 Ikus Emakunderi atxikitako batzordeak, 2. atalean.

erakunde eta sozietate publikoei eta Estatu osoko bestelako erakunde publikoei, enpresa publikoei eta emakume-elkarteei. Hori guztia xede horretarako ezarritako irizpideak betez egin beharko da.

Sailen arteko Talde Teknikoarekin egiten den lanaz gain, bi aldeko lana egiten du Emakundek sail jakin batzuekin, sail horiek proiektu eta zeregin zehatzen harian egiten dituzten eskakizunei erantzuteko, batik bat. Hauek izan diren, 2011. urtean, lan-jardun horretan egin ziren ekintzak:

- Bi lantaldean parte hartu du, bat emakume immigranteei eta genero-indarkeriari buruzkoa, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritzak eta Immigrazio eta Dibertsitatearen Kudeaketako Zuzendaritzak bultzatutakoa, eta bestea sexu esplotaziorako xedez egindako emakumeen salmentari buruzkoa, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritzak sustatutakoa.
- Immigrazio eta Dibertsitatearen Kudeaketarako Zuzendaritzarekin lan egin du, berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren ildoak jorratzen duten politiken koordinazioa eta zeharkakotasuna lantzeko lantalde bat prestatu eta garatzen parte hartuz. Lan saio hori «Berdintasunerako eta diskriminazioa ezezteko 2011 Foroko» Euskadiko mintegi autonomikoan mamitu zen, Progress ekimenak finantzatzen laguntzen duen «Todoimás» proiektuaren baitan.
- Txosten tekniko bat egin da EITB erakundeak emakumeen eta gizonen aukeraberdintasunerako duen Planari buruz (2011- 2014).
- Aholkularitza eman zaio Justizia eta Herri Administrazio Sailari Eusko Jaurlaritzako emakumeen eta gizonen berdintasunerako Plana egiteko prozesuan.
- Halaber, «Emakumeak iraunkortasunaren alde» lehiaketa antolatu dute Emakundek eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta In-

gurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, EAEn derrigorrezko bigarren hezkuntza egiten duten ikasleentzat, nabarmentzeko zer-nolako ekarpena egin duten emakume zientzialariek, soziologoek, pedagogoek eta ingurumen-langileek planeta iraunkorra izan dadin.

Lehiaketari ekin baino lehen, jarduera bat prestatu da jakinarazteko zer ekarpen askotariko egin dituzten emakumeek iraunkortasunaren alde, eta, ondorioz, ikasleek emakumeen ekarpen sozial, politiko, zientifiko eta ekonomikoari buruz duten jakintza handitzeko eta ikasleak jabeazteko lana dagoela oraindik egiteko emakumeek eta gizonak bizitzaren alor ugartan egin duten lana aitortzeko. Lan-ildo horren harian, koordinazio-bilerak egin dira proiektu honetan parte hartzen duten sailtako teknikariekin, laguntza-materiala prestatu da irakasleentzat, ikasgeletan aurkeztuko diren materialak egin dira, ikasgelako dinamikan lantzeko proposamen dinamiko bat osatu da, lehiaketari buruzko informazioa zabaldu da eta aurkeztutako lanak jaso dira.



- Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin lan egin da martxoaren 3ko 2/2010 Legea –sexu eta ugaltzeko osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzkoa– azaltzeko informazio-eskuorri bat egiteko. Eskuorri horren asmoa da legearen printzipio gidariak azaltzea eta adieraztea zer baliabide eta zerbitzu dauden Euskal Autonomia Erkidegoan lege hori betetzeko.
- Lan egin da Lanbiderekin eta Ekonomia Zuzendaritzarekin Egiturazko Fondeen jardun-esparruan (ikus 3.1.3 atala, Europako erakunde eta programei buruzkoa).
- Lankidetzaz-ildoak zabaldu dira IVAP erakundearekin langileak hautatzeko prozesuetan, epaimahai hauetan parte hartuz: Errenteriako Udalean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako teknikari baten lanpostua beteko duen pertsona hautatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako teknikarien lan-poltsa bat eratzeko Eusko Jaurlaritzan.
- Landa-inguruneke Emakumeen Batzordean parte hartu da eta haien plan estrategiko berriko ekintzak aurrera eramaten lagundu da, Batzordeak berak lehentasunezko lan-ildo gisa adostu dituen neurrian. Lankidetzaz horren harian, laguntza eman da emakume nekazarien estatutua prestatzeko eta Landa Eremuko Emakumeen Batzordearen araudia osatzeko.
- Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren baitako Adineko Pertsonen Batzorde Iraunkorrean parte hartu da.
- Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailari atxikitako Familia eta Komunitate Politikako Zuzendaritzaren baitako Boluntarioen Euskal Kontseiluarekin lan egin da, eta, berariaz, haren jarduera-ildo estrategikoak bultzatu dira, boluntarioen lana zabaltzeko Emakundek dituen informazio- eta komunikazio-bideetatik.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluan parte hartu da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren esparruan.

3.1.2. Foru-administrazioa eta toki-administrazioa

Erakunde arteko Batzordea arautzen duen dekretuak xedatutakoarekin bat, eta erkidego-, foru- eta toki-administrazioek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari loturiko politikak eta programak koordinatze aldera, 2010ean Erakunde arteko Talde Teknikoa abian jarri da. Talde horren xedea Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea da. Horretarako, bere esku uzten diren gaiak aztertu, horien inguruko txostenak egin eta proposamenak aurkeztuko ditu².

2 Ikus Emakunderi atxikitako batzordeak, 2. atalean.

Emakundek taldea sustatzen eta koordinatzen du, bai instituzio arteko bileren bidez, bai lan-taldean bilera espezifikoaren bidez.

Hauek dira Emakundek Sail arteko Talde Teknikoaren esparruan 2011. urtean egindako ekintza zehatzak:

- Bilerak antolatu, prestatu eta koordinatu ditu, baita horien jarraipena egin ere.
- «Toki-erakundeei emakumeen eta gizonen berdintasunerako alorra lantzeko ematen zaizkien diru-laguntzen irizpide teknikoak hobetzeko proposamena» dokumentua aztertu du eta ekarpenak egin dizkio. Herri-administrazioek berdintasunaren alorretan ematen dituzten laguntzak eta diru-laguntzak aztertzeko eratu zen berariazko talde teknikoak egin zuen dokumentu horren zirriborroa, haien eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko proposamen bat egiteko. Horren ondoren, Erakunde arteko Batzordeak dokumentu hori aztertu eta onartu zuen maiatzaren 2an egindako bileran.

Erakunde arteko Batzordeak lantalde tekniko berariazko hauek osatu ditu 2011n:

- Sektore publikoaren hitzarmen, diru-laguntza eta kontratuaren berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta bitartekoak.
- Generoaren araberrako eraginaren ebaluazioak egin eta betearazteko irizpideak.
- Hezkuntza berdintasunaren aldeko lan bateratua egiteko neurriak.

Bestalde, informazioa eta aholkularitza eman zaie EAEko udal eta aldundiei, eta, guztira, 191 kontsultari erantzun zaie.

Emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Genero Indarkeriaren Behatokia parte hartu du Emakundek.

Erakunde arteko Batzordean egindako lanaz gain, udalekin lan egiteko eta haiek laguntzeko beste jardun-ildo batzuk ditu Emakundek:

Berdintasarea - Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea

Sare hori Emakunderen bultzadarekin sortu zen eta 2005ean Eudelekin (Euskadiko Udalen Elkarte) sinatutako lankidetzaren hitzarmen baten bidez jarri zen martxan. Horren bidez, Emakundek hitza ematen du sarea dinamizatuko duen berdintasunerako eragile bat kontratatuzko finantzaketan parte hartuko duela eta Eudelek hitza ematen du hori sortu eta kudeatuko duela, orobat hori garatzeko beharrezko jarduerak gauzatzeko dituela.

2005eko otsailaren 24an sinatutako hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren egitura eta funtzio berrietara egokitzeko, 2010eko irailaren 1ean lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten Eudelek, Emakundek eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako

Zuzendaritzak, Berdinsarea (Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal udalerrien sarea) garatzeko.

Sare horrek organo hauen bidez lan egiten du:

- Jarraipen Batzordea: Eudel, Emakunde eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzako ordezkariak osatuta dago, eta hitzarmenaren jarraipena egiteaz arduratzen da, orobat lan-plan bat taxutzeko orduan sarearen jarduera gidatzen duten irizpideak finkatzeaz eta lehentasunak proposatzeaz, Jaurlari-tzaren eta gainerako erakundeen politiken artean koherentzia eta koordinazioa egokia izan dadin.
- Osoko bilkura: sarearen gobernu-organoa da eta sarea osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiak osatuta dago.
- Batzorde teknikoa: udalerrri bakoitzak izendatutako berdintasuneko teknikariek osatuta dago, orobat Sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen den teknikariaz, baita Emakundeko eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzako teknikari batez ere.

Hauek izan dira 2011n egindako ekintza zehatzak:

- Beste hitzarmen bat izenpetu da Eudelekin eta Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzarekin, Berdinsarea garatu eta finantzatzeko.
- Udaletan berdintasun-politikak sustatzeko ardura duten politikariek eta teknikariek lan egitea.
- Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartzea eta hartzen diren erabakien jarraipena egitea.
- Berdinsarearen bilera teknikoetan parte hartu da eta haren erabakien jarraipena egin da.
- Udalerriek Berdinsarean sartzeko egindako eskariak aztertzea eta ebaluatzea. Usurbil eta Gueñes Berdintasaren sartzeko onartu da. Sareko udalerrien kopurua 52ra iritsi da horrela.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ordenantza bat egiteko gida bat prestatu da, eta ordenantza-eredu bat egin da, hura osatzeko berriak osatu den lantalde batekin kontrastatu eta adostua.
- Berdintasun-planak lantzeko lantaldean parte hartu da.
- Azaroaren 25eko Kanpaina, «Emakumearen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunkoa», diseinatzeko lan-saioken kudeaketa, koordinazioa eta parte-hartzea landu dira.



MATRAKA TALDE FEMINISTA

Beldur Barik 2010eko finalista
Finalista de Beldur Barik 2010



OLAIA

Beldur Barik 2010eko finalista
Finalista de Beldur Barik 2010



PAUSOZ PAUSO TALDEA

Beldur Barik 2010ko finalista
Finalista de Beldur Barik 2010



BELDUR BARIK LEHIAKETA 2011

BELDUR BARIK JARRERA

- // EZ DUT UZTEN NIRE MUTILAK KONTROLA NAZAN. //
- // EZ DUZU ERASOGEKID BeldurRAK GELDIARAZTEA ONARTZEN. //
- // NESKA HARK BAKARRIK BIDAATZEN GOZATZEN DU. //
- // MUTIL HARK BADAKI "EZEZKIDA EZEZKO DELA". //
- // GU ELKARREKIN GOAZ MANI FEMINISTARA. //
- // ZUEK, NESKAK, ROCK-TALDEA SORTU DUZUE. //
- // ZUEK, MUTILAK, EZ ZARITE MUTIL, GOGORREN PROLEAN IBILTZEN. //
- // MUTIL HAEK EZ DITUZTE BROMA MATXISTAK TYALOTZEN. //
- // NESKA HAEK, ELKARTUTA, EZ DAGO GELDIARAZTERIK. //

Estas y otras muchas son **Actitudes Beldur Barik**, de chicas y chicos que creen en una sociedad más igualitaria. ¡Expresa en el formato que mejor vaya contigo tu Actitud Beldur Barik!

Más información y las bases para participar en el concurso etc:

www.beldurbarik.org



Dinamizazio eta aholkularitzako zerbitzuari laguntzea biztanleria urriko udalerrien berdintasun-politiken alorrean

Berdinsareak lan handia egin du berdintasunerako politikak sustatzeko, eta lan hori jende ugari bizi den udalerrietan egin du batik bat. Lan-jardun horrek ezarri dituen irizpide orokorrek zaildu egiten dituzte udalerrri txiki gehienek sarean sartzeko aukerak; hala nola, langileak kontratatzeko irizpideek, berdintasun-planak egiteko irizpideek eta berdintasunerako politikak egiteko gorde behar diren aurrekontu-hornidurek.

Ikusita udalerrri txikiek arazoak dituztela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean aurrera egiteko planak, programak eta ekintzak lantzeko, hiru foru-aldundiek lankidetzeta-hitzarmenak izenpetu zituzten 2009an eta 2010ean Eudelekin, udalerrri txikiei dinamizazioko eta aholkularitzako zerbitzuak eskaintzeko berdintasunerako politikak landu ditzaten. Hauek dira zerbitzu horien helburuetako batzuk:

- Aukera ematea udalerrri txikiei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak lantzeko, Berdinsarearen ildoarekin koherenteak izango diren estrategiak baliatuz. Horren bidez, epe ertainean Sarean sartzeko bidea zabaldu nahi zaie.
- Toki-eremuan generoen arteko gerturapena bultzatzea, bizipenen trukaketa sustatzea, tokian-tokian eta/edo mankomunitateetan, eskualdeetan nahiz koadriletan jarduera bateratuak egin eta koordinatzea.

Jarduera hauek egiten dira adierazitako helburuak betetzeko:

- Laguntza teknikoa ematen zaie udalerrri txikiei emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko programak eta ekintzak egin ditzaten.
- Topaketak eta bilerak antolatu eta koordinatzen dira mankomunitate, eskualde eta koadriletan, udalerrri txikietan interbentzio-estrategiak ezartzeko, bizipenak trukatzeko eta egindako lanaren jarraipena egiteko. Horren guztiaren xedea da parte hartzen duten udalerrien arteko sinergiak sortu edo indartzea.

Horren guztiaren harian, Emakunde prest agertu da, Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzaren eta Eudelen lankidetzarekin, udalerrri txikiei dinamizazioko eta aholkularitzako zerbitzua bultzatzeko. Lan-ildo hori bultzatzeko, hitzarmen bat izenpetu dute hiru erakundeek, udalerrri txikiek dinamizazioko eta aholkularitzako prozedura horren baitan egiten dituzten ekintzak finantzatzeko konpromisoa finkatuz.

Hauek izan dira Emakundek 2011n egindako ekintza zehatzak:

- Lankidetzeta-hitzarmen bat izapidetu eta izenpetu du Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzarekin eta Eudelekin, udalerrri txikiak dinamizatu eta haiei aholkularitza emateko zerbitzua bultzatu eta finantzatzeko.
- Hartu diren erabakien jarraipena egiteko bileretan parte hartu da.

Udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko deialdia, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta/edo planak egin eta molda ditzaten

Udalerrietan emakumeek eta gizonek bizi duten egoeraz diagnostikoak egin ditzaten eta Jaurlaritzak EA Erako onartu duen Esparru Planaren ildo nagusien arabera tokiko planak landu ditzaten tokiko erakundeei dirulaguntzak emateko deialdia beste tresna egoki bat da Emakunderentzat, bere eskumenen esparruan, udalerriei laguntza teknikoa emateko³. Legealdi honetan, 400.000 euro izan dira helburu horretarako, eta udalerrri txikienek eta berdintasun politikak garatzen ibilbide txikiena duten udalerriek diru-laguntza horiek eskuratu ahal izateko estrategiak garatu dira; horrez gainera, ildo horri jarraitzeko prozesu sistematiko bat abiarazi da.

Guztira, 2011n, 39 proiektu lagundu dira diruz. Horietatik 31 udalerrietakoak ziren eta 5 mankomunitatekoak. Zazpi udalek ekingo diote, lehen aldiz, berdintasunerako diagnostiko eta/edo plan bat egiteari. Gainerako proiektuen xedea berdintasunerako diagnostiko eta plan berriak egitea izan da, eta sektoreko diagnostikoak eta planak egitea indarkeriaren, kirolaren, enpleguaren eta beste eremu batzuen jardun-alorretan.

3 Gaur egun Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana.

DIRULAGUNTZAK JASO DITUZTEN UDALERRI, KOADRILA ETA MANKOMUNITATEEN ZERRENDA

GUZTIRA: 400.000,00 euro

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	ZENBATEKOA
Amorebieta-Etxanoko Udala	Amorebieta-Etxanoko emakume eta gizonen berdintasunerako Planaren egokitzapena	7.500,00 €
Areatzako Udala	Areatza eta Bediako hirigintzaren diagnostikoa genero-ikuspegitik: emakumeen eta gizonen partaidetza parekidearen alde gure hirietan	17.550,00 €
Balmasedako Udala	Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaizkien zerbitzuen diagnostikoa egitea eta koordinazio-protokoloa ezartzea Balmasedan	11.250,00 €
Basauriko Udala	Basauriko Udaleko berdintasunerako barne-plana	15.000,00 €
Bermeoko Udala	Nerabegaroko genero-indarkeriaren diagnostikoa eta hari aurre egiteko udalaren jarduera-plana Bermeon	13.500,00 €
Bilboko Udala	Emakume ijitoek Bilbon bizi duten egoerari buruzko diagnostikoa	15.000,00 €
Dimako Udala	Dimako emakumeen ibilbidearen eta bizitzaren diagnostikoa: emakumeen memoria historikoa bilduz	5.250,00 €
Erandioko Udala	I. Planaren ebaluazioa eta diagnostikoa	13.432,00 €
Ermuko Udala	Ermuan emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan diren pertsonen arreta emateko erakunde arteko protokoloa egitea	7.346,00 €
Gernika-Lumoko Udala	Gernika-Lumoko Herriaren Mapa emakumeen ikuspegitik	3.488,00 €
Gueñeseko Udala	Genero-indarkeriari buruzko diagnostikoa egitea Gueñeses	11.702,00€
Leioako Udala	Kirol-jarduna genero-ikuspegitik aztertzea Leioan eta hobekuntza-plana egitea	11.250,00 €
Leioako Udala	Leioan genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei arreta emateko toki-protokoloaren prozesua eta haren eragina ebaluatzea	7.965,00 €
Lekeitioko Udala	Berdintasunerako I. Planaren ebaluazioa eta diagnosis egitea eta II. Plana egitea	7.500,00 €

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	ZENBATEKOA
Ondarroako Udala	Ondarroako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Udal Planaren urteko ebaluazioa	2.250,00 €
Orozkoko Udala	Debekatutako hiria-hiri segurua gaiari buruzko azterlan parte-hartzailea Orozkon	6.195,00 €
Portugaleteko Udala	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza sustatzeko jarduera-plan sektoriala, Portugaleteko Udaleko teknikari eta politikariei zuzendua	7.500,00 €
Santurtziko Udala	Amaren rolak generoko indarkeriaren biktima diren emakumeen erabakietan duen eraginari buruzko diagnostikoa egitea eta programa pilotu bat prestatzea emakumeak babesteko Santurtzik duen sistemak arreta eman diezaien haien seme-alabei	13.275,00 €
Urduñako Udala	Urduñako emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako plana egokitzea	3.750,00 €
Zeanuriko Udala	Zeanuriko emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa eta I. plana	11.250,00 €
Arratiako Mankomunitatea	Genero indarkeriaren biktima diren emakumei ematen zaizkien zerbitzuen diagnostikoa egitea eta koordinazio-protokoloa ezartzea Arratiako Udalen Mankomunitatean	22.500,00 €
Txorierriko Mankomunitatea	Enpresen kontziliazioak eta erantzukidetasunak duen egoerari buruzko diagnostikoa Txorierriko eskualdean	9.000,00 €
Uribe Kosta Mankomunitatea	Diagnostiko-azterketa: gazteek nola hautematen duten genero-indarkeria Uribe Kosta Mankomunitatean	14.250,00 €
Aretxabaletako Udala	Aretxabaletako hirigintzaren diagnostikoa genero-ikuspegitik	7.788,00 €
Azpeitiko Udala	Genero indarkeriaren biktima diren emakumei arreta hobetzeko udal protokoloa diseinatzea	7.769,00 €
Bergarako Udala	Bergaran emakumeen aurkako indarkeriako kasuen atentzioan parte hartzen duten erakunde eta sailen arteko koordinazio-protokoloa egitea	8.983,00 €
Donostiako Udala	Zaintzen lanen inguruko ekintza planaren proposamena	15.000,00 €

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	ZENBATEKOA
Donostiako Udala	Kirolak eta emakumeak inguruko diagnostikoaren proposamena	15.000,00 €
Irungo Udala	Irungo Hiri Debekatuko mapa egitea	7.125,00 €
Irurako Udala	Iruran emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. diagnostikoa egiteko proiektua	8.983,00 €
Ordiziako Udala	Hiri debekatu-seguruari buruzko azterlan parte-hartzailea Ordizian	9.000,00 €
Ormaiztegiko Udala	Ormaiztegiko emakume eta gizonen arteko egoeraren diagnostikoa eta I. Berdintasun Plana	10.775,00 €
Soraluzeko Udala	Soraluzeko udalerrian mendeko egoeran dauden pertsonen arretarako uztartze-estrategiak aztertze diagnostikoa	6.107,00 €
Usurbilgo Udala	Emakumeen kontrako indarkeria jasaten duten emakumeei laguntza hobea emateko tokiko protokolo-prozesua	9.525,00 €
Billabonako Udala	Billabonako Emakume eta Gizonen arteko I. Berdintasun Plana	8.138,00 €
Zaldibiako Udala	Zaldibiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lehen Diagnostikoa egiteko proiektua	9.586,00 €
Saiatz Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatea	Saiatz Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatearen I. Berdintasun Plana	8.968,00 €
Urola Garaiko Mankomunitatea	Urola Garaian bizi diren emakume immigranteen gizarte-egoerara gerturatzea ahalduztearen ikuspegitik	20.025,00 €
Urola Garaiko Mankomunitatea	Urola garaian tratatu txarrak eta/edo sexu-indarkeria pairatu dituzten emakumeei arreta emateko protokoloa	9.525,00 €

3.1.3. Beste instituzio eta erakunde batzuekiko lankidetzak

Unibertsitateak

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) antolatutako Emakume eta Gizonen berdintasunaren gaineko Masterrean lankide izaten jarraitu da. Master horren helburua profesionalak gaitzea da, berdintasunerako eragile gisa lan egin dezaten, bai administrazioan bertan, bai erakunde eta entitate pribatuetan. Lankidetzak horren jardura batzuk izan dira diru-laguntza izendunak ematea, irakaskuntza-lanak egitea eta Emakunden praktikak egiteko aukera ematea. Zehazki, azken lankidetzak-ildo horren harian, pertsona batek praktikak egin ditu Berdintasunerako Defentsa Erakundeak eta beste batek Gizonduz programan.

Halaber, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan jarraitu da, gizarte-alorreko esku-hartzearen eremuan eman dituen bi masterretan: familian esku hartu eta bitartekaritza-lana egiteko masterra, bata, eta babesgabe eta/edo gizarte-gatazkak bizi dituzten adingabeetan esku hartu eta haiekin bitartekaritza-lana egiteko masterra, bestea. Lankidetzak horren helburua izan da profesionalen prestakuntza ematea familietan eta adingabeen artean ematen diren genero-desberdintasunez jabe daitezen, beren esku-hartzeek zer nolako genero-eragina izan dezaketen jakin dezaten, eta esku-hartze horiek berdintasun-ikuspegi batetik egin ditzaketela jakin dezaten. Bi master horietako bosgarren edizioan parte hartuko duten ikasleei bekak ematea izan da lankidetzaren jardun zehatza.

Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatearekin lan egin da, eta lankidetzak horren baita unibertsitate horretako emakumezko ikasle batek praktikak egin ditu Berdintasunerako Defentsa Erakundearen.



Europako erakundeak eta programak

Europako Eskualde Garapenerako Funts Europarrak eta Europako Gizarte Funtsak jardura-eremu gisa hartuta, Emakundeak jarraitu egin du bi funts horien Jarraipen Batzordeetan lan egiten, urteko txostenei ekarpenak eginez eta batzordeen urteko bileretara joanez: Europako Gizarte Funtsaren Programaren Euskal Autonomia Erkidegoko atalaren 2007-2013 eperako Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordearen bileretara eta Eskualde Garapenerako Funts Europarraren Euskal Autonomia Erkidegoko atalaren 2007-2013 eperako Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordearen bileretara.

Bi funts horiek finantzatzen laguntzen dituzten programak egiten dituzten erakundeek berdintasunaren alorrean dituzten estrategiak indartzeko, bai egungo 2007-



2013 programazio-aldian, bai hurrengo 2014-2020 programazio-aldian, lankidetza-ildo bat abiarazi da Lanbiderekin (Europako Gizarte Funtsaren bitarteko erakundea) eta Ekonomia Zuzendaritzarekin (Eskualde Garapeneko Funts Europarraren bitarteko erakundea), lan-estrategia bateratu bat diseinatzeko. Lan horren ondorioz, jardunaldi bat prestatu zen, krisi ekonomikoak emakumeengan eta gizonengan duen eragina eztabaidatzeko; horrez gainera, bi lan-saio paralelo egin ziren, bat funts bakoitzerako. Saio horietan, aurretiaz bidalitako galdetegi bati erantzunez erakunde laguntzaileek eta organismo kudeatzaileek berdintasunaren alorrean adierazi zituzten emaitzak eta egin zituzten proposamenak berrikusi ziren. Lan horri aintzat hartuta, hurrengo urteetan egingo diren jarduerak diseinatuko dira.

Berdintasunerako
Politiken Sarearen
bilera.

Horrez gainera, Emakundek, Egiturazko Fondoaren eta Kohesio Fondoaren bidez egindako emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako Politiken Sarearen kide den aldetik –Emakumearen Institutuak eta bi funtsen kudeatzaile diren agintariek sustatutako sarea da–, Egiturazko Funtsetako Berdintasunerako Politiken Sarearen III. bilera antolatzen lagundu zuen. Bilera hori 2011ko otsailaren 17an eta 18an egin zen, Bilboko Euskalduna jauregian. Halaber, Sare horretan egin diren lantaldeetan parte hartzen jarraitu du Emakundek, eta EAEko programa operatiboetan landu diren jardunbide onak bildu ditu.

Estatuko berdintasun-erakundeak

Hezkuntzaren eremuan, Emakumearen Institutuak eta Hezkuntza Ministerioak sustatutako INTERCAMBIA sarean parte hartzen jarraitu du Emakundek. Erakundeetan berdintasun-politikak sustatzen dituzten pertsonak eta autonomia-erkidego guztietako hezkuntza-sailtako ordezkariak osatzen dute sare hori, eta Emakunde sareak egindako urteko bileran izan zen.

Emakumearen Institutuak informazioaren gizartearen gaia lantzeko osatu duen lantaldean parte hartu du Emakundek, eta ekarpenak eta oharpenak egin ditu Madrilaren irailaren 20an egin zen lan-jardunaldian aurkeztu ziren azterlan eta materialei.

Osasunaren eremuan, osasun-politiketan berdintasun-printzipioa barneratzeko lana bultzatu eta indartzeko proiektuan parte hartzeari ekin dio Emakundek. Emakumearen Institutuak bultzatu du proiektu hori, eta autonomia-erkidegoetako berdintasunerako erakundeekin lankidetzan jardun du Emakundek. Proiektuaren aurkezpenean parte hartu zuen Emakundek, eta, gaur egun, prestakuntza-taldean eta bitartekoen eta koordinaziorako taldean parte hartzen du. Proiektuaren emaitzetako bat plataforma birtual bat sortzea izan da. Bertan jarri dira proiektuan parte hartzen duten autonomia-erkidegoek prestatu dituzten materialak eta dokumentuak; horrez gain, plataforma horrek liburutegi digital bat du, foro orokor bat, Ágora izenekoa, eta taldeen lana errazteko tresna egoki bat.

Osasun-eremuan, halaber, Emakumearen Institutuarekin eta Osasun Eskola Nazionalarekin lan egin da, Osasun eta Generoko Diplomari dagozkion eskolak irakatsiz.

Beste erakunde batzuk

Saharako Emakumeen Batasun Nazionalari Laguntzeko Euskal Sarean parte hartzen jarraitu du Emakundek. Elkarteek sortutako mugimendua da Euskal Sarea, eta Saharako emakumeek Batasun Nazionalan egiten duten lana eta abiatzen dituzten ekimenak babesten ditu.

Halaber, KCB gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako Zine Ikusezinenaren Festibalean laguntzen jarraitu du, epaimahaikide izan baita kulturartekotasunaren kategorian eta emakume batek egindako lan onenaren kategorian; horrez gain, emakume batek egindako lan onenaren saria eman du Emakundek.

Bestalde, Zure Eskubideak Kanean informazio-kanpaina babestu du Emakundek, Institutuko aholkularitza-etxe homologatu batek, Abella Legal etxeak, egindako kanpaina izan den aldetik. Kanpainaren hiru helburu nagusiak dira herritarrei jakinaraztea zer oinarritzko eskubide dituzten gai-alor horretan, emakumeek lana eta familia-bizitza batera dezaten bultzatzea eta emakumeak, eta bereziki indarkeria-motaren bat pairatu dutenak, ahaldundu daitezzen sustatzea. Hainbat udalerritan egin da kanpaina, hala nola, Plentzia, Burlata eta Mungian, eta azken urte honetan, Emakunderen

laguntzarekin egin da Getxon, Elorrion, Portugaleten eta Plentzian. Udalerrietako leku nagusietan informazio-saioak deitu ondoren, ekintza hauek egiten dira, pertsonen lan-bizitza, familia-ardurak eta eremu pertsonaleko jarduerak bateratzeko aukera handienak emango dituzten orduetan: gizarte-eskubideen eta -baliabideen berri ematen da, gai-alor horretan jarduten duten erakunde publikoen helbideak eta harremanetarako datuak ematen dira, saio horietan argitzen dira eskubideen berri ez izateak dakartzan arazoak, eta informazioa eta aholkularitza ematen da, genero-ikuspegitik beti. Ekintza horiek egiteko, kanpainako karpa eta ikus-entzunezko ekipo bat instalatzen dira, eta gaiari buruzko bideoak proiektatzeaz gain, mahai bat jartzen da, kontsulta- eta laguntza-zerbitzuei buruzko eskuorriak eta agiriak jendearen eskura jartzeko. Lana eta familia bizitza uztartzeko aukerak, amatasuna eta alarguntasuna izaten dira kanpainan zehar gehien argitzen diren gizarte-eskubideak.

Halaber, ezintasunak dituzten pertsonen eta genero-ikuspegiaren alorrak lantzen dituzten jardunaldi eta lantaldeetan parte hartu du Emakundek. Horren adibide izan da Fekoor Federazioaren Emakumearen Batzordeak antolatutako jardunaldietan eta Zuzenak Fundazioak antolatutakoetan izan duen parte-hartzea. Halaber, Elkarleen konfederazioak (Ezintasun fisikoa duten EAEko pertsonen koordinaziorako konfederazioak) ezintasunak dituzten pertsonen Nazioarteko Konbentzioaren inguruan antolatu dituen hausnarketa-tailerren baitan emakumeari eta ezintasunei buruz antolatu zuen mahai-inguruan parte hartu du Emakundek. Kasu batzuetan, parte-hartzaile izan da Emakunde, eta, beste batzuetan, hitzaldiren bat eman du edo lantaldiren bateko kide izan da. Lankidetzan lan horren ondorioz, «Ezintasuna duten Europar Batasuneko Emakume eta Nesken Eskubideei buruzko 2. Manifestua: tresna bat aktibista eta eragile politikoentzat» adierazpena euskarara itzuli eta maketatu du Emakundek. Ezintasunari buruzko Europako Foroaren Batzar Orokorak erabaki zuen Manifestu hori kaleratzea 2011ko maiatzaren 28an eta 29an, Emakumeen Komiteak agiri hori proposatu ondoren eta Emakumeen Europako Lobbyaren babesa jasota. Nazio Batuen Erakundeak ezintasunak dituzten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren egindako berrikuspenaren ondoren kaleratu da 2. manifestu hori. Halaber, Fekoor federazioko Emakumearen Berdintasunerako Batzordeak berrikusi egin ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana garatzeko proposatu diren ekintzak, eta agiri hau igori diote Emakunderi: «EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren ekintza-gidari egiten zaion proposamena, ezintasunaren edo aniztasun funtzionalaren ikuspegia aintzat har dadin (diskriminazio anitzaren elementu gisa)». Eusko Jaurlaritzako sailen berdintasunerako unitate guztiei bidali die Emakundek proposamen hori, aintzat har dezaten beren urteko programazioetan, aniztasun funtzionala duten emakumeen inklusioa bultzatzeko jarduerak diseina ditzaten.

Arartekoa

Arartekoaren aparteko txostenean genero-ikuspegia barneratzeko lanetan eta horretarako osatu den lantalde batean parte hartu du Emakundek, bai eta IKTen bidez inklusioa eta herritarren partaidetzari buruz egiten ari den txostenean ere.

3.1.4. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeko harrera-baliabideen gaineko Erakunde arteko Talde Teknikoa eta lantaldea

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmena izenpetu zen 2009ko otsailaren 3an, eta hitzarmen horrek aurreikusi zuen haren jarraipena egiteko batzorde bat eratuko zela; halaber, Erakunde arteko Talde Tekniko bat eratuko zela xedatu zuen, laguntza teknikoa emateko Jarraipen Batzordeko kideei, beren eginkizunak behar bezala bete ditzaten. Erakunde arteko II. Hitzarmenak agintzen du Erakunde arteko Talde Teknikoko kide izango direla Hitzarmena izenpetu duten erakundeetako ordezkariak, berariaz horretarako izendatuak izango direnak, eta talde horretan Emakunde ordezkatzan duen pertsona izango dela taldeko koordinatzailea. Erakunde arteko II. Hitzarmenak adierazten du, halaber, Emakunde emango duela Erakunde arteko Talde Teknikoak lan egiteko behar duen laguntza tekniko eta administratiboa.

Horrenbestez, Jarraipen Batzordeak 2010eko azaroaren 18an egin zuen bilkuran, hitzarmeneko erakundeek teknikari batzuk izendatu zituzten (kideak eta ordezkokoak) Erakunde arteko Talde Teknikoko kide izan zitezten. Talde hori 2011ko otsailaren 25ean eratu zen, eta hauek izan ziren izendatutako kideek ordezkaturako erakundeak: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, EAEko Fiskaltza Nagusia; Arartekoa; Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea; Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Justizia eta Herri Administrazio Saila, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, eta Osasun eta Kontsumo Saila; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiak; Euskadiko Udalen Elkarte / EUDEL; Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

Erakunde arteko Talde Teknikoa 2011ko otsailaren 25ean eratu zen, eta 5 bilera gehiago egin zituen, apirilaren 13an, irailaren 16an, urriaren 7an, urriaren 28an eta azaroaren 30ean. Apirilaren 13an egindako bileran, 2011. urtean lantzeko lan-proposamen bat egin zuen Erakunde arteko Talde Teknikoak, eta Jarraipen Batzordeak hura aztertu eta onartu egin zuen 2011ko maiatzaren 2an egin zuen bileran. Bi ekimen jasotzen ziren proposamen horretan. Lehen ekimena zen diagnostiko bat egitea jakiteko zer mailatan bete diren Erakunde arteko II. Hitzarmenean hartu ziren konpromisoak eta jakiteko zer neurritan egokitzen zaien erakundeen esku-hartzeak izenpetutako jarduera-protokoloari. Horren helburua zen erakundeen artean egindako esku-hartzeetan, lankidetzaren lanetan eta koordinazio-jardueretan hobekuntzarako alderdiak hautematea, Erakunde arteko Talde Teknikoak lanerako proposamen teknikoak egiteko aukera izan dezan IX. legegintzaldian. Eta, bigarren ekimena zen etxean tratu txarrak pairatu dituzten emakume biktimentzako harrera-baliabideei buruzko lantalde bat abian jartzea, gizarte-zerbitzuen eremuko inter-

bentzioaren beharrianak aztertzeke, eta hobekuntzarako proposamen teknikoak planteatzeko Jarraipen Batzordeari.

Ekimen horiek proposatu ondoren, 4 bilera egin zituen Erakunde arteko Talde Teknikoak 2011. urtean diagnostikoa eta hobekuntza-proposamenak egiteko, betiere, aintzat hartuta Erakunde arteko II. Hitzarmeneko jarduera-protokoloan adierazitako interbentzio-eremuak: hezkuntza eta poliziaren eremuak (irailak 16); osasun-eremua (urriak 7); eremu judiziala (urriak 7 eta 28) eta gizarte-eremua (urriak 28 eta azaroak 30). Diagnostikoa eta hobekuntza-proposamenak 2012aren hasieran igorriko zaizkio Jarraipen Batzordeari.

Emakundek proposatu zuen diagnostikoa eta hobekuntzak egiteko lan-metodologia, eta Talde Teknikoan parte hartzen duten teknikariek adostu zen. Metodologia horrek bere baitan hartzen zituen hausnarketak eta proposamenak egiteko egokiak izan daitezkeen agiriak eta informazio-iturriak, eta, horien artean, Talde Teknikoak proposatu zituen guztiez gain, aipatzekoak dira emakumeen aurkako indarkeriaren gai-alorrean EAEn dauden baliabide eta programen norainokoari eta efikaziari buruz Emakundek aldiro egiten dituen ebaluazioak. Ildo horretatik, nabarmentzekoa da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 51.1. artikulua agintzen duena betetzeko egiten direla ebaluazio horiek.

Bestalde, 2011ko ekainaren 3an eratu zen etxean tratu txarrak pairatutako emakumeentzako harrera-baliabideei buruzko lantaldea, eta erakunde hauek dira haren partaide: Emakunde; Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritza; Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiak; Euskadiko Udalen Elkarte / EUDEL; eta Abanto-Zierbena, Barakaldo, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Udalak.

Taldea, esan bezala, 2011ko ekainaren 3an egindako bilkuran eratu zen, eta, bilera horrez gain, beste hiru egin zituen, irailaren 9an, urriaren 21ean eta abenduaren 16an. Eratze-bilkuran ezarri zituen taldeak 2011 eta 2012 urteetarako lan-helburuak: erakundeen arteko lankidetzarako prozedura formal bat ezartzea beste administrazio baten harrera-baliabideak erabiltzeko; arazo gehigarriak (buru-osasuneko arazoak eta/edo drogramendekotasuna, batik bat) dituzten emakume biktimei harrera egiteko erantzun bat ematea eta harrera-baliabideetan neurriak hartzea erroldako datuen eta gainerako datuen anonimotasuna bermatzeko.

Talde horrek, 2011. urtean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako harrera-baliabideen *mapa* bat egin zuen, alderdi hauek agerrarazteko: baliabideen zenbatekoa eta ezaugarriak, plaza-kopurua eta horien okupazioa, egiten diren programak eta horietan jarduten diren teknikariak, arazo gehigarriak dituzten emakume biktimen eta emakume immigranteen egoera eta haiekin esku hartzeko beharrianak, eta zenbat emakume biktima bideratzen diren beste Erakunderen bateko harrera-baliabideetara. Adierazitako *mapa* hori egiteko, erakundeek beraiek zuzenean emandako informazioa baliatu zen, bai eta, besteak beste, txosten honek jasotzen

dituen informazioa, hausnarketak eta proposamenak ere «Erakundeen erantzuna EAE etxeko tratu txarren biktima izan diren emakumeen harrera-beharrizanen aurrean» (Emakunde, 2009). Lehenik eta behin, sakontasunez ezagutu nahi ziren harrera-baliabideak, eta, jakintza horretan oinarrituta, aurreikusitako azterketak eta proposamenak egitea, 2011. urtean aurrerapausoak emateko erakundeen arteko lankidetzarako prozedura formal bat ezar dadin, beste Administrazioen baten harrera-baliabideak erabiltzeko.

3.2. Generoaren eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioa

4/2005 Legearen zortzigarren Xedapen Gehigarria betetz, Gobernu Kontseiluak generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartu zituen 2007an, bai eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzea ere. Jarraibide horien arabera, departamentuak behartuta daude, administrazio-ekintzen proiektuekin eta arauekin batera, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak egitera eta Emakundera bidaltzera, berorrek aginduzko txostena egin dezan.

Alde batetik, 4/2005 Legeko 19. eta 20. artikuluetan eta jarraibideetan xedatzen dena zuzen aplikatu den egiaztatu behar du Emakunderen txosten horretan; eta, bestetik, hobetzeko proposamenak egin behar ditu. Horrela, 2007an hasitako lanarekin jarraituz, 2011. urtean ia 87 proiektu arau-emaile egin dira, honako taula honetan adierazten denaren ildotik.

2007-2011 BITARTEKO DATUAK

	LEGEAK	DEKRETUAK	AGINDUAK	EBAZPENAK	GUZTIRA
2007	6	25	12	1	44
2008	19	46	51	2	118
2009	3	49	35	4	91
2010	9	36	29	1	75
2011	18	54	14	1	87
Total	55	210	141	9	415

Horrez gain, Jaurlaritzako sailei generoaren eraginaren araberako txostenak egiten laguntzeko, hauek pixkana-pixkana Emakunderen berriazko intranet zerbitzuan ezartzen dira, langileek kontsultak egin ditzaten. 2011. urtearen amaieran, VIII. eta IX. legegintzaldian onartu eta EHAAr argitaratu diren arauei dagozkien genero-inpaktuko 300 txosten baino gehiago jarri dira intranetean. Horrez gainera, Emakunde langile batzuk irakasle-lanak egin dituzte gai-alor horri buruzko berriazko ikastaroaren hirugarren edizioan. IVAPekin elkarlanean prestatu zen ikastaro hori, Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomiaduneko langileentzat 2008-2018 eperako prestatutako Berdintasunerako Prestakuntza Planaren baitan.

Bestalde, genero-eragineko txostenak erregistratzeko aplikazio informatiko bat egin da. Aplikazio horren bidez, halaber, araudiak emakumeen eta gizonen berdintasunerako jaso dituen neurriak ebaluatzen dira, generoaren araberako eraginaren ebaluazio-prozesuaren baitan.

Azkenik, adierazi behar da proposamen bat egin dela generoaren araberako eraginekoko aurretiazko ebaluazioaren irizpideak aldatzeko, desberdintasunak ezabatzen joateko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko. Proposamen hori egin da Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko otsailaren 9an hartu zuen erabakiaren ildotik, hausnarketa-prozesu bat abiarazi baitzuen izaera orokorreko xedapenak egiteko prozesuan gardentasun handiagoa bilatzeko, partaidetza bultzatzeko eta prozedurak arintzeko. Proposamena egiteko, halaber, kontuan hartu da lehendik zeuden irizpideak betetzean eskuratu den eskarmentua.

Ildo horretatik, laguntza-material batzuk prestatzeari ekin zaio, generoaren araberrako eraginaren txostenak proposatu diren irizpide berrien arabera egin daitezen lagundu eta errazteko. Eusko Jaurlaritzaren berdintasuneko unitateekin lankidetzan ari dira prestatzen material horiek, Berrikuntza Publikoko Planaren baitan eraturako praktika-komunitate baten esparruan.

3.3. Berdintasun-planak: txostenak, aholkularitza

Bai Emakunde sortzeko Legeak eta bai Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak diote Emakundek, legegintzaldi bakoitzaren hasieran, plan orokor bat egin behar duela, eta plan horrek EAEko berdintasun-politiketarako ildo orokorrak jaso behar dituela. Lege horrek berak agintzen duenari jarraituz, Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako sail eta erakunde guztiek beren planak landu behar dituzte, adierazitako plan nagusi horretan xedatzen diren jarraibideen arabera.

Gainera, 4/2005 Legeak, 15.4 artikuluan, dio Eusko Jaurlaritzako sailen berdintasun-planek eta foru- eta toki-administrazioetako txostenak egin behar duela Emakundek, horietako edukiak Gobernuaren esku-hartze ildo eta jarraibideetara egokitzen diren ikusteko.

Txosten horiek emateko, Emakundek zenbait irizpide hartzen ditu kontuan, Legearen edukiak eta Gobernuak onartutako plan nagusiaren helburu eta estrategiak oinarritzat hartuta, planak horiekiko ahalik eta adostasun-maila handienaz diseina daitezten: erakunde bakoitzaren beharrei buruzko diagnostiko batean oinarrituta egon behar dute; teknikoki eta ekonomiaren eta denboraren ikuspegitik bideragarriak izan behar dute planek; eta diagnostikoan definitutako gizarte-errealitatearen aldaketara egokitutako, estrategia, helburu eta ekintzak definitu behar dituzte.

Aintzat hartuta zer arautzen duen 4/2005 Legeko 15.4. artikulua, Emakundek, Jaurlaritzako sailek 2011. urtean izan duten jarduna aztertzean, txostenak egin ditu Jaurlaritzako sailek 2010eko azaroaren 19an Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailen arteko Batzordean entregatu zituzten legegintzaldiko programadokumentuei buruz.

Foru eta tokiko administrazioei dagokienez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 7 planei buruzko txostenak eman ditu Emakundek.

LEHENENGO PLANAK	BIGARREN PLANAK	HIRUGARREN PLANAK
Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Azkoitiko I. Plana	Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Laudioko II. Plana	Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Eibarko III. Plana
	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Uribe Kosta Zerbitzu Mankomunitateko II. Plana	Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Getxoko III. Plana
		Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Elorrioko III. Plana
		Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Portugaleteko III. Plana

3.4. **Sektore-planei buruzko txostenak**

Politika orokorretan genero-ikuspegia barneratzen laguntzeko, Eusko Jurlaritzako hainbat sailek bultzatutako sektore-planei buruzko aholkuak eman eta txostenak egin dira 2011. urtean:

- Immigrazioko 2011-2013 Plana.
- Irakurketa sustatzeko Plana.
- III Gazte Plana 2020.
- Enpleguko 2011-2014 Euskal Estrategiaren Proiektua.
- Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomiadunetako lan-arriskuak prebenitzeko planaren proiektua.
- Herri Ijitoaren II. Euskal Plana.
- Ariketa Fisikoko Euskal Plana: Osasun Publikoko Zuzendaritzak eta Kirol Zuzendaritzak sustatutako ekintza-esparrua.

3.5. Prestakuntza

4/2005 Legeak ezarritako eskaera zehatzak alde batera utzita, Emakunde sortu zenetik, profesionalen prestakuntza oinarritzeko estrategia izan da generoarekiko politika sentiberak garatzeko. Europako instituzioek prestakuntzaren garrantzia onartzen eta gogorarazten dute, eta «Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Planean» ere estrategia egokia dela planteatu da, aurreko planetan bezalaxe. Alde horretatik, prestakuntza lehentasunezko estrategia da gaur egun Emakunderentzat.

Prestakuntzarekin lotutako jarduerak hainbat jarduketa-ildoren inguruan egituratzen dira Emakunden:

3.5.1. Aholkularitza espezializatua

Beste instituzio batzuei prestakuntza-jarduerak antolatzeko orduan aholkatzen eta laguntzen die, honako gai hauei buruz: edukiaren diseinua, irakasleak eta materialak bilatzea eta hainbat erakunderen arteko koordinazioa. Zeregin hau gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da azken urteetan.

2011. urtean, funtzio hori garatzeko HAEErekin batera egindako lana nabarmentzen da, hain zuzen ere, Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako langileei zuzendutako Berdintasunean Hezteko 2008-2018 aldirako Plana garatzeko egindakoa; Emakunderen zuzendaritzapean, IVAPekin eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzarekin batera diseinatu da. Alde horretatik, aholkularitza eskaini da eta HAEErekin eta Gobernuko gainerako sailekin batera lan egin da 2011rako pentsatutako prestakuntza-ekintzak diseinatzekoan eta gauzatzerakoan. Zehazki, ondorengo prestakuntza-ekintza hauen garapenean hartu dugu parte:

- «Genero eta hizkuntzaren erabilera egokia», Administrazio Orokorreko langile guztiei zuzendua. 2011ko ekainaren 22tik 30era egin zen euskaraz eta azaroaren 14tik 22ra gaztelaniaz, eta 16 orduko iraupena izan zuen.
- «Sailerako berdintasun-planen kudeaketa», sailletako talde teknikoetan parte hartu behar zuten sailletako pertsonen zuzendua. 2011ko apirilaren 6tik 14ra egin zen eta 20 orduko iraupena izan zuen.
- «Errealitatearen diagnostikoa eta azterketa genero-ikuspegitik», diagnostikoak eta azterketak egiten dituzten langile teknikoek zuzendutakoa. 2011ko otsailaren 8tik 11ra egin zen, eta 20 orduko iraupena izan zuen.
- «Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa», Jaurlaritzako sailletan genero-eraginekiko ebaluazioak egiten dituzten langileei eta berdintasunerako administrazio-unitateetako langileei zuzendua. 2011ko martxoaren 22tik 30era egin zen, eta 20 orduko iraupena izan zuen.

HAE Erekin batera lan egiteaz gain, generoari eta berdintasunari buruzko prestakuntza-ekintzen diseinuan aholkularitza teknikoa ere eskaini da, Eusko Jaurlaritzako sailek eta Foru eta Toki Administrazioak hala eskatuta.

Bestalde, ikastetxeek eta hezkuntzaren esparruko beste eragile batzuek, enpresek, elkarte profesionalak eta bestelako erakundeek emakumeen eta gizonen berdintasunerako prestakuntzarekin lotutako diseinuari, antolamenduari eta esparru horretan adituak diren pertsonak eta materialak bilatzeari dagokienez iritsitako aholkularitza-eskeei ere erantzun zaie.

3.5.2. Barne-prestakuntza

Prestakuntza hori elkarteari berari zuzentzen zaio, eta Emakundeko langileek prestakuntza-ekintzetan parte har dezaten bilatzen du, helburu bikoitzarekin:

- zenbait gaitan sakontzea eta irizpideak batzea, gai berriak izanik, artean nahikoa landu ez direlako.
- berdintasun-politikak sustatzeko garaian erreferentzia egokiak izan daitezkeen esperientziak ezagutzea.

2011. urtean, Emakundeko langileek interesgarriak gertatu diren prestakuntza-ekimenetan parte hartu dute, bai HAE E urte honetarako egindako prestakuntza-planaren barnean, bai Emakundek berak antolatutako jardueretan, hala nola Nahiko programan, Berdintasunerako Foroaren 2011ko edizioan eta Emakundek EHUrekin lankidetzan antolatzen duen udako ikastaroan.

Hori horrela, IVAPen prestakuntza-planaren esparruan, prestakuntza hau jaso dute Emakundeko langileek: kontratu publikoak betetzeko eta amaitzeko moduak, datuen babesari buruzko ikastaro aurreratua, fundazioen eta elkarten araubideari buruzko ikastaroa; negoziozko teknikak; pertsonak zuzentzea; gutuna eta ofizioa on-line.

Bestalde, EAEko, Estatuko edo beste autonomia-erkidego batzuetako beste instituzio batzuek antolatutako ondoko prestakuntza-jardueretan hartu dute parte Emakundeko langileek:

- «Osasun-langileen egitekoa genero-indarkeriaren aurrean: erronkak eta aukerak» jardunaldia, Osakidetza eta Osasun eta Kontsumo Sailak antolatua. Vitoria-Gasteizen egin zen, martxoaren 2an.
- Osasun Sistema Nazionalak genero-indarkeriaren aurka duen estrategiari buruzko jardunaldi teknikoa, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunerako Ministerioak antolatua martxoaren 15ean.
- «Genero berdintasuna eta enpresen kudeaketa. Berrikuntza prozesuetan» mintegia INAI. Martxoak 23, Iruñea.
- Garapenerako Estrategia Positiboen VII. jardunaldiak, apirilak 13-15. Bilbao. Bilboko Udala eta Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentzia.

- Mahai-ingurua: osasun- eta ugalketa-osasuna. Osasun Saila. Apirilak 14. Lakua. Vitoria-Gasteiz.
- Diferentzia ikusezinak Workshopa: Generoa, drogak eta politika publikoak. Genero-ikuspegia drogei buruzko politika europarretan. Soziologia Juridikoari buruzko Oñatiko Nazioarteko Institutua. Maiatzak 12-13. Oñati.
- «Emakumeen salerosketa sexu-esplotaziorako» jardunaldia. Maiatzak 16. Vitoria-Gasteiz. DAVVG.
- FEDER Funtsen 4. Deialdiko 2007-2013 Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordearen bilkura Eusko Jaurlaritzan. Maiatzak 16. Bilbao
- Lantegia: Emakumeen mutilazio genitala. Arabako Foru Aldundia. Ekainak 15-16 (16 ordu).
- «Osasun-politikan berdintasun-printzipioa barnera dadin bultzatzea eta indartzea, berdintasunerako erakundeekin lankidetzan» proiektuaren jardunaldi teknikoa. Emakumearen Institutua. Ekainak 28. Madril.
- Komunikazioari, publizitateari eta berdintasunari buruzko topaketa, Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatearen udako ikastaroen baitan. Ekainak 30 eta uztailak 1. Santander.
- Saharako emakumeen batasun nazionalari laguntzeko euskal sarearen bilkura. Irailak 19. Bilbao.
- «Ezintasunak dituzten emakumeak: lidergo eraldatzaile baten bidetik» jardunaldia, Fekoor konfederazioak antolatua. Irailak 21. Bilbao.
- Osasunari eta generoari buruzko XVI. topaketa. Irailak 21-23 egunetan, Menorcano Osasun Publikoko XII. eskolaren baitan.
- Kulturartekotasunari eta genero-indarkeriari buruzko ikastaroa DAVVG eta Immigrazio eta Dibertsitatearen Kudeaketarako Zuzendaritzak antolatua. 2011ko urriak 3 eta 5.
- «Berdintasuna eta diskriminaziorik eza lan-harremanetan» jardunaldia. UPV/EHU. Azaroak 3. Leioa.
- «Immigranteen integrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan: balantzea, ikuspegiak eta etorkizuneko agenda» jardunaldia. Azaroak 29. Bilbao. Immigrazioaren behatokia.
- Enplegu eta ekonomiaren pizkunderako politikek emakumeengan duten eragina neurtzeko gida aurkezteko mintegia, Europar Batasuneko PROGRESS programak finantzatzen lagundu duen proiektu honen baitan: «Enplegu eta ekonomiaren pizkunderako genero-ikuspegidun politikak indartzen». Berdintasunerako Estatu Idazkaritza. Abenduak 15. Madril.

Langileek beste prestakuntza-jarduera batzuetan ere hartzen dute parte, hala nola euskarazko eta ingelesezko ikastaroetan, laneko arriskuei aurrea hartzeko ikastaroetan, eta informatika eta teknologia berrien ikastaroetan.

3.5.3. Kanpo-prestakuntza

Barruko prestakuntza-jardueren antolamendura nahiz beste instituzio eta erakunde batzuek antolatutako jardueretan hizlari gisa parte hartzera bideratuta dago.

Ondoko hauek antolatu dira:

- **Irakasleei zuzendutako mintegiak, *Nahiko*⁴ programaren baitan.**
- **Berdintasunerako VIII Foroa prestatzeko mintegia**, «Emakumeen partaidetza erabaki eta eragin alorretan» izenburupean. Mintegi hori 2011ko martxoaren 10ean egin zen Emakunderen egoitzan, eta Berdintasunerako Foroan parte hartu nahi zuten erakundeei zuzendu zitzaien. Helburu bikoitza izan zuen: alde batetik, emakumeek erabaki eta eragineko alorretan duten presentziari buruzko informazioa ematea eta horri buruzko sentsibilizazio-lana egitea, alor horretan urratsak emateko gizarateak dituen zailtasunak, mekanismoak eta oztopoak agerriaraztea, eta emakumeak gure gizarteko erabaki eta eragineko alorretan duten presentzia eta parte-hartzea hobetzeko izan daitezkeen aukerak eta estrategiak plazaratzea; eta, bestetik, erakundeei bultzada bat ematea eta jardun-ildoak ematea 2011 Foroan jarduerak egin ditzaten, «EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana – IX. legegintzaldirako jarraibideak» planaren I. ardatzean. Mintegi horretan, teoria politiko feministan aditua den María de la Fuente Vázquez espezialistak bi hitzaldi hauek eman zituen: «*Boto-eskubidetik emakumeen partaidetza politiko osorako bidea*» eta «*Egungo emakumeak erabaki eta eragineko alorretan*».
- **Udako ikastaroa. «Krisi ekonomikoa: analisia eta aukerak genero-ikuspegitik»**, Donostian egindakoa ekainaren 29an eta 30ean, EHU unibertsitatearen udako ikastaroen baitan. Krisiak gizonengan eta emakumeengan izaten ari den eragina ebaluatzen eta krisitik irteteko neurrien genero-eragina aztertzen saiatu ziren ikastaro horretan. Zehazki, ikastaroaren helburuak izan ziren, alde batetik, krisiaren sorrerako arrazoiak eta hari dagozkion erantzukizunak aztertzea, eta, bestetik, krisiak emakumeen eta gizonen bizitzetan eta lanetan dituen ondorioak aztertzea, bai tokian-tokian, bai, oro har, munduak. Beste helburu batzuk izan ziren krisiak dakartzan aukerei buruzko gogoeta egitea, krisiaren eraginak minimizatu eta harekin amaitzeko proposatu eta abiarazi diren neurrien multzoa aztertzea, eta, azkenik, genero-ikuspegitik aztertzea izan daitezkeen alternatibak. Ikasgai hauek eman ziren: Lina Gálvez Muñoz andreak «Desberdinak: emakumeak eta gizonak krisiaren aurrean»; Teresa Pérez del Río andreak «Lanmerkatuaren eta pentsio-sistemaren erreformek emakumeengan duten eragina»; Mertxe Larrañaga Sarriegui andreak «Krisi-garaiak: genero-ekonomiaren ordua

4 Ikus NAHIKO programa 3.9.1 atalean.

al da?»; Amaia Pérez Orozco andreak «Bizi onerako feminismoa herritarren krisiaren aurrean»; eta Carmen Castro García andreak «Berdintasuna aurrekontu eta politika publikoetan eredu ekonomikoa aldatzeko».

- «**Emakume ijitoen elkarte mugimenduetan parte hartzeko erronkak. Sareko lana**» jardunaldia, Bilbon, ekainaren 9an. Emakunde antolatu zuen jardunaldia Berdintasunerako VIII. Foroaren baitan eta emakume ijitoen elkarte hauen laguntzarekin: Chanelamos Adikerar, Sim Romí, Romí Bidean, AMUGE eta Ijito Herriaren Kontseiluko Idazkaritza Teknikoa. Jardunaldian parte hartu zuten Pilar Clavería (Tía Rona) eta Carmen Dual, Aragoiko Ijitoen Elkarteen Federazioko kideak, eta hitzaldi hau eman zuten: «Emakume ijitoen ahalduntzeko eta partaidetzako esperientziak». Horrez gainera, EAEko elkarteek gai hau izan zuten eztabaidagai «Emakume ijitoen elkarte-mugimendua EAEn».
- **Berdintasunerako VIII. Foroa ixteko mintegia.** Mintegi hori uztailaren 7an egin zen Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen ordezkartzan, eta Berdintasunerako Foroan parte hartu nahi zuten erakundeei zuzendu zitzairen. Helburu bikoitza izan zuen: alde batetik, Foroaren antolamendu-alderdiak eta han landutako edukiak ebaluatzea, eta, bestetik, EAEko erabakiguneak osatzen dituzten esparru sozial, ekonomiko eta politikoei buruzko adierazle nagusiak erakustea eta horiei buruzko hausnarketa bat egitea. Hizlari izan ziren María Silvestre eta Arantxa Elizondo, Emakundeko zuzendaria eta idazkari orokorra, hurrenez hurren.
- «*Emakumeak goi-mailako kirolean*» jardunaldiaren II. edizioa, irailaren 30ean egin zena Donostiako Kirol Etxean (Anoetako estadioan). Helburu hauek izan zituen jardunaldiak: goi-mailako kirola egiten duten emakumeen egungo egoerari buruzko informazioa zabaltzea, eta kirolari horien profesionalizatzeko-prozesuei eta ibilbideei buruzko hausnarketa eta eztabaida bat egitea. **Jardunaldian parte hartu zuten:** Xabier Leibar Mendarte jaunak, «Euskal Autonomia Erkidegoko emakume kirolariak udako Olinpiar Jokoetan» izenburuko hitzaldia emanez; Juan Oliver Coronado eta Patricia Sosa González bikoak, «Emakumeen eskubaloian izan duten parte-hartzearen historia» hitzaldia emanez; eta Ainhoa Azurmendi Etxegaray andreak, «Goi-mailako kirola egiten duten emakumeei laguntzeko neurriak» izenburuko hitzaldia emanez. Bi mahai-inguru izan ziren jardunaldian. Lehen mahai-inguruan Tatiana Kehsler eta Arantxa Gómez Novo jokalariek parte hartu zuten, eta EAETik kanpotik etorri ondoren Euskadin bizi duten esperientziaren berri eman zuten. Paloma Mata Codesal, Mayte Porro Araico eta Cristina Fernández Piñeiro arbitroek parte hartu zuten bigarren mahai-ingurukoan, eta arbitratzen aritzen duten emakumeei buruz duten ikuspegia azaldu zuten.
- «**Berdintasuna eta enpresa: aldaketarako tresnak**» jardunaldia, Emakunde antolatutakoa Kalitatearen eta Bikaintasunaren XVII. Aste Europarraren baitan (Euskalit erakundeak sustatutako astea). Jardunaldia 2011ko azaroaren 11n egin zen, Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzan. Jardunaldian parte hartu zuten Ana Armesto Campo andreak, «Emakumeak enpresen erabaki-eremuetan»

hitzaldia emateko, eta María Iturriaga Hidalgo andreak, «Emakumeak erabaki-postuetan ahalduzko coaching-a» gaia jorrazteko. Horrez gainera, esperientzia praktikoen mahai bat izan zen, «Erabakiguneetan emakumeen presentzia handitzeko estrategiak» izenekoa, eta, mahai horretan, esperientzia hauek aurkeztu ziren: Helena Ortiz de Lejarazuk «Emakume adituak identifikatzea jakintza-arloetan» esperientzia azaldu zuen; Marian Ibarrondo Unamunzagak «15 helburu proiektua: emakumeen sarea teknologia-parkeetan» esperientzia azaldu zuen, eta María Elisa Llaneza Álvarezek «Pertsona beka» izenekoa. Halaber, 2011n erakunde laguntzaile izan direnei beren lana aitortzeko agiriaren entrega-ekitaldia egin zen jardunaldian. Erakunde hauek izan ziren: AS-FEDEBI- Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarte, INVIZA S.A, CEI Prestakuntza eta Aholkularitza, Kirol Management S.L.U, ITELAZPI, Usoa Lantegia S.A.U, Familia-giroaz gabetuak izan diren haurrentzako etxeen Nuevo Futuro Elkarte Nazionalaren Gipuzkoako elkarte eta gizarte-bazterketaren aurkako MARGOTU elkarte.

- **Laneko jazarpen sexual eta sexistari buruzko prestakuntza**, Emakunderen egoitzan eman zena 2011ko azaroaren 29an eta 30ean. Prestakuntza hori 50 langile baino gehiago dituzten enpresei eta emakumeen eta gizonen gai-alorrean homologatuta dauden aholkularitza-etxeei zuzendu zen, eta bi modulu izan zituen. Lehen modulua izenburua «Desberdintasuna eta lan-merkatuan duen isla» izan zen, Bartzelonako Unibertsitate Autonomiaduneko Berdintasunerako Behatokiari zuzendari M^o Jesús Izquierdo izan zen hizlaria. Modulu horretan bertan, enpleguari eta lan-baldintzei buruz norberak dituen iritziak eta jarrerak berrikusteko lantegi bat egin zen. Maru Sarasola eta Sebastián Sarasola coach profesional eta berdintasun-alorreko aholkulariek dinamizatu zuten lantegia. Bigarren modulua izenburua «Jazarpen sexual eta sexistarako protokoloaren aplikazio praktikoa» izan zen, eta, bertan, sexu-jazarpeneko eta jazarpen sexistako egoerak artatzeko EAEn dauden baliabideen berri eman zuen Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailaren Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritzak. Olga Fotinopoulou izan zen bigarren modulu horretako hizlari nagusia, EHUko irakaslea Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzenbidearen jakintza-adarrean.

Emakundeko langileek, bestalde, eskolak eman dituzte ikastaro hauetan:

- «Osasun Publikoaren eta Generoaren esparruko Espezializazio Diplomaren» VI. edizioa, Emakumearen Institutuak, Carlos III Osasun Institutuko Osasunaren Eskola Nazionalak eta Osasun eta Emakumearen Osasun Behatokiak antolatutakoa.
- Nahiko programari buruzko hitzaldiak, hainbat erakundek antolatutak (ikusita Nahiko programari buruzkoak 3.9.1. atalean).
- Osasunari eta generoari buruzko prestakuntza eman diete Donostiako Familia eta Komunitate Osasuneko Eskolan MIR deialdirako ikasten duten ikasleei.

3.6. Jarraipena eta ebaluazioa

Botere publikoek gero eta garrantzi handiagoa eman diote politika publikoen ebaluazioari, eta, gaur egun, funtsezko egitekoa bihurtu da. Eusko Jaurlaritzaren plangintza egiteko irizpideen agiriak adierazten duen moduan, atzean geratu da neurri publikoen ebaluazioari buruzko ikuspegi jakin bat, ekintza publikoa soilik arduradun politikoei eta kudeatzaile publikoei interesatzen zitzaiela ikusarazten zuena, eta, haren ordean, gaur egungo ikuspegiak aldarrikatzen du gizarte osoari eman behar zaiola administrazio publikoen jardueraren berri eta aurrez egindako politikak aztertu behar direla, hurrengo erabakiak hartzeko erreferenteak izan daitezten. Agiri horrek berak nabarmentzen du politika publikoen ebaluazioak zer-nolako garrantzia hartu duen, bai konpromiso politikoen betetze-mailaren erreferentzia moduan, bai zerbitzu edo jarduera publiko batekin jarraitu ala ez erabakitzeko orduan.

Emakundek 1991n ekin zion berdintasun-politikak ebaluatzeari, eta ezaguna eta aitortua da politika publikoen ebaluazioaren alorrean egin duen lana, bai aldizkako-tasunari eta sistematizazioari dagokionez, bai bere deszentralizazio-mailari dagokionez. Gogoratu beharrekoa da euskal botere publikoek, Emakumearen Euskal Erakundearen 2/1988 Legeak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeak arautzen dutena betetzeko, beren beharrian eta lehentasunetatik abiatu behar dutela berdintasun-politikak egiteko, eta beti bete behar dituztela lege-gintzaldi bakoitzeko plangintza orokorrak zehazten dituen irizpide orokorrak.

Jaurlaritzak, IX. legegintzaldian, bereziki azpimarratu du horren garrantzia, eta nabarmendu du beharrezkoa dela ebaluazio sistematikoak eta etengabeak egitea plangintza-prozesu guztiak; hau da, planaren eraketako unetik bertatik hasita, aurreko erreferentziak kontuan hartuta, harik eta plana bete ondorengo ebaluazioa egin arte, gerora hartu beharreko erabakiak ahalik eta hobekien hartzeko.

Printzipio horiek aintzat hartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak berariazko atal bat du ebaluazioa arautzeko, eta atal horretan adierazten da planaren ebaluazioak anitza eta malgua izan behar duela, eta plana inplementatzeko urteetan konbinatu egin behar direla, Planaren eta Legearen betetze-moduaren balorazio zehatz eta orokor bat alde batetik, eta, bestetik, kontuak emateko eta balorazio orokor bat egiteko ikuspegia izango duten analisi batzuk, berdintasun-politiken eragina ikusteko giltzarriak diren alderdi berariazko batzuetan. Planak dio analisi horiek oso baliagarriak direla berdintasun-alorrari buruz ikasteko eta hobetzeko. Ebaluazio-prozesuak estrategia batzuk konbinatuko ditu: betetze-mailaren ebaluazioa, koherentziaren ebaluazioa, prozesuaren ebaluazioa eta eraginaren ebaluazioa.

V. Planak arautzen duen konpromiso horri erantzuteko, bi prozesu abiarazi zituen Emakundek 2010. urtean. Prozesuetako batek Eusko Jaurlaritzako sailek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana lantzeko egiten dituzten berdintasun-planen koherentzia ebaluatzea du xede, eta besteak EAEn egiten diren generopolitikei buruzko informazio-sistema bat sortzea du helburu.

Koherentziaren ebaluazioa

Koherentziaren ebaluazioaren xedea da aztertu eta azaltzea zer neurritan konpartitzen duten berdintasun-politikak lantzeko ardura duten eragileek berdintasunari buruzko kontzeptu bat eta lehentasun politiko jakin batzuek. Horrekin batera, ebaluazio horrek aztertu nahi du zer gatazka, desbideraketa eta berrikuntzako zer nodo dauden –kontuan izan behar baita, esaterako, Plan orokorrak jasotzen ez dituen beharizanak eta jarduera-eremuak lehenetsi ditzakeela arloko eragileren batek–.

Lehen adierazi den moduan, Administrazio Orokorraren sailetan egin da analisia, eta analisi horren xede izan dira EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasun-rako V. Plana eta sailetako hamar plan. Ez dira aztertu, beraz, foru-aldundietako, udaletako eta Jaurlaritzako sailei atxikitako erakunde autonomiadunetako, erakunde publikoetako eta kapital publikodun partaidetzak dituzten enpresetako berdintasun-planak. Analisia eragile horietara mugatzearen arrazoi nagusia da Jaurlaritzan eta haren sailetan soilik lortu izan direla legegintzaldi honetarako berdintasun-planen diseinuaren lehen zirriborroak. Jaurlaritzaren eta foru eta tokiko administrazioen hauteskundeetako eta legegintzaldiko egutegiak bat ez datozenez, V. Planak gerorako uzten ditu azken bi administrazio-maila horietako berdintasun-planen prestaketa.

Ebaluazioa egiteko abiapuntua sail bakoitzak berdintasunaren alorrean dituen programa-dokumentuak aztertzea izan da, eta, horrekin batera, sailetako gainerako sektore-planak eta sailburuek legegintzaldiaren hasieran egin dituzten hitzaldiak eta agerraldiak aztertu dira. Horrez gain, erdi-egituratutako hamar elkarrizketa sakon egin dira (bi orduko elkarrizketak izan dira, gutxi gorabehera) sailetako berdintasun-teknikariekin, haiek baitira sail-barneko berdintasun-planak diseinatu, koordinatu, inplementatu eta ebaluatzeko arduradunak eta sailean berdintasuna sustatzeko zeregina dutenak.

Azterketaren emaitzek diote sailetako berdintasun-planek koherentzia handia dutela V. planarekin. Pentsatzekoa zen emaitza hori lortuko zela, sailetako berdintasun-teknikariek zuzenean eta modu jarraituan izan baitute partaidetza nabarmen bat V. plana egiteko prozesuan.

EAEko genero-politikei buruzko informazio-sistema bat sortzea

V. Planak hau arautzen du, konpromiso moduan: «Emakundek jarraipen-sistema bat ezarriko du, erraz eta azkar biltzeko administrazioetako informazioa». Hori horrela, aplikazio informatiko bat diseinatu eta sortzeari ekin zitzaion 2010ean, bi helburu hauek betetzeko:

- jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozesua hobetzea eta mekanizatzea, datuak gero eta arintasun handiagoz eskuratu, ustiatu eta aztertzeke.
- genero-politikei buruzko informazioaren zabalpena hobetzea, politiken gardenetasuna handitzeko, batetik, eta, bestetik, ebaluazioa, komunikazioa eta kontu-ematea indartzeko, politikaren zikloaren elementu diren aldetik, eta, ondorioz, erakunde publikoen zeregina den aldetik.

Botere publikoek 2010. urtean egin duten jarduerari buruzko informazioa biltzeko aplikazioa egiten amaitu eta martxaren jarri da 2011. urtean. Erakundeek egingako gobernatze-ekintzei eta haiek egindako jarduerari buruzko informazioa biltzeko aukera ematen du sistemak. Horrenbestez, EAE guztiko berdintasun-politiken jarraipena egiteko aukera ematen du. Haren bidez inplementatzen dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren garapenak.

Informazio-sistemak oso emaitza onak eman dituela esan daiteke, baina ez da ahaztu behar hasierako zailtasun batzuei aurre egin behar izan zaiela –berandutza bat izan zen informazioa erregistratzeko epearen irekieran, zailtasun informatikoak izan zituzten zenbait erakundek aplikazioan sartzeko, etab.–, eta lan eta ahalegin handia egin behar izan dela erakundeekin harremanetan jartzeko eta haiei aholkularitza emateko (mila telefono-dei baino gehiago egin dira erregistro-prozesuari buruzko informazioa eta laguntza emateko, bai erakundeak sisteman erregistratzeko garaian, bai egindako jarduerari buruzko informazioa erregistratzeko garaian). Erakunde partaideen kopurua %100ean handitu da.

Sistema berria dela kontuan izanda, informazioa eman behar duten teknikari edo eragileek denbora behar dute ikasteko, eta denbora behar da informazioa biltzeko sistemak izan ditzakeen hobekuntza-aukerak hautemateko, galdetegi bidez; horrenbestez, erabaki da atzeratu egingo dela 2010. urteko txostena egiteko unea, eta batera egingo direla, aurrerago, 2010 eta 2011 urteetako txostenak. Horrela jokatuta, eskura izango ditugu sistemaren erabileraren bilakaerari buruzko datuak eta informazioaren erregistroaren bilakaerari buruzkoak.

Azkenik, informazio-sistemaren sorreraren eta erabileraren zabalpen-aukerak optimizatzeko, erakundeen jardueraren geoerreferentziatzaile batekin osatu da sistema. Tresna horren bidez, EAEko berdintasun-politiken egoera- eta jardura-mapak izango ditugu eskura, kontsulta azkarrak eta erakargarriak egiteko aukera emango dutenak eta herritar guztien eskura izango direnak Interneten.

Eraginaren ebaluazioa

Eraginaren ebaluazioa egitea, hau da, politika publikoek dituzten ondorioak neurtzea, gero eta jardura funtsezkoagoa da erabaki politikoak hartzeko garaian. Garrantzi hori are handiagoa da aurrekontuen murrizketa-testuinguru batean, politiken

eraginkortasuna handitzea eta haien gaitasun estrategikoa finkatzea ezinbestekoa baita halako egoeretan. Lehen adierazi den moduan, V. Planak berak arautzen du ebaluatu egin behar direla berdintasunerako politikek gizartean dituzten eraginak, eta, lan hori egiteko, ebaluazioko eta jarraipenerako adierazle batzuk zehazten ditu, helburu eta jarduera-eremu jakin batzuekin lotuta edo haiekin harremanean jarrita. Hala ere, eraginaren adierazleen operatibitatea handitu behar da, prozesua finkatuko bada.

Adierazleak berrikusi eta sistematizatu dira 2011. urtean, berdintasun-politiken eraginaren adierazleen multzo adostu, adierazgarri eta erreferentziazko bat zehazteko bidean aurrera egiteko. Xede hori lortzeko, EAEko adierazleak ikertu eta berrikusteko prozesu bat egin da. Horren ondoren, berdintasun-politiken helburu estrategikoen baitan kokatu dira adierazleak alderdi kontzeptual eta praktikoan, eta berdintasunaren alorrean nazioartean izan diren eragin-ebaluazioko lan adierazgarrienekin lotu dira. Lan horrekin jarraitu behar da beste fase batean, adostasunez zehazteko sintesi-adierazleen multzo bat, eskura dauden adierazleen bideragarritasuna egiazkoa dela argi ikusi ondoren.

Zerbitzu publikoen kalitaterako jardunbide ona

Ekintza Positiboko 1991ko Plana onartzearekin batera ekin zitzaion berdintasuneko politika publikoak ebaluatzeari, eta plan hark erabiltzen zuen metodologiak argi nabarmentzen zuen jardueren memoria soil bat izatetik haragoko asmoa zuela; izan ere, egindako jardueren berri emateaz gain, jarduera horien izaera eta egokitasuna aztertze bidea ireki nahi zuen. Xede hori ezarrita, jardueren lehen tipologia bat zehaztu zen, erakundeek egiten zituzten interbentzio-moten arabera. Lehen metodologia horretatik abiatuta, urteko ebaluazioak eta orain arte inplementatu diren lau planetako indarraldia amaitu ondorengo ebaluazioak egin dira modu jarraituan. Ordutik egin den ibilbideak argi erakusten du zer-nolako garrantzia eman zaion ebaluazioari; izan ere, lehenetsun horren harian abiarazi da ebaluazio-sistema berria, V. Planaren onarpenarekin batera planteatu dena.

Emakundek egin duen ahalegin horrek jaso du aitoplenik, Eusko Jaurlaritzak, 2011. urtean, berdintasun-planen ebaluazio-sistema hautatu baitu jarduera onaren adibide gisa, zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko programaren esparruan. Hori horrela, Zerbitzu Publikoen Kalitateari buruzko Estatuko 3. Konferentzian aurkeztu zuen Emakundek bere esperientzia. Konferentzia hori Euskalduna jauregian egin zen hain justu, 2011ko azaroan.

3.7. Emakumeen elkarteak eta berdintasunaren aldeko mugimenduak bultzatu eta indartzeko jarduerak

3.7.1. Aholku Batzordea

Aholku Batzordeak jarraitu egin du bere ohiko lanean, hau da, Euskadiko elkarteekin solastu eta komunikatzeko organoa izaten jarraitu du aztertzen ari garen urtean. Emakundek Euskal Administrazio Publikoaren maila guztietan sortutako sektoreko partaidetzarako organoetan Aholku Batzordeak ordezkari izatea sustatzen eta ahalbidetzen jarraitzen du. Horrez gain, elkarte guztiekin bilerak bultzatu ditu, udal-, eskualde- eta lurralde-mailan.

Sortu zenetik, Emakunderen jarduketaren ardatz nagusietako bat emakumeen elkar-te-sarea bultzatzea eta sendotzea izan da, eta, horretarako, emakumeen parte-hartzea bultzatu du, bai politiken diseinuan, bai esku-hartze publikoaren esparruetan erabakiak hartzeko orduan. Egindako lan horren ondorioz, elkarteekin harremana izateko eta trukerako mekanismoak sortzen joan dira, eta, bestalde, elkarte horien arteko trukea eta lan koordinatua ere sustatu eta babestu da. Horren guztiaren emaitza dira Emakundeko Aholku Batzordea eta elkarteek berdintasunean oinarritutako gizartera gero eta gehiago hurbiltzeko beharrezkoak diren sentiberatzea eta gizarte-aldaketak gertatzeko egiten duten gero eta ekarpen handiagoa.

Emakundek prozesu hori bultzatzen eta sendotzen jarraitzen du, hau da, emakumeek gizarrean eta politikan parte hartzeko dinamika eta estrategia berriak abiarazi eta finkatzeko prozesu konplexuak indartzen.

Testuinguru horretan, elkarteekin lurralde-bilerak bultzatzen eta dinamizatzen jarraitu dugu, elkarten jarduketa-eremua eta elkarte horiek herri- edo lurralde-administrazioekin duten harremana edozein dela ere; bilera horien helburua sareak finkatzea, koordinazio egonkorra lortzea eta interes komuneko ekimenak eta proiektuak adostea da.

Emakunderen Aholku Batzordeko elkarteetako ordezkariak probintzia bakoitzean parte har dezaten bultzatu da, elkarlan bateratuaren kultura sortzeko asmoz. Horrek ahalbidetzen du emakumeek elkarteetan parte-hartze aktiboa izan dezaten estrategiak zehaztea eta konpromisoak eta etorkizuneko ekintzak bilatzea.

Ondoko jarduketa hauek egin dira 2011. urtean:

- Lurraldeetako Aholku Azpibatzerdeen bilerak, parte-hartzeari buruz aholkularitza eskaintzeko eta parte-hartze hori errazteko eta dinamizatze nahiz sareko proiektuak bultzatzeko.

- Batzordearen barneko batzordeei eta beste lan-talde batzuei laguntza eman zaie eta horien jarraipena egin da; lan-talde horien artean honako hauek daude:
 - Gizarte-bazterketaren esparruan lan egiten duten elkarteak.
 - Emakume alargunen elkarteak.
 - Komunikabideak eta elkarte-mugimendua.
 - Lurralde-jardunaldiak antolatzen dituzten elkarteak.
 - Emakume etorkinen ordezkariak.
 - Landa-eremuetako emakumeen ordezkariak.
 - Ezintasunak dituzten emakumeen ordezkariak.

3.7.2. Emakume-taldeei emandako aholkularitza eta laguntza

Hainbat proiektu babestu dira eta haien jarraipen-lanak egin dira:

Partaidetzaren eremuan genero-ikuspegiz egiten diren prestakuntza-proiektuei aholkularitza emateaz gain, aholkularitza teknikoa eman zaie hala eskatu duten elkartei, beren proiektuak egin eta ebaluatzean genero-ikuspegia barnera zezaten.

- EAEko emakume alargunen sareak.
- Emakumeen arteko komunikazioa eta elkarteen mugimendua lurraldean.
- Landa-eremuetako emakumeen elkarteak.
- Emakume ijitoen elkarteak EAEn.
- EAEko emakume ezinduak, erakunde mistoetako emakumeen ordezkarietz osatutakoa.
- Tokiko, eskualdeko eta lurraldeko sareak finkatzen eta sortzen lagunduko duten proiektuak babestu dira, tokiko administrazioekin batera.
- Erakunde mistoetako emakumeen atalak.

Horrez gainera, tokiko sareak, mankomunitatekoak, probintziakoak, autonomia-erkidegokoak eta autonomia-erkidegoen artekoak indartzeko ekintzei eta dinamikei buruzko aholkuak eman dira.

Prestakuntza-jarduerei ere eskaini zaie laguntza.

Emakumeen elkarteekin biltzeko nahiz horiek elkarrekin biltzeko guneak eskaintzen, sustatzen eta finkatzen jarraitu dugu, eta bilera horietan, besteak beste, elkarteen

barne-prestakuntzarekin lotutako beharrak nahiz antzeko prestakuntza-interesak dituzten hainbat elkarteren artean prestakuntza-proiektu koordinatuak antolatzekeo estrategiak landu dira.

Lurralde historiko bakoitzean bai eta hala eskatzen duten eskualdeetan ere elkar-tzeko eta prestatzeko taldeak sustatzen eta dinamizatzen jarraitu dugu, hala, partai-detza aktiboagoa, orain arte erabili gabeko ereduak eta estrategiak izango dituen, lortzeko oinarriak finkatzeko, bai emakumeen erakundeen barne-dinamikari dago-kionez, bai eta emakumeek tokiko, lurraldeko, autonomia erkidegoko, Estatuko edo nazioarteko sareetan duten parte-hartzeari dagokionez ere.

Testuinguru horretan eta Aholku Batzordearen lanaren baitan, lurralde bakoitzean partaidetza eta sare-lana sustatzeko baliatu behar diren dinamikak eta metodoak erabakitzeko xedea izango duten lan-batzordeen sorrera lagundu eta babestu da. Elkarrekin esparru horretan izan behar duten ordezkari buruzko hausnarketa egitea izan da bultzatu den helburuetako bat.

Gizarteratzeko eta laneratzeko teknologia berrietan prestakuntza eskuratzeko proiektu bat bultzatu da, ezintasunak dituzten emakumeen elkarrekin eta eremu so-ziokulturaleko emakumeentzat.

Etengabeko prestakuntzarako espazioak finkatu dira hiru probintzietan, gizartearen eta politikan genero-ikuspegitik parte hartzeko.

Ekimenak bultzatu dira, prestakuntza-dinamika berriak abiarazteko haiek ebaluatu ostean.

Lankidetzari horri jarraituz, aholkularitza eman zaie gure autonomia-erkidegoko emakumeen elkarrekin, udalei eta gizarte-eragileei, sentsibilizazioko eta prestakun-tzako hitzaldiak, mintegiak eta jarduerak antola ditzaten elkarrekin sozopoliti-tikoaren eta partaidetza-organoen dinamizazioaren alorrean, bai eta herritarren partaidetza genero-ikuspegiaren baitan bultzatu, koordinatu eta laguntzeko lan-metodoen jardun-alorrean ere.

Trukaketak eta koordinazioa errazten duten tresnen eguneratzea

«EAEko Emakume Elkarrekin Gida» banatzen eta eguneratzen jarraitu da. Modu berean, EAEko Gizonen eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasuna Sustatzeko Elkarrekin Mistoan, Erakundeen eta Taldeen Helbidetgia berrikusten eta zabaltzen jarraitu da; horren helburua da baliabideak koordinatzea eta optimizatzea eta tresna izatea esperientzien trukea sustatzeko eta, horren ondorioz, elkarrekin arteko sareak sortu eta sendotzeko.

Trukea bultzatu da Estatuko eta nazioarteko emakume elkarrekin mistoekin eta beren jarduerari hainbat esparrutan gauzatzen duten beste elkarrekin misto batzuekin.

3.7.3. Laguntza ekonomikoa

Emakumeen elkarteei eta federazioei emandako laguntzak

Aholkularitza teknikoaz eta jarduerak antolatzeko babesa emateaz gain, Emakundek elkarten jarduera ekonomikoki babesten jarraitu du, urteroko dirulaguntzen deialdiaren bitartez. Deialdia irabazteko asmorik gabeko Emakume Elkarte eta Federazioei zuzentzen zaie, bai eta xede eta jarduketa-eremu bakartzat emakumearen sustapena duten Fundazioei ere. Deialdiaren helburua honako hau da: helburutzat emakumeen parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzea duten elkarteak eta jarduerak sustatzea. Emakundek behar duten laguntza teknikoa eskaintzen die, bai proiektuen lanketa-prozesuan, bai dirulaguntzak izapidetzeko prozesuan. Gainera, beste administrazio batzuek eskainitako dirulaguntzei buruzko informazioa ere ematen du.

Deialdira eskaera aurkeztu zuten 137 elkarteetatik 112k jaso dute dirulaguntza. Guztira, 215 proiektuk jaso dute dirulaguntza, eta dirulaguntzen bidez emandako kopuru osoa 320.000 eurokoa izan da. Bestalde, Emakundek aurkeztutako proiektuen jarraipena egin du, bereziki sareen finkatzearekin lotutako proiektuena.

Ondorengo emakume elkarteek jaso dute dirulaguntza:

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBAT.
Acambi, Bularreko Minbizidunen Bizkaiko Elkarte	<ul style="list-style-type: none"> Tai Chi eta Chi Kung diziplinen hastapeneko tailerra. 	203 €
Amañili Alkizako Emakumeen Elkarte	<ul style="list-style-type: none"> Equala-ren hitzaldia «Ba al dakizu zer eskubide dituzun?» «Aske izateko heztea, estereotipoetatik at» eta «Eskola-porrota: arrazoiak eta nola aurre egin egoerari» hitzaldia eta tailerra «Adi: gustagarri eta atsegin izateko hezitako emakumeak» Equala-k emandako ikastaro azkarra Abdominal hipopresiboak egiteko ikastaroa emakumeentzat 	1.250 €
Andraizea Dimako Andreen Elkarte	<ul style="list-style-type: none"> Dimako emakumeen, landa giroan, berdintasunerako sentsibilizazio plana Emakumeen berdintasuna eta aisialdia bultzatzeko jarduerak 	909 €
Arrasateko Ekin Emakumeak Aed Kultur Elkarte	<ul style="list-style-type: none"> Emakume etorkinen egoera ezagutzeko sentsibilizazio tailerra «Debagoieneko emakumeak izan eta ekin», argazki erakusketa Elkarteko kideei zuzendutako prestakuntza-saioak Sexologia ikastaroa Emakumeon aurkako indarkeriaren inguruko sentsibilizazio tailerra 	1.896 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBAT.
Asamma, Ginekologiako Eta Bularreko Minbizia Eta Duten Emakumeen Arabako Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Suspertze funtzionalerako eskola 	926 €
Eskoriatzako Amuska Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Antzerki tailerra • Olio-pintura 	292 €
Argitan Emakumeentzako Aholku Etxea	<ul style="list-style-type: none"> • «Festa, gauak ere gureak dira» eraso sexisten aurkako kanpaina • «Eskubide guztiak emakume guztiontzat» Martxoaren 8ko kanpaina • «Jostailu ez-sexistak» jardunaldia 	3.337 €
Emakumeen Prestakuntzarako Peñascalko Zentroa Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Hazkuntza eta partaidetzako taldeak • Martxoaren 8aren inguruko jarduerak 	617 €
Emakumeek Itzatu Gizarte-Zentroko Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Artearen Historia • Prestakuntzarako antzerkia • Genero-ikuspegidun kultura-ikasgelak • Kudeatzeko autonomia: deialdiak, proiektuak eta memoriak; partaidetzarako genero-ikuspegidun tresnak 	8.049 €
Emilia Pardo Bazán Hezikidetzarako Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Mintegia: familiaratik ikastea indarkeriazko jokabideak prebenitzen 	1.015 €
Alargunen Aval Elkartea Kristaua	<ul style="list-style-type: none"> • Eskualde-bilera eta bilkura nazionala egitea 	739 €
Alborada Berri Kultura-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Antzerki-teknikak 	169 €
Emakumeen Araldi Kultura-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Zinema genero-ikuspegitik • Zer nahi dute emakumeek? Zer nahi dugu emakumeak garen aldetik: Istorioak, ikasketak eta etorkizunaren eraikuntza 	4.883 €
Berangoko Emakumeen Kultura-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Uribe Kostako emakume-elkarteen partaidetzarako proiektua Uribe Kostako 5 emakume-elkarrekin sarean egindako proiektua 	3.138 €
Urdulizko Emakumeen Inola Kultura-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasi besteri eta zeure burua zaintzen • Emakumeak eta osasuna: Nire bizitza hobetzeko gakoak 	2.659 €
Emakumeen Itzartu Kultura-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Martxoaren 7tik 13ra egindako aste kulturala • Zer nahi dute emakumeek? Zer nahi dugu emakumeak garen aldetik: Istorioak, ikasketak eta etorkizunaren eraikuntza • Barre-tailerra • Komunikazio idatziari buruzko tailerra • Autodefentsa-tailerra emakumeentzat 	7.713 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBAT.
Lutxanako Emakumeen Kultura-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Kultura-astea • Pilates 	796 €
Errepelegako Emakumeen Las Amigas Kultura-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen partaidetza lehen abangoardietan? 	723 €
Harresiak Emakumeen Kultura-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Birziklitzeko eskulangintza-tailerra • Literatura-lehiaketa • Hitzaldi-zikloa: Norberaren autoestimua, balorazioa eta satisfazioa 	650 €
Emakumea Sustatzeko Solastiar Kultura-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Jardunaldi juridikoak • Hitzaldia: «Prebenitu al daiteke Alzheimer gaixotasuna?» • Hitzaldia: «Nola azalduko diet bilobei emigrantea izan nintzela?» • Emakumeen eguna «martxoak 8». Zine-foruma • Etxeko nagusiaren/andrearen eguna «Urriak 9» Kafe-antzerkia • Genero-indarkeriaren aurkako eguna (azaroak 25) 	630 €
Bilboko Emays Kultura-	<ul style="list-style-type: none"> • Historiako emakume bidaiariei buruzko ikastaroa • Memoria-teknikak eta trebetasunak lantzeko tailerra • Berdintasunari, erantzukidetasunari, ahalduntzeari eta familiari buruzko hitzaldiak 	1.091 €
Eragin Kultura-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Kultura-hitzaldien zikloa 	609 €
Izarraitz Zuria Antzerki-Taldea	<ul style="list-style-type: none"> • Sormen-ikastaroa: «Inprobisazio pedagogikoa eta antzerkia» 	284 €
Galdakaoko Mirari Kultura-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Publizitate eta sexismoko tailerra 	692 €
Killirikupe Emakumeen Kultura-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Gizon eta emakumearen berdintasuna herrian integratzen 	812 €
Basauriko Etxeko Andreen Ate Zabaliak Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Psikologia eta erantzukidetasuna • Abesbatza • Kultura orokorra • Ikastaro monografikoak • Martxoaren 8aren ospakizuna 	711 €
Dulantziko Etxeko Andreen Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasunerako ekintzak 	1.352 €
Etxeko Andreen Iratzarri Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasunerako sukalde-tailerra • Lantegia: prestakuntza 	853 €
Etxeko Andreen Eta Emakume Kontsumitzaileen Zoko Maitea Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Gorputz adierazpeneko ikastaroa • Ordenamendu juridikoak emakumeei aitortzen dizkien eskubideen berri emateko saioak 	893 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBAT.
Derioko Etxeko Andreen Eta Emakume Kontsumitzaileen Sutondoan Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen nazioarteko astea • Hitzaldi-sorta 	411 €
Entzutekoa Gizarteratze-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Autoestimu-tailerra • Prestakuntza-tailerra 	2.658 €
«Hegaldi» Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Martutenen espetxeratuta dauden emakumeen ahalduntzea eskulangintzaren bidez • Bizitzen erakutsi zidaten filmak: zinearen bidezko ahalduntzea 	5.816 €
«I-Romi» Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • «Gazte 85» Bilatu zure proiektua, topatu zure bizitzaren zentzua 	3.898 €
Emakumeen «Toloñoko Lagunartea» Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • «Emakumea eta osasuna» tailerra • Emakumeen berdintasunerako argazkigintza-tailerra 	711 €
Katxalin, Ginekologiako Eta Bularreko Minbizia Izan Duten Emakumeen Gipuzkoako Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Hazkunde pertsonaleko taldea • Sexualitate-tailerra 	3.597 €
Arabako Emakume Nekazarien Gure Soroa Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Zer nahi dute emakumeek? Zer nahi dugu emakumeak garen aldetik: Istorioak, ikasketak eta etorkizunaren eraikuntza 	7.552 €
Andre Berri Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Zer nahi dute emakumeek? Zer nahi dugu emakumeak garen aldetik: Istorioak, ikasketak eta etorkizunaren eraikuntza • Berdintasunerako antzerkia: «De película» izeneko antzerki-lana • Hausnarketa feminista Feminismoaren eraikuntzaren ikuspegi historiko eta soziala 	4.511 €
Boga-Boga Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeak eta zinea 	614 €
Beasaingo Asmube Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Kimetz, Asmube eta Sorgiñemak emakume-elkarrekin egindako «Tentetu» dokumentala zabaltzeko proposamena 	2.598 €
Anderebide - Iurretako Emakumeen Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Elkartea sortzeko ikastaroa • Ikastaroa: «Emakumeen barne-indarra» 	1.271 €
Basauriko Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Autonomia pertsonalerako sormen-bizipenak lantzeko tailerra 	1.194 €
Ema-Hitza Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Mintegia: emakumeen parte-hartzea politikan 	1.121 €
Bilboko Emaisia Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • «Hezkidetzeta eta hezkuntza ez formala» ikastaroa • Amodioari buruzko ikerketa nerabezaroan 	6.238 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBAT.
Las Carreras-Eko Emelka Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Kontra-publizitateko tailerra eta argazki-erakusketa 	1.299 €
Emakume Ijitoen Sim Romi Elkarte	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume ijitoaren VII. jardunaldiak, Sim Romi elkarteak antolatua 	2.956 €
Aialako Gure Andere Emakumeen Taldea	<ul style="list-style-type: none"> • Luiaondoko emakumeak ikusarazteko proiektua 	2.239 €
Gure Izarrak Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen II. idatzi-lehiaketa • Gaztelaniazko lantegia etorkinentzat • Genero-indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna • Ate irekien eguna • Gure Izarrak elkartearen XVII. urteurrena • Mahai-ingurua Toti Martinez de Lezearekin • Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna • «Emakumeen erotismoa» mahai-ingurua • «Nola aztertu gure emozioak» izeneko tailerra • Irakurketa-lantegia 	3.686 €
Helmuga Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Mendekotasun Legeari buruzko hitzaldia 	463 €
Deustu-San Ignazioko Izaera Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzaldiak 	406 €
Lanbroa Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Feminismoaren XXI. Eskola • Lanbroa kolektibo feminista sortu zeneko 25. urteurrenaren ospakizuna • Lanbroa aldizkariaren 28. zenbakia argitaratzea. Feminismoaren erronkak XXI. mendean 	3.094 €
Ortuellako Lankume Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-bazterketako egoeran dauden emakumeentzako programa 	1.065 €
Mirra Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Nazioarteko Sueños en Acción I. konferentzia • Berdintasunerako Euskadiko IV. World Kafea: Genero-kontzeptua berrituz 	2.761 €
Mochilas Rojas Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Mochilas Rojas: presentzia, ahalduntzea eta nortasuna. www.mochilasrojas.com 	686 €
Sestaoko Neba Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume legez ahalduntzen, elkarte legez ahalduntzen 	2.442 €
Prestakuntza Eta Garapenerako Eskuz-Esku Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • XIX. mendeko emakumeak artean, historian eta literaturan. 	2.761 €
Safa Emakume-Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Autodefentsa feministako tailerra • Lantegia: Berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria 	1.402 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBAT.
Landa-Eremuko Emakumeen Land@Xxi Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen autodefentsarako ikastaroa • Lehen sorospenetako ikastaroa emakumeentzat • Emakumea zinean, ikus-entzunezko tailerra gogoetarako • Kritika feministako tailerra 	1.230 €
Enplegua Sustatzeko Gremioak Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeak laneratzeko ibilbideak prestatzeko programa. • Kudeatzeko autonomia: deialdiak, proiektuak eta memoriak; partaidetzarako genero-ikuspegidun tresnak 	9.744 €
Etxe-Barrukoak Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko emakume langileentzako eskubide guztiak 	2.127 €
Galdakaoko Aztiak Antzerki-Taldea	<ul style="list-style-type: none"> • Antzerki-lantegia 	1.299 €
Basauriko Emakume Alargunen Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Gimnastika • Hitzaldia: «Ongizate fisikoa. Eguneroko bizitza hobetzeko jarraibideak» • Hitzaldia: «Ongizate psikologikoa eta soziala. Hobetu zure bizi-kalitatea» 	551 €
Eibarko Altzoa Emakume Alargunen Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Alarguntasunari buruzko arau juridikoak • Alarguntasun-pentsioei buruzko prestakuntza-mintegia «Eskubidedun pertsonak bagara, zergatik da alarguntasun-pentsioa eskubide deribatua?» 	3.294 €
Alaitasuna Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Ongizate fisiko eta mentalerako lantegia, uztarketa eta erantzunkidetasuna landuz • Emakumearen astea eta emakume taldeen topaketa Enkarterrietan 	1.169 €
Eme Komunikazioa Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Genero-kontuetan adituak diren kazetariak antolatu eta haiei prestakuntza ematea, komunikazio berdintasuneko alde • Pikara Magazine aldizkaria, genero-ikuspegidun argitalpena emakumeen partaidetza eta topaketa sustatzeko 	9.744 €
Emakume Langilearen Eskubideen Aldeko Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • «Genero-indarkeriaren aurpegi guztiak» 	159 €
Duranako Emakumeen Eskola	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume Langilearen astea • Irakurketa-lantegia 	660 €
Aldarte, Askatasun Sexualak Aztertze Elkartea Eta Dokumentazio-Zentroa	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasunaren aldeko jardunaldiak. Lesbianen topaketak • Koaderno hau prestatu eta zabaltzea: emakumeak, lesbianak, immigranteak 	5.481 €
Lilatoi Taldea Elkartea Feminista	<ul style="list-style-type: none"> • Lilatoia herri-lasterketa feminista 	3.248 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBAT.
Gizarterako Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Kudeatzeko autonomia: deialdiak, proiektuak eta memoriak; partaidetzarako genero-ikuspegidun tresnak • Proposamen feministei buruzko prestakuntza-tailerra 	6.577 €
Emakumeen Sanfuentes Elkarteko Talde Kulturala	<ul style="list-style-type: none"> • Teknologia berriak – Diseinu grafikoa • Literatura-tailerra 	2.316 €
Argia Emakume-Taldea	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasunaren aldeko jarduerak 	1.793 €
Emakume Ausartak Antzerki-Taldea	<ul style="list-style-type: none"> • Antzerki zuzendaritza: antzerki-lana prestatzea eta emanaldiak egitea 	853 €
Euskadiko Emakume Ijitoen «Chanelamos Adikerar» Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume ijitoen eta ijitoak ez diren emakumeen «Elkarrekin egin dezakegu bidea» gizarte-sarea sortzeko proiektua 	3.639 €
Munduko Emakumeak Babel Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • «Munduko Emakumeak» lau hileroko aldizkaria 	3.248 €
Sexuen Arteko Berdintasunaren Aldeko «Plazandreok» Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Feministaldia '11 	7.219 €
Emakumearen Sustapenerako «Emakume - La Mujer» Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Ahalduntze pertsonaletik gizarte ahalduntze baterantz 	1.624 €
Emakume Ijitoak Sustatu Eta Gizarteratzeko «A Una Sola Voz» Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Genero-indarkeria prebenitzeko «Jamás» izenburupean egindako tailerra 	4.109 €
Emakumeen Aldeko Eraldatzen Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Ezkontza-politikak: Ezkontzak han eta hemen, atzo eta gaur • Naro 2011 foroan parte hartzea: «Partaidetza ikuspegi ugaritatik» • «Emakumeen aurkako indarkeriak prebenitzeko eskualde arteko eskola», Emakumeen elkarteak prebentzioaren ardatz 	5.932 €
Etxeko-Andre, Familia-Kontsumoko Etxeko Andreen Elkarteko Probintziala	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko-Andre aldizkaria • Etxeko-Andreko astearteak • Berdintasunari buruzko ikastaroa • Etxeko-Andreren kongresua 	3.613 €
Etxeko Andreen Eta Familiako Kontsumoko Gipuzkoako Aranzazu Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza eta berdintasuna 	1.035 €
Berdintasunerako Aizan Elkarteko Psikosoziala	<ul style="list-style-type: none"> • World kafea: «Parte hartzen al dute emakumeen erabaki eta eragin guneetan? » (Emakunde 2011 Foroa) 	286 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBAT.
Emakumearen Arritokieta Elkarte	<ul style="list-style-type: none"> • Lantegia: «Pertsona sentitzea egiaz» 	487 €
Emakumeen Bagabiltza Elkarte Soziokulturala	<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza-programa emakumeentzat 	8.770 €
Las Arenaseko Gizatiar Emakume-Elkarte	<ul style="list-style-type: none"> • Lantegia: Prentsaren irakurketa kritikoa genero-ikuspegitik • Generoari eta berdintasunari buruzko prestakuntza: genero-ikuspegitik parte hartzeko oinarriak 	7.929 €
Kimetz Elkarte Sozio-Kulturala	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko ekintzak • Kimetz narrazio laburren lehiaketa • Dos proiektua: «Emakumeen aurkako indarkeriak prebenitzeko eskualde arteko eskola», Emakumeen elkarteak prebentzioaren ardatz • Komunikazioa generoa aintzat hartuta • «Tentetu» dokumentala zabaltzea • Literatura-hizketaldiak • Emakume baserritarren ekarpena Ordiziako azokan • Berdintasunaren eta giza eskubideen aldeko ekintzak: Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuz 	9.744 €
Ermuko Emakumeen Asanblada Sozio-Kulturala	<ul style="list-style-type: none"> • Ermuko emakumeen historia eta genealogia: aztarna feminista eta generokoak 	3.654 €
«Mazala» Zeanuriko Emakumeen Elkarte Sozio-Kulturala	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen talderako abilezia sozialak • Barreterapia 	528 €
Erandioko Emakumeen Elkarte Soziokulturala	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazio eman eta gaiarekiko sentikortzeko programa: «Zero tolerantzia emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean» 	1.462 €
Sanpor Elkarte Terapeutikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuak egin eta finantzatzea • Giza gorputzaren sistemai buruzko tailerra 	419 €
Ekinbide Emakumeen Sustapenareko Elkarte Soziokulturala	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen Historian 	844 €
Bagabiltza Fundazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko emakumeen elkarten VII. jardunaldia • Kudeatzeko autonomia: deialdiak, proiektuak eta memoriak; partaidetzarako genero-ikuspegidun tresnak • Ezintasunak dituzten pertsonak laneratzeko eta lan-merkatuan irauteko proiektua. 	9.744 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBAT.
Besarkada, Emakumeen Antzerki-Taldeen Federazioa	• «Emakumeak eskenatokian» antzerki-zirkuituaren V. edizioa	1.847 €
Bizkaiko Emakume Abertzaleen Bulegoa	• Bizitza pertsonala, familiara, profesionala eta elkarre-jarduerak bateratzea	1.224 €
Mamarigako Emakumeen Kultura-Zentroa	• Etxeko lanak trukatzeko tailerra • Barreterapia • Emakumeak eta bigarren gaztaroa • Memoria ezagutzeko eta hobetzeko teknikak	983 €
Emakumeen Uztai-Belar Asiarako Kultura-Zentroa	• Bizitzen erakutsi zidaten filmak: zinearen bidezko ahalduntzea • Munduan egoteko eta munduari begiratzeko beste modu batzuk: emakumeen mugimenduak	6.500 €
Emakumeen Sustapenerako Uretamendi Kultura-Zentroa	• ABRILOCIO emakumea sustatzeko programa	365 €
Haizea, Emakumeen Prestakuntzarako Elgoibarko Zentroa	• Sexualitateari, afektibitateari eta tratu oneko harremanei buruzko zinemaren topaldi-zikloak • Sexualitatean, afektibotasunean eta tratu oneko harremanetan ahalduntzeko ikastaroa	2.700 €
Ehaf - Euskal Herriko Alargunen Federazioa	• EHAF federazioko elkarten oinarriak dinamizatu eta indartzeko proiektua	3.847 €
Elorri-Lore Andreen Elkartea	• Ahalduntze-ikastaroa. Sexualitatea eta tratu ona	1.827 €
«Emagin» Emakumearen Inguruko Ikerkuntza Sustatzeko Elkartea	• «Emakumeentzako Eskola Feminista: Krisian emakumeon bizi baldintzetan nola eragin du? Zein dira gure alternatibak? »	1.507 €
Emakin Elkartea	• 10 urte ekinean... iragana, oraina eta etorkizuna	9.208 €
Emeki Emakume Elkartea	• Margotu, josi eta dantza egitea genero-ikuspegiz – Generoaren alorreko prestakuntza emakume-elkarteetako tailer eta jardueren monitoreentzat	5.172 €
Euskal Herriko Bilgune Feminista	• Martxoaren 8ko kanpaina • Jailetako kanpaina	1.701 €
Gipuzkoako Emakume-Elkarre «Redagi» Federazioa	• Kudeatzeko autonomia: genero-ikuspegitik parte hartzeko tresnak	6.577 €
Bizkaiko Emakumeen Sustapenerako Fundazioa	• Nerabezaroan eta gaztaroan genero-indarkeria prebenitzea eta gaiari buruzko sentikortasuna zabaltzea	2.274 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBAT.
Gaurko Andreak Berdintasunaren Aldeko Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Generoari eta berdintasunari buruzko prestakuntza. Genero-ikuspegitik parte hartzeko oinarriak 	8.185 €
Hitez Baserriko Emakumeen Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzaldia: «Generoa eta umorea» • Jardunaldia/Topaketa: «Elikadura begetarianoa» • Lantegia: «Elkartuta, zain dezagun, emakumeok, gure osasuna eta eraginkortasunez lan egin dezagun» • Lantegia: «Tira, neskak, amaitu da». Menopausia • Hitzaldia: «Baserriko emakumeen jabeko eskubideak» 	3.523 €
Laudioko «Jakaranda» Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzaldia: «Zer gertatzen zaigu emakumeoi 50 urtetatik aurrera? » 	171 €
Joana Mugarrietakoa, Emakume Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Irunen, Alardeak, indarkeriarik gabe eta berdintasunean ospatu daitezela lortzeko herritarrekin hasitako lan-saioei jarraipena emateko proposamena • Irun eta Hondarribiko Alardeen etorkizuna: zer gertatzen da gazteekin? 	5.414 €
Latinoamerikako Emakumeen «Lacasiun» Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastaroa: Mendetasun-egoeran dauden adinekoen zaintzaile diren emakumeentzako laguntza psikologikoa • Menopausia-tailerra 	969 €
Menagaraiko Emakume Taldea	<ul style="list-style-type: none"> • Bizitzen erakutsi zidaten filmak: zinearen bidezko ahalduntzea 	6.577 €
Arabako Landa-Ingurunekeo Emakumeen Sarea	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume Sarearen XII. Topaketaren transkripzioa 	1.632 €
Zaratamoko Andreen Elkartea Soziokulturala «Enarria»	<ul style="list-style-type: none"> • Nork bere buruaren ezagutza: Familia-harremanak genomaren bidez aztertuta • Autoestimua; nire ahalduntzearen oinarriak. Hausnarketa teoriko eta praktikoen mintegia 	7.925 €

3.7.4. Emakunderen dirulaguntza-programaren bilakaera-azterketa

Emakumeen sustapenerako elkarte, federazio eta fundazioei laguntzeko sortu zen dirulaguntzen programa 1990. urtean, eta programa horren bidez irabazi asmorik gabeko 150 inguru elkarteri ematen zaie dirulaguntza bat urtero; horrez gain, 300 proiektu eta jarduera egiten dira urtero. Emakundek ahalegin ekonomiko handia egin du urte hauetan programa hori aurrera eramateko. Urte horiek guztiak igaro ondoren, dirulaguntza horien bilakaera aztertzea komeni dela iritzi da; izan ere, jardun-ildo hori da Emakundek baliatu duen bide konstanteenetako bat emakumeengan zuzenean eragiteko, euskal gizartean parte hartu dezaten bultzatzeko eta emakumeak sustatzeko. Berriaz, emakumeen elkarte-jarduerak bultzatu eta erakundeen partaidetza indartzeko Emakundek diruz lagundu dituen jardueren eta proiektuen oinarritzko ezaugarriek (esparruek, izaerak, norainokoak, etab.) azken urteetan izan duten bilakaera aztertu da.

Gizonen elkarteak eta federazioak eta elkarte eta federazio mistoak

Emakunderen xede eta helburuekin bat datozen proiektu konkretuak egiteko aholkularitza eta laguntza emateko ildo horri berari jarraituz, gizonen elkarte eta federazioentzako eta/edo elkarte eta federazio mistoentzako diru-laguntzen lehenengo urteko deialdia egin du Emakundek. Federazio eta elkarte horiek ez dute irabazi asmorik izan behar, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egin behar dute lan. Lehen adierazi den moduan, Emakundek bazuen lehendik berriazko dirulaguntza-programa bat berdintasunaren alde lan egiten duten emakumeen elkarteentzat. Deialdi horietatik kanpo geratzen dira, hain justu, programa berri honen bidez diruz lagundu nahi diren elkarte mistoak eta/edo gizonen elkarteak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduera espezifikoak egiteko bidea urra dezaten.

Deialdira eskaera aurkeztu zuten 25 elkarteetatik 17k jaso dute dirulaguntza. Guztira, 23 proiektuk jaso dute dirulaguntza, eta dirulaguntzen bidez emandako kopuru osoa 30.000 eurokoa izan da. Aurkeztu diren jardueren jarraipena egin du Emakundek. Hauek izan dira jarduera horien helburuak:

- Emakumeen autonomia lantzea eta genero-kontzientzia hartzea.
- Balioak aldatzea lan-munduan eta etxean, sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak desagerraraziz.
- Emakumeek baliabide ekonomikoak eta sozialak eskuratzeko dituzten aukerak eta haiekiko kontrola handitzea.
- Erantzukidetasuna eta zaintzaren etika.

Federazio eta elkarte misto eta/edo gizonezkoen elkarte eta federazio hauek jaso dituzte dirulaguntzak:

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBAT.
Doluari Laguntzeko Krisalida Elkartea	• Ikuspegi feministatik gogoeta egitea amatasunari eta aitatasunari buruz seme edo alaba bat galtzean	1.418 €
Euskadi-Cuba Elkartea	• Euskadin bizi diren emakume kubatarrentzako informazio-puntua	1.232 €
Goiztiri Elkartea	• Ikus-entzunezko tekniken oinarrietan gaitzea eta teknologia berriak genero-ikuspegitik erabiltzea	2.190 €
«Pausu Media» Gke, Eskualdeko Komunikabideetan Eta Nazioarteko Lankidetzaproiektuetan Teknologia Berriak Lantzeko Elkartea	• «Emakumeak aurrean» komunikazio-tailerrak. Donostialdeko emakumeen ahotsa	1.549 €
(F&P), Emakumearen Eta Ingurumenaren Aldeko Elkartea, Femeninoa Eta Plurala	• Prestakuntzaren eta enpleguaren bidez gizarteratzeko proiektua, Donostiako espetxeko emakume espetxeratuentzat	1.830 €
Familiaren Euskal Elkartea «Sendia»	• Indarkeriaren biktimei arreta osoa emateko programa	891 €
Gizarte-Barterketa Egoeran Dauden Edo Horren Arriskuan Dauden Pertsonen Laguntzeko Zubietxe Elkartea	• Martxoak «8. Zubietxen ere bai»	1.139 €
Berdintasuna Eta Giza Eskubideak Sustatzeko «Berdintzen» Elkartea	• GENERARTE: Artearen berreraikiz genero-harremanak	418 €
Berdintasuna Eta Giza Eskubideak Sustatzeko «Berdintzen» Elkartea	• «Gizonak eta emakumeak berdintasunera gerturatuz.com»	1.470 €
Bilboko Elizbarrutiko Caritas	• Boluntariora, femenino plurala?	1.680 €
Bilboko Elizbarrutiko Caritas	• Garai konpartituak	1.680 €
Euskal Herriko Bertsozale Elkartea	• Umorez hitzaldiak	577 €
Euskadi «Bosco Taldea» Federazioa	• Generoko diagnostiko parte-hartzailea	1.860 €
«Gaurkotuz», Alor Soziokulturean Etengabeko Prestakuntza Eta Laneratzea Bultzatzeko Elkartea	• «Genero-ikuspegia sartzea komunitate-garapenaren alorrean»	1.575 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBAT.
«Gehitu», Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Bisexual Eta Transexualen Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • LGTB dokumentazio-zentroa 	2.130 €
«Gehitu», Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Bisexual Eta Transexualen Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Argazkigintza lesbikoko III. lehiaketa 	870 €
«Gizon Sarea» Berdintasunaren Aldeko Gizonen Euskal Herriko Elkargunea	<ul style="list-style-type: none"> • Indarkeriaren aurkako besarkaden bideo edizioa, kopiak eta aurkezpena 	1.044 €
Mugarik Gabe, Garapenerako Lankidetzako Gobernuz Kanpoko Erakundea	<ul style="list-style-type: none"> • «Indarkeria matxistak eta haiei aurre egiteko estrategiak» izeneko jardunaldiak sistematizatu eta argitaratzea 	1.530 €
«On-Giz» Berdintasunaren Aldeko Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • «Estu-pilulak» antzerki forumaren euskal bertsioa 	1.636 €
Suspergintza Gizarte-Interbentziorako Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Suspergintza Elkartearen kontziliazio erantzukideko plana: Kontziliazioa kudeatzeko esparru komun bat prestatu eta sozializatzea 	1.770 €
Suspergintza Gizarte-Interbentziorako Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> • Interbentzioak genero-ikuspegitik lantzeko gaitzea 	1.511 €

3.8. Enpresei zuzendutako aholkularitza eta laguntza

Emakundek alor honetan egiten duen lana da sentsibilizazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzea enpresei berdintasunerako planak prestatu eta abian jar ditzaten.

3.8.1. Berdintasun-planak: Aholkularitza

Emakundek aholkularitza eskaintzen die enpresei eta beste erakunde batzuei lan-esparruetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak garatzeko berdintasunaren arloko legediari eta baliabide materialei, ekonomikoei eta pertsonalei dagokienez.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea garatzean eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientzia gero eta handiagoa denez, informazio- eta laguntza-eskaerak gora egin dutela ikusi da, ez soilik diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko garaian, baita plan horiek abian jartzeko orduan ere.

Aholkularitza eman zaie, halaber, sexu-jazarpeneko kasuak prebenitu eta tratatzeko protokoloak egin dituzten erakundeei, eta, Jaurlaritzako sailekin kontraste-lana egin ondoren, protokolo-eredu bat egin da lan-esparruan jazarpen sexuala edo sexista eta sexu arrazoiagatiko jazarpena borrokatzeko 50 langile baina gehiago dituzten enpresetan.

3.8.2. Enpresei eta erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzak

Enpresei eta erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzen deialdia berritu da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko diagnostikoak eta planak diseinatzeko laguntza teknikoak kontratatzeke dirulaguntzen deialdia, hain zuzen; ondoko hamabost enpresa hauek jaso dute dirulaguntza:

ENPRESA ETA ERAKUNDE ONURADUNEN ZERRENDA

ERAKUNDE ONURADUNAK:	Dirulaguntzaren zenbatekoa (eurotan)
ASKORA PLUS, SL	9.000,00
GAZTELEKU KOMUNITATE-GARAPENeko ELKARTEA	8.500,00
BIZKAI- ADEMBI ESKLEROSI ANITZEKO ELKARTEA	7.150,00
BILBOKO LANBERRI ELKARTEA, GAZTEEN ENPLEGUAREN SUSTAPEN SOZIALAREN ALDEKOA	6.885,00
BELLOTA AGRISOLUTIONS S.L.U.	10.000,00
BERA BERA RUGBY TALDEA	5.525,00
FORTUNA KIROL KLUBA	5.525,00
CTL-TH ENGINEERING SL UNIPERSONAL	3.250,00
BIZITZEN FUNDAZIOA	2.970,00
GOITU ERAIKUNTZAK, S.L.	7.500,00
KONFIA SERVICIOS DE CONCILIACION, S.L.	5.195,00
PREMANK (SERVICIO DE PREVENCIÓN AJENO, S.L.)	6.500,00
REZIKLETA GIZARTE EKIMENeko KOOPERATIBA	4.250,00
SERVICIOS AUXILIARES DE GESTION DE NEGOCIO, S.A.	8.000,00
SOCOSEVI SERVICIOS, S.L.	5.750,00
DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA, GUZTIRA	96.000,00

Industria-eremuko hiru enpresari, hamar zerbitzu-enpresari eta bi kirol-talderi eman zaizkie dirulaguntzak. Lurraldeei dagokionez, horietako bat Araban dago, hiru Bizkaian eta sei Gipuzkoan. Halaber, horietako bi EAeko hiru probintzietan dituzten lantegiak eta bik lantegiak dituzten EAetik kanpo. Industria-eremu enpresen ezaugarria da gizonezko langile ugari dituztela, eta hirugarren sektoreko enpresek, elkarteek eta fundazioek emakumezko gehiago izaten dituzte lanean gizonezkoak baino, eta azken kasu horietan, gainera, zerbitzuen erabiltzaile gehienak ere emakumeak izaten dira. Aurreko deialdiekin alderatuta, aurtengo berrikuntza izan da kirol-kluben eskaerak nabarmen handitu direla. Askotariko erakundeak laguntzen direla ikusita, pentsatzekoa da etorkizunean ingurune askotarikoetan berdintasun-planak abian jartzean gertatuko diren esku-hartzeak gizartean izango duten eraginak ondorio biderkatzaile garrantzitsua izango dutela, bai eskainitako zerbitzuen kalitateari eta zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzei dagokionez, bai gizonek eta emakumeek baliabide sozialak eta ekonomikoak eskuratzeko garaian desorekak murrizteari dagokionez ere.

3.8.3. Erakunde laguntzaileen jarraipena

424/1994 Dekretuak ezartzen duenari jarraiki, erakunde laguntzaileen jarraipena egin da; dekretu horrek 2010. urteari dagokion jarraipen-txostena eta 2011. urteko lan-plana ematea eskatzen du. Horrez gainera, lau erakunderen jarraipena egin da aurten, gertutik jarraitu eta jakiteko zer jarduera egiten dituzten berdintasunerako planen baitan eta argitzeko zer zailtasun dituzten eta zer lorpen erdiesten dituzten.

Bestalde, aurreko deialdietan Emakunderen dirulaguntza jaso eta justifikatu duten erakundeen jarraipena egin da, eta lanean jarraitzeko konpromisoa betetzeko eskatu zaie, erakunde laguntzaile bihurtu arte. 2011. urtean onartutako erakunde laguntzaileak 1.4.2. atalean jaso dira.

Erakunde laguntzaileen dekretuaren eguneraketa

«Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko Erakundearen» figura juridikoa sortu zuen azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuak, eta dekretu hori aldatzeko proposamen bat egin da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 41. artikularekin bat egin eta hura gara dezan. Aldaketa horren bidez, arau hura eman ondoren metatu den kudeaketa-lanaren ondorioz balioetsi diren zuzenketak sartu nahi dira egungo araubidean.

3.8.4. Aholkularitza-erakundeen homologazioa eta jarraipena

Enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko aholkularitza-erakundeak homologatzeko deialdiari buruzko informazioa eta aholkua eman zaie aholkularitza-erakundeei.

Eskaera egin duten zortzi enpresa balioetsi dira, eta zazpik lortu dute Aholkularitza Erakunde Homologatuen ziurtagiria enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko, 105/2005 Dekretuaren barsean (gerora, abenduaren 28ko 348/2010 Dekretuak aldatu du dekretu hori). Honako enpresa hauek lortu dute homologazioa:

- Silvia Muriel Gómez
- Orebe Hezkuntza, S.L.
- Euskadi Empleo, S.L.
- Fondo y Forma Consultoría Social, S.L.U.
- 97 S&F, S.L.
- Daiteke-Careers & Jobs, S.L.
- J.J Irnasa Euro, S.L.

Halaber, zortzi aholkularitza-etxe homologatuk parte hartu dute jazarpen sexual eta sexistan prestakuntza jasotzeko jardunaldian, lehen adierazitako protokoloa, 50 langile baino gehiago dituzten enpresetan sexu jazarpena eta jazarpen sexistaren aurka egiteko xedea duena (ikusi 3.5.3 atala, kanpo-prestakuntzari buruzkoa).

Azkenik, homologatutako aholkularitza-erakundeen jarraipena egin da, homologazioak eskatzen dituen baldintzak betetzen jarraitzen dutela berresteko.

3.8.5. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk

Kontratatzeko laguntzen gidaren eguneraketa

Emakumeak kontratatzeko laguntzen gida eguneratu da. Tresna horren helburua da aholkularitza ematea enpresei eta enplegua bultzatzeko erakundeei, emakumeen enplegua sustatzeko indarrean diren kontratu-modalitateen, hobarien eta laguntzen berri izan dezaten.

Soldaten arteko diferentzien ikerketa

Soldaten arteko diferentziak ikertzeko lan bat egin da: «Soldaten arteko diferentziak argituz: soldaten arteko aldeak sortzen dituzten faktoreak eta haien adierazleak zehazteko ikerketa». Izenburuak adierazten duen moduan, azterlanaren xedea da soldaten arteko diferentziak neurtzeko erabiltzen ari diren adierazle orokorrak eta partzialak zehaztu eta hautatzea eta soldata-diferentzia horien sorburuko faktoreak eta haien eragina argitzea.

Aukera-berdintasunak enpresen produktibitatean eta lehiakortasunean duen eraginari buruzko ikerlana

Azterlan horrek, alde batik, literatura ekonomikoaren berrikuspen bat egiten du, eta, bereziki, aukera-berdintasunak enpresen produktibitatean, kudeaketan eta lehiakortasunean duten eraginaren auzi orokorrari buruzko ebidentzia enpirikoak dakartzan literaturarena, eta, bestetik, egitura teoriko hori kontrastatzen du gure erkidegoan aukera-berdintasunerako erakunde laguntzailearen aitopena duten enpresa batzuek beren berdintasun-planekin lortzen dituzten emaitzekin.

Aukera-berdintasunaren bidean aurrera egiteko neurrien eraginkortasuna eta enpresen sare horren produktibitatean duten eragina neurtzeko azterketa kualitatibo hori egin ondoren, neurri horien indarguneak eta ahuleziak ikusarazi dira eta harreman hori indartu eta hobetu dezaketen jarduerak hauteman dira.

3.9. Programak Gauzatzea

3.9.1. NAHIKO

NAHIKO programa Lehen Hezkuntzarako egindako berdintasunerako, errespetu-rako eta indarkeria ezerako hezkidetza programa da. 2003an abiatu zen, Lehen Hezkuntzako 3. zikloan (10-12 urtekoak). 2010. urtean hasi zen esperimentazio-fasearekin jarraitu da 2011. urtean, eta 2012. urtean amaituko da. Fase hori Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako da; zehazki, lehen eta bigarren mailako ikasleentzat. Fase esperimental berri horretan, EAEko 29 ikastetxek parte hartu dute; guztira, 1.084 ikaslek.

Jarduera zehatz hauek egin dira programa horren baitan:

- Irakasleen trebakuntza. Hiru prestakuntza-mintegi egin dira 2010-2012 esperimentazio pilotuan parte hartu duten ikastetxeentzako eta berritzeguneetako irakasleentzat. Mintegi horietan, adituek parte hartu dute, taldeak gogoeta egin zezan garrantzi handiko gaien inguruan; hala nola, neska eta mutilen ereduaren eta erreferenteen inguruan, neska eta mutilen sentimenduen inguruan eta haien ikaskuntzaren mugen inguruan. Horrez gainera, irakasleentzako ebaluazio-mintegi bat antolatu da, orain arte egin duten lana ebaluatzeko.
- Ikasleen sentsibilizazioa. Hiru hilean behin unitate didaktiko bat lantzen da; unitateak hainbat lan-koaderno ditu ikasleentzat eta irakasleentzat, materialak eta jolas osagarriak hainbat formatutan, eta familia-koaderno bat etxean senideekin egiteko jardueretarako. 2011. urtean, bi unitate didaktiko prestatu dira Lehen Hezkuntzako lehen mailarako. Haien gaiak «sentimenduak» eta «autonomia» izan dira, eta beste unitate didaktiko bat ere prestatu da Lehen Hezkuntzako bigarren mailarako «mugak» izenekoak.
- Hiru hilean behingo saioa ikastetxe bakoitzean. Esperientzia pilotu berriaren harian eta irakasleek egiten dituzten interbentzioen bidez ikasleak sentikortzeko egiten den lana indartzeko, saio bereziak antolatzen dira ikasleekin. Zehazki, 2011. urtean, landutako bigarren unitateari, «sentimenduak» izenekoari, dago-kion tailer edo lantegia egin da. Mimo-lantegia izenburua jarri zaio, eta dinamika hauek landu dira bertan: masajea, mimoak ematea eta jasotzea eta sentimenduekin bizitzea. Horretarako, aurrez aukeratutako eta trebatutako adituak izan ditugu, eta aditu horiek eman dituzte saio berezi hauek 29 ikastetxetan.
- Familien sentsibilizazioa. Esperientzian parte hartzen duten ikasleekin esku hartzen jarraitu da ikastetxe guztietan, eta, berariaz, bi saio egin dira; bigarren hiru hilekoan bat lehen-hezkuntzako lehen mailako ikasleen familiekin, eta bestea 2011-12 ikasturteko lehen hiru hilekoan, lehen-hezkuntzako bigarren



Amparo Tomé.
NAHIKO mintegia.

mailako ikasleen familiekin. Horretarako, aurrez aukeratutako eta trebatutako adituak izan ditugu. Honako gai hauei buruzko gogoeta egin da: berdintasunik ezari buruz eta neskek eta mutikoak berdintasunean hezteko beharrari buruz nahiz unitate didaktiko bakoitzeko gai zehatzei buruz.

- NAHIKO programari buruzko 4.000 eskuorri diseinatu, prestatu eta inprimatu dira. Lehen Hezkuntzako hiru zikloetarako programa horren aurkezpen-laburpen moduko bat izan nahi dute eskuorri horiek.
- Aholkularitza eman zaie NAHIKO programa esperientzia pilotuaren baitan edo beren kabuz inplementatzen ari diren ikastetxeei.
- Horrez gainera, programa EAeko irakasleei eta Euskaditik kanpo ezagutarazteko, kongresu eta jardunaldi batzuetan parte hartu dute Emakundeko langileek, programa honen esperientzia aurkeztuz:
 - «Genero-berdintasuna eta hezkuntza» izeneko kongresua, Hezkuntza Ministerioak eta Asturiaseko Gobernuako Hezkuntza eta Unibertsitate Departamentuak antolatua. NAHIKO programa aurkeztu zen programa horretan. Berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza bultzatzeko hezkidetzaprograma.

- «La educación y la formación: motores de cambio contra la violencia de género» jardunaldia, Granadako Diputazioak antolatua. Jardunaldi horretan aurkeztu zen «Indarkeria prebenitza ikasgelan: NAHIKO Berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza bultzatzeko hezkidetzaprograma».
- NAHIKO programa aurkeztu zitzaizen Berritzeguneetako irakasle eta langileei Bilboko Berritzegune Nagusian, Hezkuntza Sailak antolatu zuen «Hezkidetz Mintegian» eta Durangoko Berritzegunean.
- Ezintasunak dituzten pertsonetako Genero Indarkeriari buruzko I. Jardunaldietan, Zuzenak fundazioak antolatutakoa. «Prebentzioa eta konponbideak» izeneko mahai-inguruan parte hartu zuen Emakundek, Gasteizen, azaroaren 9an.
- «Genero-indarkeriaren biktima diren adingabekoei emandako arreta» gaiari buruzko jardunaldiak, AIZAN elkarteak antolatuak. «Eskolan genero-indarkeria prebenitza» izeneko mahai-inguruan parte hartu zuen Emakundek, Gasteizen, azaroaren 23an.

3.9.2. GIZONDUZ

Gizonduz Emakundek bultzatutako ekimen aitzindaria eta berritzailea da. Ekimenaren helburua gizonen inplikazio handiagoa sustatzea da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde, eta haien artean masa kritikoa sortzea, adierazitako helburua lortzeko aurrerapen handiagoak egin daitezten.

Helburu hauek lortu nahi dira ekimenaren bidez:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizaturiko gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan prestatuturiko gizonen kopurua handitzea.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna handitzea.

2011. urtean, Gizonduz ekimenaren barnean, honako jarduketa hauek garatu dira:

- **Berdintasunaren aldeko gizonen arloan espezializatutako web gunearen administrazioa (www.euskadi.net/gizonduz)**. Ekimenari buruzko informazio ugari ematen



du web guneak euskari asko baliatuz, hala nola, elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, bideoak edo web-orri interesgarrietarako estekak. Gizonduz ekimenak bloga ere badu, herritarrei irekitako espazio bat izateko pentsatua, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitasun berriekin lotutako gaur egungo gaiak buruzko beren iritzia, gogoetak eta iruzkinak ager ditzaten. Webguneko atalak administratzeko eta eguneratzeko lanarekin jarraitu da.

- **Sare sozialetan parte hartzea.** Gizonduz ekimenak orri instituzional bat sortu du Facebook sarean. Orri hori sortzeko, migrazio-prozesu bat egin behar izan du lehendik zuen profiletik edukiak orri berrira eramateko. Aldiro administratu eta eguneratu da orri hori eta Gizonduz ekimenak Youtuben duen profila. Nabarmentzekoa da, halaber, Sare Soziales Erabilerako eta Estiloko Eusko Jaurlaritzaren Gida aurkezteko ekitaldira gonbidatua izan zela. Gobernu Irekiko eta Interneteko Komunikazioko Zuzendaritzak eta Herritarren Arretarako Zuzendaritzak antolatu zuten ekitaldi hori, eta gonbidapen hori jaso zen Gizonduz ekimenaren baitan egin den lana ezagutarazteko. Izan ere, Gizonduz ekimena izan da Facebook sare sozialean laguntasun gehien bildu dituen Eusko Jaurlaritzako orria, 4.585 laguntasun jaso baititu guztira.
- **Aitei zuzendutako Gizonduz bizkar-zorroaren banaketa.** Bizkar-zorroak banatzeko ekimena 2008. urtean hasi zen eta 2011. urtean amaitu da. Bizkar-zorro horretan zainketaekin eta aitasunarekin lotutako gaiak buruzko jarraibideak

emateko sentsibilizazio-materialak jaso dira, bai eta aitaren irudiak balio ez sexistak transmititzeko orduan duen eraginari buruz hausnartzeko xedea dutenak ere. Zehazki, material horiek Euskadiko Kutzaren laguntzarekin egin dira, eta honako hauek dira: «Aitak» dokumentala, «Aitaren sekretua» ipuina, «Aitak berdintasunean» gida, «Gizonak, berdintasuna eta maskulinitasun berriak», «Berdinometroa» jolasa, autoan jartzeko eranskailu bat eta Gizonduz egunkaria.

- **Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa.** 2011ko martxoan jarri zen abian programa honen hirugarren edizioa; hainbat ikastarok osatu dute, batzuk aurrez aurrekoak eta beste batzuk Internet bidezkoak. Ikastaroak doakoak dira, eskaintza zabala eta askotarikoa da, eta egokigarritasuna eta malgutasuna dituzte ezaugarri. Bi ikastaromota daude: programatutakoak, hau da, ikastaroaren alderdi nagusiak (edukiak, ezaugarriak, egutegia, non eta zein hizkuntzatan egingo den, etab.) aurrez zehaztuta dituztenak; eta programatu gabek edo «kartara» egindakoak, eskaintzaren arabera antolatzen direnak bai iraupenari eta edukiei dagokienez eta bai egiten diren tokiari eta zuzentzen zaien pertsonari dagokienez ere. Emakumeek ere har dezakete parte ikastaro horietan, baina bereziki gizonetzkoen zuzendutako ikastaroak dira, bakarka edo taldean, interes pertsonalak bultzatuta eta/edo ikuspegi profesionaletik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen sakonago ezagutu nahi dutenei, hain zuzen ere. Alde horretatik, gizonen balio eta jarrerekin, berdintasunarekin eta maskulinitasunarekin lotutako gaiak lantzen dira, eta hainbat gai aztertzen dira, hala nola osasuna, zainketa, aitatasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen aurkako indarkeria, drogamendekotasunen prebentzioa, kriminalitatea, etab. 2011n, online egindako 2 ikastaroz gain (bat 8 ordukoa eta bestea 60 ordukoa), aurrez aurreko 70 ikastaro eman dira. Ikastaro horietan 821 gizonak eta 638 emakumeek parte hartu dute.
- **«Gazteak Berdintasunean 2.0» proiektuaren prestaketa.** EJIE, SA sozietate publikoarekin lankidetzan, Gazteak Berdintasunean 2.0. izeneko proiektua diseinatu eta haren alderdi teknikoak zehaztu dira. Proiektuaren xedea da nerabe eta gazteen kontzientziazioa eta inplikazioa bultzatzea, eta, bereziki, gizonetzkoena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egin dezaten eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra. Horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak baliatuko dira, teknologia berrietan oinarritutakoak. Proiektua 2012. urtean ezartzea aurreikusten da, eta 3 plataforma izango ditu:
 - Informazio-web edo «erakustoki» bat, proiektuaren garapenari eta faseei nahiz proiektuan lanean ari diren erakundeei buruzko informazioa emango duena.
 - Online egin daitekeen abentura grafiko bat (bideojoko bat), erabiltzaileei egoera-aukera batzuk emango diena, froga jakin batzuk egin eta erabakitzeke, hau da, zenbait aukera hautatu ahal izango dituzten egoera sexista, homofobo, bortxazko eta antzekoen artean.
 - Komunitate birtual bat, partaidetzarako eremuak sortu eta nerabeen arteko komunikazioa indartuko duena.

- **Berariaz berdintasunari buruzkoak diren unibertsitate-mailako masterra eta graduondokoen, IVAPen ikastaroen eta Berdintasuneko Foroaren zabalkundea.** Gizonek prestakuntzako eta sentsibilizazioko jarduera horietan parte har dezaten errazteko, Gizonduz ekimenak duten aldizkari elektronikoaren bidez eta webgurenearen bidez egin da haien publizitatea.
- **«Gizonduz ekimenaren 2007-2010 jarduera-memoria» argitaratzea.** Argitalpen digital honek zehatz-mehatz aztertzen ditu Gizonduz ekimenak hura abian jarri zenetik egin diren jarduerak eta zer-nolako betetze-maila izan duten hark bultzatutako neurri eta helburuek.
- **«Maskulinitateak eta berdintasuna: jakintza alor anitzeko azterketa» argitaratzea.** Argitalpen digital honek helburutzat dituen pertsonak dira ikuspegi pertsonal edo profesional batetik gizonen balioetan eta portaeretan sakondu nahi dutenak, berdintasunari eta maskulinitateei buruz gehiago jakin nahi dutenak, eta alor ugari hauei buruzko jakintza handitu nahi dutenak: osasuna, zaintza, giza eskubideak, indarkeria maskulinoak, emakumeen aurkako indarkeria, bide-segurtasuna edo toxikomanien eta kriminalitatearen prebentzioa.
- **Sentsibilizatzeko beste jarduera batzuk.** Ekimena ezagutarazteko asmoari jarraituz, komunikabide ugarian izan ditu agerpenak Emakundek eta sentsibilizazio-jarduera ugarian parte hartu du, hala nola:
 - Maskulinitate eta Ekitateari buruzko Kongresu Iberoamerikarrean parte hartu du Emakundek. Homes Igualitaris-Ahige Catalunya elkarteak antolatu zuen kongresua, Bartzelonan.
 - «Gizonak berdintasun-garaietan» jardunaldia antolatzen eta gizarte- eta erakunde-ekimenen mahai-inguruan parte hartu zuen Emakundek. Deustu-San Ignazio Modulu Psikosozialak antolatu zuen jardunaldia, Bilbon.
 - Kontziliazioari eta erantzukidetasunari buruzko lan-mahaian parte hartu zuen erakundek, Genero Berdintasuna Eraikiz Jardunaldiaren baitan. Bizkaiko Batzar Orokorrek, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta Bilbao Bizkaia Kutxak antolatu zuen jardunaldia, Bilbon.
 - «Gizonezkoen rola genero berdintasunaren alorrean» hitzaldia, Gautegiz-Arteagako Udalak antolatua.
 - «Gizonen inplikazioa eta partaidetza lortzeko estrategiak» hitzaldia, «Genero Berdintasuneko Politika Publikoen II. Kongresua 2011» ekitaldian. Kantabriako Gobernuak Emakumearen Idazkaritza Nagusiak antolatu zuen hitzaldia, Santanderren.



3.10. Aholkularitza juridikoa

Emakundeko Aholkularitza Juridikoak Emakunderi esleitutako funtzioetan parte hartu du, eta hainbat gairen barneko eta kanpoko izapideak egin ditu, bereziki dirulaguntzen eta hitzarmenen izapideak, eta, bestalde, arau juridikoak egiteko prozeduran nahiz aplikagarri den araudiaren berrikuspenean, jarraipenean eta eguneratzean ere parte hartu du. Halaber, partikularrei eta Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta EAEko udaletako sailei aholkularitza juridikoa eskaini die Emakunderen jarduketa-eremu berezikien lotutako gaietan.

Zehazki, honako hauek izan dira aholkularitza juridikoko funtzioak:

- Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, aldatzeko (IV. titulua: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea) lege-aurreproiektua prestatzea eta tramitatzea.
- Uztailaren 26ko 174/2011 Dekretua, Berdintasunerako Emakunde Saria sortu eta arautzeko Dekretua arautzekoa, prestatu eta tramitatzea.
- Azaroaren 8ko 424/1994 Dekretua «Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzeko Erakundearen» figura juridikoa sortu zuena aldatzeko proiektua prestatu eta tramitatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 41. artikulua bete eta hura garatzeko.
- BEGIRA Publizitatearen eta komunikazioaren erabilera ez-sexista egiteko aholku-batzordearen araupeneko eta funtzionamenduko Dekretua prestatu eta tramitatzea.
- Genero berdintasunerako eta emakumearen ahalduntzerako NBEko erakundearekin (NBE-Emakumeak) elkar ulermenerako memoranduma idaztea, estrategia integral bat lantzeko berdintasunaren, emakumeen partaidetza soziopolitikoaren eta ahalduntzearen alde, Hegoaldeko Amerikan.
- 4/2005 Legeko 21. artikuluan ezarritakoa betez, generoaren eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio-txostenak egitea.
- Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta tokiko erakundeetako sailletako berdintasun-planetak txostenak egitea, 4/2005 Legeko 15. artikulua betez.
- Txostenak egitea eta ebazpen-proiektuak prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza tekniko emango duten erakunde laguntzailleen aitorpena eta errebokazioa arautzeko.
- Txostenak egitea eta ebazpen-proiektuak prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean aholkularitza emango duten erakundeen homologazioaren alorrean, eta, beharrezkoa denean, haien errebokazioa arautzeko.
- Txostenak eta ebazpenak prestatzea Emakunderen kontratazioen alorrean eta erakundearen kontratazio-mahaietan parte hartzea.

- Emakundek lehia-bidez ematen dituen dirulaguntzen deialdiak, emakidak eta bestelako intzidentziak (minorazioak, itzulerak, etab.) ebazteko proiektuak tramitatzea:
 - emakumeen elkarteak sustatzeko dirulaguntzenak.
 - EAEn emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten elkarte misto eta gizonen elkarteei emandako dirulaguntzenak.
 - udalei eta bestelako toki-erakundeei emandako dirulaguntzenak.
 - aholkularitza-etxe homologatuak kontratatzeke enpresei eta erakunde pribatuei ematen zaizkien dirulaguntzenak.
 - ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzenak.
 - ikerketa-lanak argitaratzeko dirulaguntzenak.
 - familietan esku hartzeko masterrak eta babesgabe eta/edo gizarte-gatazkako egoeraren batean dauden adingabekoen kasuetan esku hartzeko eta bitartekari-lanak egiteko masterrak egiteko dirulaguntzenak.
- Dirulaguntza izendun eta zuenak ematea erakunde hauei:
 - Emakumeei buruzko Dokumentazioaren Maite Albiz Zentroari, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko dokumentu-funtsak eskuratu, kudeatu, digitalizatu eta zabaltzeko, eta Dokumentazio Zentro horren web-orriaren bidez zabaltzeko Emakundek sortzen duten interes orokorreko informazioa.
 - Euskal Herriko Unibertsitateari, «Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko on line Masterra» irakasteagatik 2011-2012 ikasturtean.
 - Distinto Films ekoiztetxeari, telebistarako «Clara Campoamor. La mujer olvidada» izeneko filma egin, ekoitzi eta banatzeko. Laura Mañá izan zen filmaren zuzendaria.
 - Lamia Producciones Audiovisuales, S.L. sozietateari, Helena Tabernaren «Nagore» filma dokumentala egin, ekoitzi eta banatzeko.
 - EHUko udako ikastaroen fundazioari, «Krisi ekonomikoa: analisisa eta aukerak genero-ikuspegitik» ikastaroa eman zezan.
 - Euskadiko Udalen EUDEL Elkarteari, udalerrri txikietan berdintasun-politikak dinamizatzeko eta alor horri buruzko aholkularitza emateko zerbitzua gartzten laguntzeko eta Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Berdinsarea euskal udalerrien sarea lantzeko.
 - Argiri emakume-elkarteari, Irungo alarde mistoa antolatzeko.
- Emakunde 2011 Saria deitzeko eta ebazteko tramitazioa egitea.
- Emakume nekazarien Estatutua prestatzeko Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak deitutako bileretan parte hartzea.
- Egoera pertsonalei buruzko alderdi partikularrei arreta eskaintzea eta bideratzea, bai laneko eta familiako bizitza uztartzeari dagokionez, bai lanarekin, gizarte-segurantzarekin, gizarte-zerbitzuekin, laguntza juridikoarekin, banantzeekin, deuseztatzeekin eta dibortzioekin lotutako gaiei dagokienez ere.

3.11. Azterketak, ikerketak, argitalpenak

Azken urteotan aurrerapen nabarmenak egin dira emakumeen eta gizonen artean zer diferentzia dauden jakiteko adierazleetan, hau da, erakundeek diferentzia horiei buruz egiten dituzten estatistika-eragiketetan eta azterlanetan. Hala ere, Berdintasunerako V. Planari ekiteko lehentasunak ezartzeko egoera-diagnostikoak prestatzeko prozesuan, agerian geratu zen lan-ildo horretan sakondu beharra dagoela oraindik. Estatistikak eta azterlanak eskura izan behar dira, gizarte-egoerak ondo ezagutzeko, genero-harremanak aztertzeke eta harreman horiek gizonen eta emakumeen artean bizi diren desberdintasun-egoeretan duten eragina aztertzeke; izan ere, behar-beharrezkoa da tresna horiek izatea desberdintasunak zuzentzeko politikak diseinatu eta gauzatzeko eta desberdintasuneko egoera eta forma berri batzuk hauteman eta prebenitzeko.

Estatistikek eta azterlanek aukera eman behar dute, halaber, beharizan bereziak dituzten kolektiboek bizi dituzten desberdintasun-egoerak ezagutzeko, eta, bereziki, diskriminazio anitzeko egoerak edo egoera hori pairatzeko arriskua dakarten eremuak ezagutzeko. Hori horrela, adierazleak zehaztu eta lortzeko helburua ezarri du V. Planak, plana bera egiteko prozesuan hauteman diren jakintza-premiak esaltzeko. Hautemandako premia horiek emakumeen autonomia pertsonalarekin eta balioak aldatzeko premiekin dute zerikusia.

Zenbait jarduera osagarrik gizarte-errealitatea hobeto ezagutzen laguntzen dute; hala nola, Emakunde berak egindako argitalpenak, ikerlanak argitaratzeko dirulaguntzen ikerketak egiteko beken deialdiak; dokumentazio-zentroa mantentzea eta kudeatzea, aukera ematen baitu ikasteko eta ikertzeko aholkularitza nahiz bitartekoak emateko bai Emakundeko eta herri-administrazio guztietako langileriar berari, bai beste esparru batzuetan –unibertsitateetan eta abar– ikerketan dihardutenei.

3.11.1. Azterlanak

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko kopuruak

Erakundea sortzeko 2/1988 Legeak EAEko emakumeek duten egoeraz urtero txosten bat egiteko betebeharra ezartzen du. Horrela, bada, txosten honen xede nagusia da garrantziaren arabera hautatutako datu-multzoak herri administrazioen eta gizarte-erakundeen eta -eragileen esku jartzea, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruzko ikuspegia eskaintzeko eta, hartara, programa publikoak diseinatzea eta planifikatzea errazteko. Bestalde, herritarrak informatzeko eta sentiberatzeko bokazioa ere badu.

Txostenean jaso ditugun adierazleak etengabe eguneratzen direnez, egungo gizartearen izaera deskribatzeaz gainera, txostena baliagarria da denboraren joanean izandako aldaketa-prozesuen berri hobeto jakiten laguntzeko ere. «Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak, 2010» txostenaren ildoari jarraitzen dio Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko 2011 txostenak, txostenaren urteak ez baitio erreferentzia egiten diagnostikatutako urteari, bildutako datuak lantzen emandako urteari baizik. Beraz, denbora-tarte horretarako, 2011rako, argitaratutako azken datuak biltzen ditu. Bestalde, txostenean uztartu egin dira ohiko adierazle-sistemaren ordena (biztanleria, hezkuntza, lana, etab.), alde batetik, eta bestetik, berriz, IX. Legealdirako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean bildutako neurrien arloz arloko antolaketa. Horrela, bada, arlo nagusi hauek biltzen dira: panoramika demografikoa, emakumeak ahalduntzea eta balio-aldaketa hiru alderditan, baliabide ekonomikoak eskuratzea eta kontrolatzea, gizarte-baliabideak eskuratzea eta kontrolatzea, eta parte-hartze soziopolitikoa eta eragina, erantzunkidetasunean oinarritutako gizarte-antolamendua eta emakumeen aurkako indarkeria.

Txostena egiteko erabili dugun metodologia aurreko urteetako adierazle nagusiak eguneratzean oinarritzen da, bilakaera nolakoa izan den erakusteko; baina, aldi berean, arlo bakoitzeko adierazle garrantzitsu berriak ere erantsi ditugu. Horrenbestez, txosten honetan ahalegin berezia egin da Euskadiko biztanleria osatzen duten pertsonen jatorria adierazteko, arreta berezia jartzeko Euskadiko emakume eta gizon atzeritarren egoeran. Horrez gain, aurreko datu-base eguneratu gabeen zenbait alderdi (denboraren erabilera sozialari buruzko inkestakoak, bizi-baldintzei buruzko inkestakoak eta errenta pertsonalaren eta familiako errentaren estatistikakoak, guztiak ere Eustatek eginak) zehazten ahalegindu gara, lurralde historikoetako egoeraren arteko alderaketa eginez.

Txostenak biltzen duen informazioa hainbat erakundek eskainitako bigarren mailako iturrietatik dator: Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT); Estatistikako Institutu Nazionala (INE); , Eusko Jaurlaritzako zenbait sailek gai jakin batzuei buruz egindako azterketa sakonak, eta Osakidetza eta Lanbideren erabiltzaileen estatistikak.

Ahalduntzea eta adineko emakumeak EAEn

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren helburu estrategikoetako bat da emakumeen autonomia handitzen eta emakumeek genero-kontzientzia har dezaten laguntzea da. Helburu estrategiko horren xede zehatza da emakumeen ahalduntze pertsonala handitzea, hau da, eskubide indibidualak ezagutu eta pertsonaren balioa eta autoestimua aitortzeko prozesua egitea. Prozesu hori egiteko, genero-sozializazioaren dekonstrukzioa gertatu behar da neurri batean, eta, ondorioz, emakumeek bizi duten diskriminazioko eta desberdintasuneko egoeraren kontzientzia hartu behar da.

EAEko biztanleen ahalduntze-prozesuak sakonago ezagutzeko eta haien eboluzioaren jarraipena egiteko adierazleak eskuratzeko, nerabeen kolektiboaz azter-

tzeko lan bat egin zuen Emakundek 2008. urtean. Aurten, 65 urtetik gorako emakumeen kolektiboa aztertu du.

Beste adin-tarte batzuetako kolektiboak aztertzeko aukera bazegoen ere, kolektibo hau aztertzea erabaki da, pentsatzen delako, alde batetik, diskriminazio anitza eragiten duen arrazoia izan daitekeela adina –V. Planak aldagai hori adierazten du kezka dakarren eremuen artean– adineko emakumeen kolektiboan, eta, bestetik, adineko pertsonen kolektiboak gero eta garrantzi eta interes handiagoa biltzen ari delako –zahartze-prozesua erronka demografikoetako bat da, zalantzarik gabe, Euskadin–. Adierazitako garrantzi hori indartu egin da 2012. urtea Zahartze aktiboaren eta belaunaldien arteko elkertasunaren urte europarra izango dela erabaki duelako Europako Batzordeak.

Adierazi beharrekoa da, halaber, ikuspuntu enpiriko edo aplikatua hartuz gero, ikerketa hau berritzailea dela, bai gaiari dagokionez, bai erabiltzen duen metodologiari dagokionez. Ahalduntzearen eta adineko emakumeen arteko harremanak zuzenean eta adierazle kuantitatiboen bidez ikertu nahi duen lehengo lanetako bat da; izan ere, harreman horiek zeharka edo sistematizatorik gabe aztertu izan dituzte orain arteko azterlan gutxi batzuek.

EAEko familietan genero-rolen banaketari atxikita dauden gizarte-balioak eta irudiak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren beste helburu estrategikoetako bat da balioen aldaketa sustatu eta sexuen araberako gizarte-rolak eta estereotipoak desagerraraztea. Egiaz, portaerak aldatu behar dira berdintasuna izango bada, bai jardun-alor publikoan, bai jardun-alor pribatuan, bai banaka, bai kolektibo gisa. Baina ez da aldaketarik izango, baldin eta ez bada balio, jarrera eta iritzirik aldatzen, eta ez badira subkontzientean eragina duten estereotipoak aldatzen, azken horiek isla garbia baitute sexuei eremu publikoan eta pribatuan esleitzen zaizkien roletan.

Oro har, kontzientzia kolektiboan, lan-munduan esleitutako roletan eta etxean esleitutako roletan egin behar da balio-aldaketa hori, eta balioak aldatzeko lan egin behar da herritarrak informatu eta sentikortzeko, egoeraz jabetzen diren pertsonen kopurua handitzeko, eta berdintasunaren alde maila guztietan eta adin guztietako pertsonekin lan egiten duten pertsonen kopurua handitzeko.

Gure gizarte-errealitatea ezagutu eta haren bilakaera jakiteko bidean aurre egiteko egin da azterlan hau, eta, horretarako, genero-ikuspegitik aztertu ditu familietan izaten diren genero-rolen banaketarekin lotutako balioak, esanahiak eta irudiak. Lan horren baitan, konbinatu egin dira Europako Inkestak EAEn eman dituen datu kuantitatiboen azterketa eta ikerlan honetarako berariaz egin den azterlan kualitatiboa.

Emakume immigrante atzerritarak EAEn

Adierazleak hobetzeko ildoan sakontzeko eta V. Planak diskriminazio anitzeko arriskuan dauden kolektiboen egoera eta ekarpenen alorrean hautematen dituen beharrianetako bati erantzuteko, EAEn dauden emakume immigranteei buruzko azterlan kuantitatibo bat egin da. Planak berak ematen dituen gomendioak betetz, kolektibo horretako emakumei buruzko ezagutzan sakontzen du azterlanak, baina ez soilik baliabideen eta beharrianen «eskatzaile» diren aldetik, aintzat hartu baita, halaber, gure gizarteko eragile eta protagonista giltzarri direla.

Gero eta agerikoa da azken hamarkadetan emakumeek izaten duten garrantzi handia migrazio-proiektuei ekiteko garaian, eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan, azken hamar urteetan bertan finkatu diren pertsonen erdia emakumezkoak dira. Emakume horien egoera eta ezaugarrien –ezaugarri demografikoen, ekonomikoen, lan-arlokoen, administratiboen, gizarte-harremanen eta gizarte-ongizateaz duten pertzepzio subjektiboaren– deskribapen zehatza egin da alde batetik, eta, bestetik, emakumeen errealitatea eta gure gizartean integratzeko prozesuak kokatu eta ulertzeko giltzarriak diren eremuak aztertu dira. Azterlanak alderdi ekonomikoak, ahalduzko-prozesuak, alderdi ekonomikoak eta lan-alderdiak aztertu ditu.

3.11.2. Dirulaguntzen eta beken deialdiak

Genero-ikuspegidun ikerketak eta ikerketarako prestakuntza sustatzeko, laguntza ekonomikoen bi ildo ditu Emakundek. Alde batetik, ikerketa-lanak argitaratzeko dirulaguntzak ematen ditu, eta, bestetik, ikerketa-lanak egiteko beka ematen ditu.

2010eko abenduan deitu zen 2011ko dirulaguntzen deialdia. Lanak argitaratzeko 8 proiektu aurkeztu ziren deialdira, eta haiek aztertu eta ebaluatu ondoren, laguntza hauek eman ziren:

ESKATZAILEA	PROIEKTUREN IZENA	ZENBATEKOA
EHU <i>Egileak:</i> Ana Isabel Pérez, Eva Jiménez, Ander León, Izaskun Orbegozo, Laura Pego, Laura Vozmediano, José Luis de la Cuesta eta Francisco Etxeberria	Gerra Zibilean eta gerra amaitu ondoren Saturrarango espetxean preso izan ziren emakumeen egoera espetxeratze-garaian. Haien memoria berreskuratzen.	10.100,00 €
Deustuko Unibertsitatea <i>Egilea:</i> Raquel Royo.	Amatasuna, aitasuna eta kontziliazioa EAEn. Emakumeen lana al da familiako lana?	4.934,00 €
EHU <i>Egilea:</i> M ^a Pilar Aristizabal.	Generoaren Trataera Ikasleen Formazioan.	3.991,68 €

2010 eta 2011 urteetan eman diren dirulaguntzen erabilera justifikatzeko agiriak eta memoriak aztertu ondoren, emaitzak egokiak izan dira. Aurkeztu ziren proiektuetan adierazten zen moduan egin dira diruz lagundutako argitalpenak eta haien banaketa, eta gastuen justifikazioa behar bezalakoa izan da. 2010. urteko dirulaguntzetako diru guztia gastatu dela justifikatu da, eta 2011. urtean, kasuren batean, emandako dirulaguntzari murrizketaren bat egin behar izan zaio, ez delako behar bezala justifikatu egindako gastua; hala ere, murrizketa hori %5ekoa baino txikiagoa izan da.

Ikerketa-lanak egiteko beken deialdia 2010eko abenduan argitaratu zen, eta bertan adierazten zen beka bakoitza 23.333 eurokoa izango zela, 10 hileko lana egiteko. Hauek izan behar zuten ikerketen xedeak deitutako hiru beka-motatan: 1. motako bekan: aztertzea enpresa-kulturaren zer faktore diren berdintasunarentzat onuragarri; 2. motako bekan: aztertzea diskriminazio anitzeko arriskuan dauden emakumeen kolektiboen bizi dituzten egoerak eta desberdintasunak, eta, bereziki, desberdintasun horiek aztertzea gizarte-baliabide ekonomikoak eskuratzeko garaian eta segurtasunaren esparruan, eta 3. motako bekan: aztertzea emakumeen edo emakumeen taldeen presentzia eta haiek identifikatzea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore kultural eta/edo artistikoan egiten diren prestakuntzako, sorkuntzako, banaketako eta berrikuntzako jardueretan.

Guztira 5 eskaera egin ziren 1. motako bekarako, 9 aurkeztu ziren 2. motako bekarako eta 7 aurkeztu ziren 3. motako bekarako. Eskaera hauetan eskatzailea, batean izan ezik, emakumezkoa izan da. Balorazioak eta elkarrizketan egin ondoren, hiru beka eman ziren eta hain jarraipena egin zen, berariaz ezarritako bilera-egutegi bat betez. Hauek izan ziren emandako beken gaiak:

1 MOTAKO BEKA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
Egileak: Izaskun Merodio eta Silvia Muriel.	Ekintza parte-hartzailea ikerketa. Enpresa-ikuspegi berriak. Bide berriak berdintasunerantz.	23.333 €
2. MOTAKO BEKA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
Egileak: Edurne Bengoechea, Miren Arbelaz, Alma Mejjome, María Ruiz, Laura Vara.	Emakume preso-ohiak, urrakortasuna eta autonomia	23.333 €
3. MOTAKO BEKA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
Egilea: Pilar Alvarez.	Gizarte-mugimenduak, genero-harremanak eta kultura. EAEko gaztetxeen kasua.	23.333 €

3.11.3. Argitalpenak

Argitalpen hauek egin dira 2011n:

«**Emakunderen 2010eko Memoria**»

1000 ale paperean, argitalpen elebiduna.
Euskarri digitala –elebiduna- Emakundeko web orrian.

«**Enpresako eta enplegu-alorreko hizkeraren gida**»

5.000 ale paperean.
Euskarri digitala Emakundeko web orrian.

«**Laneko jazarpen sexual eta sexistaren aurkako protokoloa**»



5.000 ale paperean, argitalpen elebiduna.
Euskarri digitala –elebiduna- Emakundeko web orrian.

«**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen ebaluazioa**»

600 ale paperean, argitalpen elebiduna.
Euskarri digitala –elebiduna- Emakundeko web orrian.

«**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren ebaluazioa**»

600 ale paperean, argitalpen elebiduna.
Euskarri digitala –elebiduna- Emakundeko web orrian.





«**Berdintasun-politikek sortutako gizarte-kapitala**»

600 ale paperean, argitalpen elebiduna.

Euskarri digitala –elebiduna- Emakundeko web orrian.

«**2010eko Zifrak**»

600 ale paperean, argitalpen elebiduna.

Euskarri digitala –elebiduna- Emakundeko web orrian.

«**Martxoaren 3ko 2/2010 Legeari buruzko informazioa, sexu eta ugaltzeko osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko legea**».

15.000 ale elebidun.

Euskarri digitala –elebiduna- Emakundeko web orrian.

«**Enpresetan eta entitate pribatuetan berdintasuneko diagnostikoak eta berdintasunerako planak egiteko metodologia-gida**»

Euskarri digitala –elebiduna- Emakundeko web orrian.

«**Ezintasuna duten Europar Batasuneko Emakume eta Nesken Eskubideei buruzko 2. Manifestua: tresna bat aktibista eta eragile politikoentzat**».

Euskarri digitala –elebiduna- Emakundeko web orrian.

3.11.4. DOKUMENTAZIO-ZENTROA

Emakunderen dokumentazio-zentroak ohiko kudeaketa eta mantentze-lanak egin ditu: funtsak eskuratzea, katalogazioa eta indexatzea, aldizkarien harpidetzak kontrolatu eta horietatik artikulua hustea, etab. Horiez gain, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuetako erabiltzaileei arreta eskaintzearen inguruko lanak ere egin dira:

- Informazio-eskariei erantzun zaie gutunez, faxez, posta elektronikoz, telefonoz edo zuzenean.
- Aholkularitza bibliografikoa eskaini da eta zerrenda bibliografikoak eta bideografikoak egin dira eskaerak jaso ahala, bai Emakundeko langileentzat, bai kanpoko erabiltzaileentzat.
- Gai jakinei buruzko prentsako albisteak hautatu dira.
- Liburu, bideo eta abarren maileguak egin dira.

Txosten honek aztertzen duen urtean, 2011n, berritasuna izan da dokumentazio-zentroaren kokapena aldatu egin dela, Emakunderen egoitzako 3. solairutik beheko solairura. Aldaketa horrekin, zentroak hobetu egin du ematen duen zerbitzua eta hobetu egin dira zentroko materialen kontserbazio-baldintzak.

Bere jarduera normalean, Emakundeko langileen eskaerei ere erantzun die zentroak, eta, horrez gain, 2011n 285 kontsulta egin dira (110 liburu eta ikus-entzunezko 75 dokumentu -DVD, CD-ROM- mailegatu dira); kanpoko 265 kontsulta jaso dira, eta horietatik %20 (55 eskaera) beste autonomia-erkidego batzuetatik iritsi dira.

Barne-kontsultek beherakada apal bat izan dute, %8koa, 2010ean egin ziren barne-kontsultekiko. Kontsulta guztietan eman da jaitsiera txiki hori, barnekoetan zein kanpokoetan, baina ez da halakorik gertatu mailegatutako materialean, zertxobait igo baita mailegatu diren liburuen kopurua (2010: 96 liburu; 2011: 110 liburu). Mailegatutako liburuen kopuruaz gain, handitu egin da ikus-entzunezko materialaren (DVDak eta CD-ROMak) mailegua, kasu askotan bideoa eta liburuak ordezkatu baitituzte material horiek (2010: 55; 2011:75). Horrez gain, nabarmentzekoa da gero eta kontsulta gehiago egiten direla eta gero eta agiri elektronikoz gehiago (Zentroan bertan gordetzen diren pdf-ak edo sarean kontsultatzen diren baliabi-deak) eskatzen eta bidaltzen direla posta elektronikoz eta antzeko bideak erabiliz. Kanpoko kontsultei dagokienez, erantzundako eskaeren artetik 6 beste herrialde batzuetatik iritsi dira. Zerbitzua eskatzeko moduek izan duten bilakaeraren adibide moduan, adierazgarria da ikustea ez dela fax-bidezko eskaerarik egin iaz, ez baitzen dokumenturik edo bestelako gauzarik eskatu bide horretatik.

Posta elektronikoen bidez egin dira eskaera guztien %77, eta kontsulta-bide horrek igoera txiki bat izan du 2010. urtearekiko (%75). Kanporako maileguei dagokienez, 104 liburu eta 20 CD edo DVD mailegatu dira. Nabarmen igo da mai-



Dokumentazio-
zentroa.

legatutako liburuen kopurua, baina ez da horrelako igoerarik izan ikus-entzunezko dokumentuetan, horien mailegu-kopurua jaitsi egin baita zertxobait. Kontsultak egiteko posta elektronikoaren bideak izan duen igoera nabarmenari lotuta, adierazi behar da gero eta gehiago direla dokumentu elektronikoak bidalita erantzuten diren eskaerak (monografiak, artikulua eta PDF edo Word formatuko dokumentuak). Gehienak Emakundek paperean argitaratutako dokumentuak dira, baina agortuta daude edota formatu horretan bakarrik argitaratuta daude. Aretoan edo zuzenean egindako kontsultak apur bat jaitsi dira 2010. urtearekin alderatuta (2010ean kontsulta guztien %18 izan ziren, eta 2011n %16). Laburbilduta, posta elektroniko tresna nagusi gisa sendotu da, bai kontsultetarako, bai dokumentazioa lortzeko. Aldiz, jaitsi egin dira aretoko kontsultak eta dokumentazioa paperean eskuratzeko eskaerak. Kanpoko kontsulten beherakada 2003. urtetik ari zen gertatzen, eta 2006an eta 2008an gertatu ziren beherakada handienak. Beherakada horren arrazoa dokumentu elektroniko gero eta gehiago daudela da, bai Emakunderen web-orrian (lehen maileguan ematen ziren dokumentuak edo argitalpenak orain web-orrialdetik jaitsi daitezke), bai Dokumentazio Zentroko gure katalogoan (barneko eta kanpoko argitalpenak, etab.).

Telefono bidez 606 kontsultari erantzun diegu 2011. urtean; kopuru hori 2010ekoa baino apur bat txikiagoa da, urte horretan 762 kontsultari erantzun baitzitzairen. Telefono-bidezko kontsulten kopuruak behera egin du, azken urteetako joerari jarraituz. Horren arrazoa da erabiltzaileek geroz eta gehiago erabiltzen dutela Emakunde-

ren web-orria interesatzen zaien informazioa topatzeko, horrela jokatuta ez baitute Emakundera jo behar agiriren edo informazio jakinen bati buruz galdetzeko. Kontsulta horien banaketa irregularra da urtean zehar, baina, aurreko urteetan bezalaxe, oso esanguratsua izan da: maiatzean, azaroan, martxoan eta abenduan egin dira telefono-bidezko kontsulta gehien. Azaroan eta abenduan izan dira kontsulta gehien, eta horrek adierazten du gero eta garrantzi handiagoa eta gizarte-proiektzio handiagoa hartzen ari dela azaroaren 25eko eguna, hau da, Emakumearen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Eguna. Martxoan ere telefono-bidezko kontsulta ugari egiten dira, martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna baita. Otsaila ere hil adierazgarria izan zen, telefono-bidezko kontsulta ugari egin baitzituzten unibertsitate-ikasleek.

Liburutegiko datu-basean 940 erreferentzia dokumental berri sartu dira 2011n (%30 monografiak dira eta %50etik gora artikulua, dokumentuak, etab.). Nabarmentzekoa da, halaber, erreferentzia dokumental berrien %20 euskarri digitalean daudela (DVD). Emakundek ekoiztutako ikus-entzunezko dokumentuetako asko digitalizatzeko edo formatuz aldatzeko prozesuarekin jarraitu da, bideo formatutik (VHS) formatu digitalera (DVD) igartzeko. BRS programatik bibliografia kudeatzeko Absys-era migratzeko lanak amaitu ondoren, zentroaren aldizkako argitalpenen azterketak, oraindik datu-baseetan sartu gabe zeudenak, datu-basean sartzeko lana egin zen, eta, ondorioz, 2010. urtean eguneratu egin ziren zentroak oraindik hustu gabe zituen edukiak. 2011. urtean, aldizkako argitalpenen edukia datu-baseetan sartzeko eta artikuluan haietan husteko lanarekin jarraitu da, eta, ondorioz, erregistroen eguneratzea hobea denez, erabiltzaileek lehen baino gehiago eskuratzen dituzte zentroko materialak.

Katalogatutako materialen erreferentziekin hilero «Kaleratu Berrien Buletinak» prestatu dira, eta barnean (Emakundeko langile teknikoei) nahiz kanpoan (eskatzen duten dokumentazio zentroei) banatzen dira, posta elektronikoaren bidez. Eusko Jaurlaritzako sailetako berdintasun-unitateek ere jasotzen dute buletin hori 2010. urtetik aurrera.

Bestalde, Dokumentazio Zentroak «Emakunde» hiruhileko aldizkaria egiten parte hartu du, eta duela gutxi argitaratutako eta aldizkariko «Liburuak» ataleko Dokumentazio Zentroak erositako liburuak edo dokumentuak proposatzen dira aldizkarian.

Estatuko beste dokumentazio-zentroekin elkarlanean aritzeari dagokionez, nabarmentzekoa da Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sareak garatutako jarduera eta proiektuetan parte hartu duela Emakundek, hala nola, «Aldizkarien katalogo kolektiboa» proiektuan. Oraindik abian dagoen asmo handiko proiektua da, kide diren zentro guztietako aldizkako argitalpenen izenburuak biltzen ditu, oraindik argitaratzen direnak eta ez direnak ere bai. Gainera, «Emakumea» gaiarentzat espezifikoak diren indexatze tresnen (thesaurusa) berrikuste eta egune-

ratze kolektiboa egiteko lanetan ere hartu du parte. Horrez gain, sareko topaketetan izan zen Emakunde, aurten Hospitalet de Llobregaten egin zirenak.

Dokumentazio Zentroaren bibliografia-funtsak digitalizatzeko prozesu horretan, Emakundek 1990 eta 2003 urteen bitartean editatu zituen argitalpenak digitalizatu dira, oraindik digitalizatu gabe baitzeuden. Gaur egun web-orrian kontsulta daitezke eta handik deskargatu. Argitalpen horietako batzuek Emakunderen web-orrian eskura daitezke, baina gehienak ez, arazo teknikoen ondorioz. Emakundek argitalpen digitalizatuak eskaintzen ditu bere web-orriko beste argitalpen elektronikoen atalean, eta argitalpen horiek, argitaletxeekin CEDROren bitartez hitzarmen bat izenpetu ondoren, web-orrian kontsultatzeko eta ikusteko moduan daude iazko martxotik aurrera, baina erabiltzaileek ez dute haiek kopiatzeko eta inprimatzeko aukerarik.


Horiek dira, beraz, gure Dokumentazio Zentroak eman duen zerbitzuaren jarduerari buruzko datuak.

EMAKUNDE DOKUMENTAZIO ZENTROA - ESTADISTIKAK

	2007	2008	2009	2010	2011
Barne-kontsultak	146	251	299	309	280
	109 LIB.	85 LIB.	214 LIB.	96 LIB.	110 LIB.
	5 BID.	47 DVD-BID.	37 DVD-BID.	55 DVD-BID.	75 DVD-BID.
Kanpo-kontsultak	255	450	331	298	265
	183 LIB.	144 LIB.	87 LIB.	65 LIB.	104 LIB.
	61 BID.	55 BID.	10 BID.	5 BID.	20 CD-DVD
	11 CD-DVD	29 CD-DVD	43 CD-DVD	30 CD-DVD	
Telefono-kontsultak	970	1.089	937	762	606
Dok. erref. berriak	410	467	672	925	938
	17 DVD	50 CD-DVD	85 CD-DVD	205 CD-DVD	202 CD-DVD


Telefono bidezko kontsulta - kopuruak hilero izan duen bilakaera (2009-2011)

	2009	2010	2011
urtarrila	75	60	44
otsaila	83	65	58
martxoa	103	72	69
apirila	98	55	45
maiatza	75	80	84
ekaina	74	57	50
uztaila	71	51	18
abuztua	6	2	2
iraila	72	68	52
urria	94	92	50
azaroa	99	89	72
abendua	82	71	62




Hilabetea sailkatutako kanpo-kontsulten kopuruaren bilakaera (2009-2011)

	2009	2010	2011
urtarrila	31	30	32
otsaila	37	35	23
martxoa	64	35	30
apirila	21	33	11
maiatza	27	28	25
ekaina	20	19	12
uztaila	16	25	15
abuztua	1	4	5
iraila	26	25	25
urria	31	24	28
azaroa	31	30	32
abendua	26	10	27



Kanpo eskaeren kopurua, erabilitako kontsulta moduaren arabera (2009-2011)

	2009	2010	2011
posta elektronikoz	240	221	205
aurrez aurre	64	53	45
faxez	3	1	0
postaz	7	6	2
telefonoz	17	17	13



3.12. Gizartearen sentsibilizazioa

3.12.1. Emakunde aldizkariaren argitalpena

Formatu digitalaren aldeko apustua sendotu du Emakunde aldizkariak 2011. urtean. Apustu hori egin da teknologia berriek ematen dituzten aukerak baliatze-ko, hau da, ingurumena zaindu eta kostu ekonomikoak murrizteko. Hala ere, ez da papereko formatua erabat baztertu, pertsona guztiek ez baitute teknologia berriak erabiltzeko aukerarik. Hori dela eta, aldizkariaren laburpen bat editatu da formatu elektronikoko alearekin batera, gure erkidegoko emakume-elkarteentzat, batik bat. Emakume-elkarteei, liburutegiei eta dokumentazio-zentroei bidaltzen zaie paper-formatuko laburpen hori, eta «pdf» formatuan ere deskarga daiteke, Emakunderen web-orriko «Aldizkari digitala» ataletik.



Aldizkariaren aldizkakotasunari eutsi zaio 2011n, lau aldizkari argitaratu baitira urtean, baina bertsio digitala etengabe eguneratu da. Ale hauek argitaratu dira 2011n:

- **80. zenbakia. 2011ko udaberria:** Romí Bidean, emakume ezberdinen arteko elkarbizitzaren eredua.



- **81. zenbakia. 2011ko urria:** Maialen Lujanbio «Kosta egiten da emakumeen lorpenak aitortzea, eta txapela irabaztea, sinbolikoki, pauso bat da».

- **82. zenbakia. 2011ko udazkena:**
Euskadi SOS Bebés robados. Egia ezkutatzek nori ekartzen dio onura? - 82. aldizkariaren laburpena.



- **83. zenbakia. 2011ko negua:** Araski: «Emakumeen saskibaloia erreferente izan nahi dugu». - 83. aldizkariaren laburpena.

Hamabost eguneroko aldizkakotasunez, Aldizkarira harpidetu diren pertsoneri newsletter edo buletin elektronikoa bidali zaie, azken berriekin.

Aldizkaria bi hizkuntzatan argitaratzen da osotasunean. Bertsio osoak ditu euskaraz eta gaztelaniaz.

3.12.2. Sare sozialak



Emakunderen kanpo-komunikazioak 2011. urtean izan duen berrikuntzetako bat izan da kontuak abiarazi dituela Facebook eta Twitter sareetan. Emakunde aldizkariko berrikuntzak eramaten dira bi kontu horietara, bai eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gailorreko artikulua eta agiri interesgarriak ere.

Horrez gain, Gizonduz ekimenari lantzeko kontu bat du Emakunde Facebook sarean.

3.12.3. Berdintasunerako Emakunde Saria

Berdintasunerako Emakunde Saria irailaren 12ko 166/2006 Dekretuaren bitartez sortu eta arautzen da. Hala ere, 1990. urtean Emakunde Sariekin hasitako lanaren emaitza da; sari horiek urtero eman dira 2005. urtera arte.

2006. urtean, Emakunde Sarien inguruan 16 urtez egindako lanaren emaitza moduan, sari horiek birformulatu egin ziren eta Berdintasunerako Emakunde Saria sortu zen; sari horren helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanarengatik nabarmendu diren pertsona fisiko eta juridikoei -publikoak nahiz pribatuak- jendaurreko ezagutza egitea da, eta lan hori jendaurrean nabarmentzea. Emakumeek egindako lana aintzat hartzearen eta emakumeei boterean dagokien lekua itzultzearen egindako ekintzak, lanak edo proiektuak saritzen dira, lan, ekintza edo proiektu horiek, modu nabarmenean, emakumeen balioespina eta duintasuna bultzatzen dutenean edo EAEko emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen dutenean.

Emakundek 2011ko urtarrilaren 4an egindako prentsaurreko batean jakinarazi zuen zer hautagaitzak jaso zuen 2010eko saria, hau da, Teresa del Valle katedradunari izan zela sariaren irabazlea. Bilboko Alondegian 2011ko apirilaren 13an egin zen Emakunde Gaia sari-emateko galan eman zitzaion saria. Emakunderen sentsibilizazio-helburuak betetzeko ekintzen baitan kokatzen da gala hori.

Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde Idoia Mendiak eta Emakundeko zuzendari María Silvestre izan ziren ekitaldiko buru, eta haren helburu izan ziren Emakundek 2010ean egindako lanaren errebasoa egitea, etorkizuneko erronken berri ematea eta Teresa del Valle Murga katedradunari ematea Berdintasunaren Emakunde saria. Ekitaldia Olaiaren musika-emanaldiarekin hasi zen, Beldur Barik lehiaketaren irabazlea 2010ean; ondoren, eszenatokira igo ziren berdintasunaren alde lan egiten duten gizarte-eragile batzuetako ordezkariak: berdintasunaren alde lan egiten duten gizonak, elkarrengatik emakumeak, mugimendu feministetako neskak, kirola egiten duten emakumeak, hezkuntza-alorrean lan egiten dutenak, unibertsitatean aritzen diren gizon eta emakumeak, etab. Pertsona horiek berdintasunaren aldeko lanari buruz egin zizkioten galderei erantzun zien María Silvestrek eszenatokian. Bi bideo ikusi ziren, bat Emakundek egindako lana erakusten zuena eta bestea Teresa del Valle sarituaren aurkezpena egin zuena. Pausoz-pauso taldeak egindako dantza-emanaldiaz gozatu (Beldur Barik 2010 jaialdiko irabazle izan ziren hauek ere) eta saria eman ondoren, beren diskurtsoak adierazi zituzten Emakundeko zuzendariak, sarituak eta lehendakariordeak. Ordu bete iraun zuen ekitaldi guztiak.

Aurrera begira jarrita, esan behar da Emakundeko zuzendariak 2011ko uztailaren 26an emandako ebazpen bidez deitu dela Berdintasunaren Emakunde 2011 saria.

Zuzendaritza Kontseiluak egindako eskaerari erantzuteko, aldatu egin da epaimahaiaren osaera 2011 sarirako, kideen kopurua murrizteko; hala, epaimahai hori



Emakunde saria. Teresa del Valle.



Emakunde Saria. Alardea.

eratu da eta haren kide dira Emakundeko zuzendaritza, hiru foru-aldundietako ordezkari, udalen ordezkari bat, Emakundeko teknikari bat, Emakundeko zuzendariak izendatutako hiru aditu eta beste pertsona bat Aholku Batzordearen ordezkari. Epaimahai hori abenduaren 13an bildu zen, eta erabaki zuen Irungo San Martzial Alarde Berdintasunezkoari eta Hondarribiko Jaizkibel konpainiari emango zaiela saria, Alarde Publikoaren Alde «ALARDEZALEAK» Elkarteak ordezkatuta daudela biak ala biak. Saria eman zaie aitortzeko eta ikusarazteko emakumeak Alarde mistoetan parte hartzeak legezko berdintasun bat erakusten duela, eta legezko berdintasuna ez datorrela beti bat berdintasun egiazko edo errealarekin. Epaimahaiak aitortu du apustu argi bat egin dutela hasiera-hasieratik emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde, eta hamabost urte baino gehiago daramatzatela, zailtasunak zailtasun, emakumeek festetan eta herri-ospakizunetan berdintasunean parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzen, bide baketsuak erabiliz beti. Epaimahaiak nabarmendu nahi izan du, era berean, zer lan egin duten beren aldarrikapena emakumeen eta gizonen partaidetza mistoaren bidez zabalduz, agerian jartzen lagundu baitute zer-nolako garrantzia dute errituek eta sinboloek emakumeen eta gizonen sozializazio-prozesuetan; izan ere, horietan esku hartu behar da, berdintasunaren alde egiteko eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko. Alarde mistoen lanak oihartzun handia izan du antropologiaren eta gizarte-zientzien alorretan lan egiten duten esparru akademikoetan, eta ikaskuntza kolektibo bat sortu da horren inguruan, azterketak, ikerketak, lanak, interbentzio-proposamenak eta arauak sustatu baitira. Horiek guztiak, gainera, erreferentzia dira gaur egun emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko beste kausa batzuk indartzeko.

3.12.4. Kanpainak

Martxoaren 8ko kanpaina

Urtero gertatzen den moduan, Emakumeen Nazioarteko Eguna izan zen 2011ko martxoaren 8an, eta Emakundek, egun horretan, bereziki nabarmendu nahi izan du beharrezkoa dela emakumeen presentzia bultzatzea gure gizarteko erabakiguneetan. «Emakumeak aurrera» izan zen kanpainaren leloa, eta horrekin esan nahi zen gizarteak emakume gehiago behar dituela udalen, aldundien, gobernuen, unibertsitateen, sindikatuen eta patronalen burutza-postuetan. Kanpainako kartelean, lau emakume ageri ziren, aurrera begira eta testu hau ondoan zutela:

**«Gizarteak behar dituelako,
EMAKUMEAK AURRERA,
udaletan, aldundietan, gobernuetan,
unibertsitateetan, sindikatuetan, enpresetan...
Euskadiko enpresa, instituzio eta erakundeetako
goi-kardugun gehienak gizonaek dira.
Arlo guztiak, emakume guztiak.
Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna».**

Kanpaina horren bidez, Emakundek nabarmendu nahi izan zuen desberdintasun handiak daudela oraindik ere emakumeen eta gizonen artean eskubideak, botereak, baliabideak eta onurak eskuratu, erabili eta egiaz kontrolatzeko garaian, nahiz eta egia den emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean urrats handiak eman direla azken hamarkadatan. Bide horretan urrats gehiago emateko, beharrezkoa da, Emakunderen ustez, gogoz handitu eta laguntzea emakumeek gure gizarteko alor soziokulturalean, politikoan, ekonomikoan eta bestelakoetan duten partaidetza eta erabaki-ahalmena.

Kanpainaren publizitatea egin zen autobusen, Euskotren konpainiaren eta Metroaren geltokietako markesinetan. Bestalde, bost mila kartel inguru banatu ziren hainbat herri-instituziotan, elkartetan, ikastetxetan, sindikatutan, kultura-etxetan, osasun-zentrotan, komunikabidetan eta gizarteko beste erakunde eta eragile batzuen artean. Kanpainako irudia aldizkari eta web-orri ugaritan argitaratu zen eta irrati-kate askotan eman ziren publizitate-deiak.

Azaroaren 25eko kanpaina.

Emakumearen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

Emakumeen aurkako indarkeria salatzen nazioarteko egunean, 2006. urteaz geroztik, Berdinsareak urtero gaiaz kontzientzia harrarazteko kanpaina bat egiten du. Eudelekin, Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzarekin eta hiru foru-aldundiekin izenpetutako hitzarmenaren barruan, Emakun-

gizarteak behar dituelako **Emakumeak aurrera**

Udaletan, aldundietan, gobernuetan
unibertsitateetan, sindikatuetan,
enpreetan...

Euskadiko enpresa, instituzio eta
erakundeetako goi-kargudun gehienak
gizonezkoak dira.

**Arlo guztiak,
emakume guztiak**



MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



Eusko Jaurlaritzako erakunde administratiboa
Euzkoaren Erakundearen barnean



“Beldur Barik”
prentsurrekoa.

dek ere haren diseinuan eta hedapenean parte hartu du 2011. urtean, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren laguntza izan du lan horietan.

Kanpaina gazteentzat egiten den aldetik, haren baitan gauzatzen dira, alde batetik, Adierazi Beldur Barik! lehiaketa. Bere helburua izan da emakumeen indarkeriaren aurkako jarrerak eta proposamenak bultzatzea, eta erantzun zabala izan du, 260 lan aurkeztu baitira. Lehiaketaren bigarren edizio honetan, beste helburu bat izan da erakustea neskek eta mutilek nola egiten dioten aurre, arte-adierazpenen bidez, emakumeen desberdintasun-egoerei. Berariaz, adierazpen horiek aitortu, balioetsi eta bultzatu nahi izan dira, baldin eta horien bidez erakutsitako jarrerak eta portaerak errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, erantzukidetasunean eta indarkeriaren baztertze argi batean oinarritzen badira. Ikastetxeen partaidetza sustatzea izan da lehiaketaren bigarren edizioaren beste helburuetako bat. Beste alde batetik, udalek tokiko ekimenak susta ditzaten bultzatu nahi izan da. Tokiko sariez gain, prestakuntza-ekintzak eta sentsibilizaziokoak eskaini dira Beldur Barik programan; hala nola, graffitiak egiteko tailerrak, ikus-entzunezkoei buruzkoak edo sexualitatea lantzekoak. Horien guztien xedea izan da indarkeriarik gabeko harreman libreak bultzatzea, neska gazteen ahalduntzean eta autonomian oinarrituak.

Lan hauek irabazi zuten lehiaketa: lehen kategoriak, 12 urtetik 17 urtetarako kategorian, Sahararen aldeko Debako gazteek egindako «Garena» bideoak; bigarren kategoriak, 18 urtetik 26 urtetarako kategorian, Kipulak egindako «Inondik Inora» lanak irabazi zuen. Ainhoa Artetxe, Itxaso Larrinaga, Iratxe Martin, Libe Kerroum, Marta Fantova, Amaïur Macias, Alazne Lastra, Unai Elizalde, Koldo Olabarri eta Anakoz Merikaetxeberria; herri-saria «Bide onartezin hau suntsituz» lanak irabazi zuen, Nere Oriak eta Ane Arrizabalagak egindakoa; eta aipamen bereziak jaso zituzten honako lan hauek: Lehen kategorian: «Bide onartezin hau suntsituz», «Emakumeok beldur barik» Maite Luengo, Cristina Pérez, Ana Pérez, Ane Arnaiz eta Adrian Menciak egindakoa, eta «Oihu». Begoña Barroeta eta Rut Rodriguezek egindakoa; bigarren kategorian: «Ausartu», Alazne Etxeberria, Olaia Altuna, Idoia Malcorra eta Lore Gallastegik egindakoa, eta «Beldur Barik sortu», Maite Mugerza Ronse eta Mayi Martiarena Litagok egindakoa.

Euskal Herriko Unibertsitatearen inplikazioari esker, sentsibilizazio-ekintzak egin ziren urritik aurrera hiru unibertsitate-kanpusetan, eta lehiaketa aurkeztu zen horietan. Beldur Barik topaketa egin zen azaroaren 26an, eta, bertan, sariak emateaz gain, debateak, prestakuntza-tailerrak eta aisialdi-jarduerak egin ziren.

3.12.5. VIII. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foroa 2011.

Berdintasunerako urteroko foro honen helburua EAEn gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekimenak bultzatzea eta ikusgai jartzea da, bai erakunde publikoetan egiten direnak, bai talde eta erakunde pribatuetan egiten direnak ere. Foroaren zortzigarren urte honetan, eutsi egin zaie duela hiru urte prozedurari egin zitzaizkion berritasunei; izan ere, alde batetik, ardatz nagusi bat zehaztu da eta horren inguruan garatu dira erakunde guztiek beren jarduerak, eta, bestetik, Emakunde bi mintegi antolatu ditu, bata prestakuntzara eta bestea ondorioak ateratzera zuzendutakoa, foroan parte hartzen duten erakundeen lana errazteko eta bateratzeko (ikus 3.5.3. atala. kanpo-prestakuntzari buruzkoa).

Ekainaren 1aren eta 21aren bitartean abiarazi zuen Emakunde Berdintasunerako 2011 Foroa, eremu komun bat izateko erakunde publiko eta pribatuentzat, bai emakumeen gizonen arteko berdintasunaren alorreko sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatzeke, bai Euskadin alor horretan egiten den lana ikusaraz-

Berdintasunerako
VIII. Gunearen
aurkezpena



teko. «Emakumeen partaidetza erabaki eta eragin guneetan» izan da jardueren gai nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Planeko 1. ardatzaren baitan. Horrenbestez, Berdintasunerako VIII. Foroa hausnarketarako gune zabal eta askotarikoa izan da, emakumeen ahalduntzerako eta balioren aldaketarako giltzarriak diren gai hauei buruzko gogoeta egiteko: emakumeen autonomia, emakumeen eskubide sozial, politiko eta ekonomikoen eskurapen eta erabilpen efektiboa, emakumeen partaidetza eremu soziopolitikoan eta erakundeen sustatutako partaidetza-prozesuetan, eta emakumeen sarbidea erabaki eta eragin guneetara.

Testuinguru horretan, ekainaren batean, Berdintasunerako 2011 Foroari ekiteko ekitaldian, Dora Salazar eskultoreak Clara Campoamor ekintzailearen omenez egindako eskultura bat inauguratu zen azken horren izena daraman Donostiako plazan. Horren ostean, Lugaritz Kultur etxean, Emakundeko zuzendariak eta Distinto Films sozietateko ekoizle Miriam Porték, «Clara Campoamor, la mujer olvidada» filma aurkeztu zuten, eta film hori ikusi zen aurkezpenaren ondoren.

Guztira, 61 erakundek parte hartu dute: 13 elkarte, 9 udal, 12 enpresa, 7 fundazio, Eusko Jaurlaritzako 5 sail, 4 unibertsitate edo ikastetxe, 2 alderdi politiko, 3 enpresa-elkarte, 2 foru-aldundi, 2 lanbide-elkarte, toki-garapenerako agentzia bat, sindikatu bat eta Eusko Legebiltzarra. Guztira, 66 jarduera egin dira 18 udalerritan, eta, horietan 4.000 pertsona inguruk parte hartu dute. Nabarmenezkoa da aurten eutsi egin zaiola parte-hartzaileen kopuruari, eta horren arrazoia izan daiteke zerbait jarduera instituzionalek eta eskolen jarduerak parte-hartzaile ugari izan dituztela. Adierazgarria da, halaber, gizonen eta mutilen partaidetza-ehunekoek goranzko joera dutela; izan ere, gizon eta mutilen partaidetza %5ekoa izan zen 2004. urtean, %14koa 2009. urtean, %22koa 2010. urtean, eta %29koa izan da 2011. urtean. Goranzko joera horren bultzatzaile izan dira eskolentzat eta gazteentzat prestatutako jarduerak eta berariaz aita eta semeentzat prestatutakoak.



4. EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL
ERAKUNDEAREN KOMUNIKAZIO-
PLANA IX. LEGEGINTZALDIRAKO

IX. Legegintzaldirako Komunikazio Plana (2009-2013) Emakunderen barne- nahiz kanpo-komunikaziorako lan-tresna bat da, eta helburu hauek ditu:

1. Erakundearen irudi positiboa, berorren xedeen eta helburuen arabera egokitu-takoa, sustatzea, bere historiarekin kontsekuentea izango dena eta berdintasunean oinarritutako etorkizuna lortzeko etengabe lan egingo duena.
2. Barneko nahiz kanpoko komunikazioari dagokionez, lan egiteko prozesuak, bideak, tresnak eta harremanak sustatzea eta, hala dagokionean, hobetzea, Emakunderen xede eta helburu orokorrei laguntzeko.
3. Emakumeen ahalduntzea eta komunikabideetan duten presentzia sustatzen jarraitzea.

Horretarako, Komunikazio Planak barneko eta kanpoko komunikaziorako oinarritzko irizpideak zehazten ditu IX. Legegintzaldirako, bai eta urtero abian jarri beharreko programak ere.

Bestalde, komunikazioari dagokionez, jarduketa arautu behar duten lan-irizpideak edo -printzipioak ezartzen ditu. Komunikazio Planak honako printzipio hauek ezartzen ditu: lehentasuna, gardentasuna, eskuragarritasuna, kalitatea, iraunkortasuna eta ingurumen-gaiak.

Komunikazio Planak 8 programa ditu, eta lehenengoa barneko komunikazioarekin lotuta dago.

Komunikazio Planaren abiapuntuaren arabera, barneko komunikazioa antolamenduarekin eta kudeaketarekin lotutako funtsezko alderdia da, eta eragin handia du laneko helburuak lortzeko orduan. Horregatik, barneko Komunikazio Planaren helburuak honako hauek dira: Emakunden lan egiten duten pertsonen artean komunikazioa sustatzea, pertsona horien garapen pertsonala eta profesionala bultzatzea, lan-taldeak bateratzean sor daitezkeen barne-gatazken guneak murriztea eta iritziak adierazteko eta parte hartzeko guneak sortzea. Barneko komunikaziorako hainbat neurri ezartzen ditu, hala nola barneko buletin elektronikoak prestatzea eta bidaltzea («Albisteak» buletina, izaera dokumental eta juridikoko buletina), Emakundeko Intranet hobetzea, lanerako barne-egiturak eta parte hartzeko beste gune batzuk sustatzea, etab.

Kanpoko komunikazioari dagokionez, Komunikazio Planak honako helburu hauek ezartzen ditu: jende desberdinari zuzendutako komunikatzeko espazio eta bideak zaintzea, hobetzea eta berriak sortzea, Emakundek inguruarekin duen harremana sustatzea eta pertsonekin, elkarteekin, gizarte-eragileekin, erakundeekin eta instituzioekin elkarrikeria eta lankidetzak kudeatzea. Hori guztia sentsibilizazioa, informazioa eta pertsonen eta erakundeek berdintasun-politiken garapenean parte hartzea bultzatzeko, horrek Emakunderen lan-helburuak betetzea ekarriko baitu.

Komunikazio Planak zortzi programa aurreikusi ditu kanpoko informazioa eta komunikazioa hobetzeko:

1. Lehena, herritarrak sentiberatzeko kanpainen nahiz publizitate-kanpainen garapenari buruzkoa.
2. Emakunderen web-ingurua hobetzeko eta teknologia berriak erabiltzeko programa bat.
3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruko pentsamendua eta ezagutza transmititzeko hirugarren programa bat.
4. Komunikazioaren eta emakumeen elkartekin komunikatzeko bideen hobekuntza lantzeko programa bat.
5. Instituzioekin komunikazioa eta lankidetzaz sustatzeko seigarren programa bat.
6. Eusko Legebiltzarrarekiko komunikazioari buruzko zazpigarren programa bat.
7. Komunikabideekin informazio- eta komunikazio-jarduketak aurreikusten duen programa bat.
8. Eta azken programa, emakumeek bizitza publikoan oro har eta, zehazki, komunikabideetan duten parte-hartzea sustatzeko helburua duena.

Plana legegintzaldi osorako diseinatu da, hau da, 2009-2013 urteetarako, eta, beraz, planean jasotako jarduketak progresiboki jarri nahi dira abian. Agiri honetako ataletan azaldu da zer jarduera egin diren 2011. urtean Komunikazio Planaren baitan.

